



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Arloa



GERNIKA-LUMO • 2005. URTEA • LIK - Laugarren Idazlan Koaderno • DBH eta Batxilergoa

GERNIKA-LUMO

2005. URTEA



Laugarren Idazlan Koaderno

DBH eta BATXILERGOA

GERNIKA-LUMO

**LAUGARREN
IDAZLAN
KOADERNOA**

2005

HITZAURREA

Aurreko bi urteetan lez hemen gaituzue barriro, aurtengo idazlan saila eskeintzeko aukerea eskuartean daukagula. Gure umeez eta gazteek euskeraz landutako idazlan bilduma dogu; idazteko zaletasuna eta irudimena bitarteko, ahalegin berezia eginda zelako fruituak lortzeko kapaz diran erakusten deuskue.

Ikusgarria da benetan euskerea biziberritzeko zentruetan ikasturtean zehar egiten dan esfortzua, irakasle eta ikasleen aldetik. Hagaitik, idazlantxo hauek dastatzera gonbidatzen zaitugu, irakurle, gaurko eta geroko euskaldunontzat zutabe diralako.

Koaderno berezi honetan parte hartu daberen guztiei nire zorionik beroenak eta ondotoxan begirale egon diran irakasle arduratsuei animoa, honelako emoitzak ikusita aurrera joteko aitzakia hobarik ez dagoelako.

Marina Abadia Arraibi
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Hezkuntza Arloa.

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- La Merced Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Portadaren egileak:

- Oliver Rivera.

Babesleak:

- Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Arloa.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza).

Maketazioa eta Inprimaketa:

- GRAFICAS AMOREBIETA.

2005eko edizioa.

AURKIBIDEA

“Oinetako hegalaria”	Nerea Suso	(DBH 1. Maila)	6
“Argia eta zapatak”	Pello Intxausti	(DBH 1. Maila)	8
“Xaharrekitan bra txutik”	Mikela Freundlich Zubiaga	(DBH 1.maila)	11
“Dinaren ametsa”	Maidier Sierra Menendez	(DBH 2. Maila)	15
“Maitasun hitzak”	Deiene Bermeosolo Perez	(DBH 2. Maila)	18
“Egiptora bidaia”	Amaia Goitia Iraeta	(DBH 2. Maila)	20
“Lamonaren mendekua”	Aitor Iturbe Alberdi	(DBH 2. Maila)	28
“Heriotza Himalaian”	Jon Boyra Lopez	(DBH 2. Maila)	31
“Maite nauzu?”	Roke Ojanguren Gabikaetxebarria	(DBH 2. Maila)	35
“Neska berria dugu gelan”	Leire Gonzalez Enbeita	(DBH 2. Maila)	39
“Aitorren pekatua”	Nagore Llorente	(DBH 3. Maila)	41
“Iluntasunaren begietan”	Lukene Endeiza Lopez	(DBH 3. Maila)	44
“Bizitzak eman didana”	Oihane Orue Dominguez	(DBH 3. Maila)	50
“Soinu bortitzak”	Jon Markel Etxegarai	(DBH 3. Maila)	53
“Ogi beroaren ondoan”	Arrate Fidalgo Astigarraga	(DBH 3. Maila)	59

“Ekinean”	Maite Mugira Oar-Arteta	(DBH 4. Maila)	64
“Uztailean izan zen...”	Yasmine Arrien	(DBH 4. Maila)	67
“Gizarte desberdintasunak”	Beñat Elguren	(DBH 4. Maila)	69
“Pantera beltza”	Garazi Madariaga Aguirremalloa	(DBH. 4maila)	72
“Hamar egun ihesean”	Oihane Ituarte Lauzirika	(DBH 4. Maila)	76
“Zer gertatzen da?”	Ibai Beristain Rezola	(BT 2. Maila)	80
“...Ezin gogoratu...”	Ane Miren Crespo Cuevas	(BT 2. Maila)	83
“Zortearen zoritxarra”	Asier Ordorika	(BT 2. Maila)	86
“Arrosa naiz, arrosa dut maite”	Ainhoa Madariaga Urrutia	(BT 2. Maila)	90
“Bizitzaren amaiera”	Ainhoa Malaxetxebarria	(BT 2. Maila)	98
“Berekoikerian itsutuak”	Janire Lauzirika Lafuente	(BT 2. Maila)	101
“Amets batean bezala”	Mikel Beaskoa	(BT 2. Maila)	104
“Zeruko izarrak”	Ainara Larrinaga Anasagasti	(BT 2. Maila)	107
“Amaieradun etsipena”	Sara Santiago Aldamiz-etxebarria	(BT 2. Maila)	110
“Brasileko bidaia zoragarria”	Ana Carvajal	(HHI-ko ikaslea)	113
“Nire laztana”	M ^a Jose Bilbao	(HHI-ko ikaslea)	116



Nerea Suso - DBH 1. maila

“Nire protagonistak duen indarra neuretzako nahiko nuke”

OINETAKO HEGALARIA

Bazen behin mendi tontor baten gainean zegoen etxean bizi zen familia bat. Amak Maite zuen izena, aitak Mikel eta semeak Aitor. Maite sasoi batean ondo osatu beharreko gaizotasun arin bati garrantzirik eman ezagatik, orain oso makal zegoen; hain zen larria bere gaizotasuna zeren eta medikuek ere astebeteko bizia eman baitzioten. Bere bizia salbatzeko aukera bakarra botika on bezain aurkiezineko batek eskaintzen zion. Egoera horrela eta ezer egin ezinik astegun buruzuri baten aita-semeak herriko merkatura jaitsi ziren zapatila berriak erostera. Denda baten zokondotxoan bazterturik zeuden oinetakoak gustatu zitzaizkion Aitorri. Eta diru askorik ez bazuen ere, zapatila haiek ordaintzeko moldatu zen. Aitor oso pozik bueltatu zen etxera zapatila berriak soinean zituelarik, baina etxera heltzean arima lurrera erori zitzaion ama besaulkian etzanda egonezinik aurkitu zuenean. Aurpegia gorri-gorri zuen eta urrutitik somatzen gorputzak zerion bero hilgarria.

Sendatu ahal izateko hartu beharreko medikazioa herritik hiruzpa lau egunetara zegoen herritxoan aurki zezakeen eta Aitorrek bertarantz lehen bait lehen abiatzeko asmoa zuen. Amarekin arratsalde osoa igaro ondoren lotara joan zen hurrengo eguneko bidaia luzerako indarberritzeko. Ohera sartu bezain laster lo seko geratu zen. Aitorrek gau hartan izan zituen ametsak ez ziren ohikoak izan, oso bestelakoak baizik. Goizeko oinetakoen dendan zegoelarik,

zapatok ikustean aparteko sentsazioa nabaritu zuen barnean, aske sentitzera eraman zuena, munduaren begi zorrotzetatik hegan eramanez. Sinistezina zirudien jende guztiaren gainetik hegan ibiltzea, batez ere ikusten zuen jendearen harridurarako. Guztiek begiratzen zioten arreta handiz baina leihotik sartzen ziren eguzki-izpiek errealtatera itzularazi zuten. Gau hartan bizitako sentsazioa berriro noizbait bizi nahi zuen. Oraindik goizeko seiak ziren eta ohe gainean eserita medikazioaren bila joateko bidaia prestatzen ari zen: zer eraman, zer jan... Etartean zegoen txakurraren alaruek etxeko isiltasuna apurtu zuten eta zazpietarako denak iratzarrik zeuden. Aitor guztientzako gosaria prestatzen hasia zen Mikel jaitsi orduko.

Semeak amarentzako sendagai bila joan beharra zegoela eta berak hartuko zuela ardura hori esan zion aitari. Eta honek honela erantzun zion:

- Bai arrazoa duzu baina lehendabizi goseari eta egarriari aurka egiteko behar diren indargarriak emango dizkizut.

Ia ia eguerdia zen eta aitak prest zeukan Aitorrentzako zorrotzoa.

- Mesedez, kontu handiz ibili zaitez! – esan zion aitak. Eta badakizu, okerreko bidea hartuz gero atzera egin behar duzula eta bide zuzenera bueltatu behar duzula, nahiz eta horretarako norbaiti laguntza eskatu behar.

- Bai aita. Trankil egon. Moldatuko naiz.

Aitorrek etxean erabiltzen zituen abarka zaharrak erantsi eta oinetako berriak jantziar batera ulertu ezinako poz ikaragarria sentitzen zuela konturatu zen. Aitari agur esan ondoren, etxetik irten eta kanpoan zain zegoen mundu zabalaren aurrean zutik zegoen. Apurka-apurka oinez ibiltzen hasi zen eta traktore baten zihoan gizon bati ondokoa esan zion:

- Norantza jo behar dut hirira heltzeko jauna?

- Ez da erraz erantzuteko galdera, batez ere hiriaren zaindariak hara eta hona dabilzan une honetan eta zerga ordaindu ezik hirira sartzerik ez dagoenean..

- Une honetan ama hilzorian daukat eta diozun horrek ez nau bat ere beldurtzen. Zerbaiten bila etorri naiz eta lortu arte ez dut etsiko.

Hori entzutea nahikoa izan zuen gizonak mutikoaren estutasuna eta premia larria ikusteko. Eta denborarik galdu gabe aholku on bat eman zion, zaindarien beldurrik ez izateko. Ezkutuko sarrera bat zegoen, leize itxurakoa, sasi artean basaz beteriko zelai baten alboan. Handik sartu zen eta behin hirian sartuta oinez jarraitu zuen bere bidea. Egun osoa eman zuen oinez eta zeharo nekaturik amaitu zuen. Bide bazterrean aurkitu zituen hainbat eta hainbat ostatu horietako baten atsedena hartu ondoren aparteko medikamenduak prestatzen zituzten botika hura aurkitu zuen. Helmugan egonik presaren larriak berriro jo zuen, ama makalduaren egoera larria gogoratu zuenean. Azkar ibili behar zuen, hegoak balitu bezala. Eta zapatilen oinkada zorrotza zela medio gautu orduko etxean zegoen; amari edanarazi zion eta ordu gutxitan iragana ahaztua zen gaixoak onerantz egin baitzuen. Berriro elkarrekin zeuden, familia bat berriro.



Pello Intxausti - DBH 1. maila
“Futbol zale amorratua naiz”

ARGIA ETA ZAPATAK

Peru izeneko mutil bat Biasterin bizi zen bere familiarekin, txiroak ziren. Oso familia behartsua zen, eta horrexegatik, Peru goizeko zazpietan jaiki, egunkariak etxetik etxe banatu, sosen bat edo beste irabazteko, eta eskolara joaten zen. Asteburuetan, lagunak beraiekin joateko esaten ziotenean, ezin izaten zuen joan, ez zuelako zinemako sarrera edo gozokiren bat erosteko adina dirurik. Etxean gelditzen zen, leihotik kalera begiratzen, egunkari paperekin panpinak egiten edo etxeko traste zaharrekin jolasten.



Behin, etxeko garbiketa egin beharra zegoela eta, Peruri ganbara garbitzea suertatu zitzaion eta bertan, gauza harrigarri asko ikusi zituen, baina gehien txunditu zuena, egurrezko kaxa batean zeuden zapata pare oso zahar batzuk izan ziren. Oso zikin, kordoi gabe eta “Nike”n irudia zulatuta zuten. Peruri zapata haien larruak deitu zion arreta; zaharrak ziren, behi larruz eginda zeuden eta horrek egiten zuen berarentzat politikak izatea. Zapatak hartu, linterna itzali eta eskaileteran behera zihoala, bat-batean, zapata pare hizketan hasi zitzaion.



- Egun on Peru – esan zuen zapata batek Peruk, hau entzutean, harrituta lurrera bota zituen, eta hauek ziztu bizian alde egin zuten eskaileteran beherantz, portaleko ateraino. Ezin izan zuten kalera irten, atea itxita baitzegoen, eurek ezin zuten atea ireki ez ziren heltzen kisketeraino eta.
- Eurek bakarrik ibiltzeko gai dira !! -harrituta esan zuen Peruk Peru korrika joan zen zapaten atzetik, nora zihoazen jakin gabe. Haiengana heldu zenean:
- Zelan dakizue zuek hitz egiten eta oinez? –galdetu zien Peruk
- Argiarengatik. Argiak ematen digu bizia eta indarra. Hor ganbaran ilunetan egon gara, baina zuk kutxa zabaltzean eta argia ikustean berriz hartu dugu bizia eta indarra -erantzun zioten.
- Baina, nora zoazte hain arin? -galdetu zien Peruk
- Ez dakigu - Erantzun zioten zapatek.

Goizeko zazpiak ziren, Peruk egunkariak banatu behar zituen, baina hauekin entretenitu zenez, ordua pasatu zitzaion eta ziztu bizian alde egin zuen zapata pare atzetik zuela. Mutikoak etxean gelditzeko esan zien; baina hauek kalerantz alde egin zuten ez zutelako nahi beste berrogeita hamar urte kaxa barruan egon. Kontua da, zapatek etxetik alde egin zutela, nora joan jakin gabe, bizimodu berri baten bila.

Peru etxera iritsi zenean, zapatak ikusteko asmoz, susto ederra hartu zuen ez zituenean inon ere aurkitu. Bi aldiz pentsatu gabe, kalera abiatu zen zapaten bila, aurkituko zituelakoan. Herri osoa miatu eta gero, gaueko hamaikak aldera, oso triste, etxeratu egin zen, hurrengo egunean kartel eta guzti beraien bilaketari ekiteko.

Hurrengo egunean ere beste mila buelta etxeetatik, kaleetatik, parkeetatik, plazetatik; egia esan, herri guztia miatu zuen, baina inolako arrastorik aurkitu gabe. Kale ilun eta zikin batetik etxeratzen zihoala, bat-batean, zabor ontzi baten alboan aurkitu zituen geldi-geldi zeudela, gaua zen eta. Hartu, motxilan sartu goxo-goxo egoteko eta etxeratu egin zen. Goiza iristean, eguzkia irten zenean, zapatek berriz ere bizia eskuratu zuten eta barkamena eskatu zioten mutikoari, zentzu gabe alde egin zutela eta Peruk, pertsona ona denez, barkatu egin zien, berriz ez egiteko esanez.

Gaur egun, kantu kantari dabilta herriz-herri dirua batuz Bizkaiko beste lurraldeetako herrietan, eta egunen batean zure herriko kaleetan zapata pare bat hitz egiten eta dantzan eta alboan mutil irribarretsu bat ikusten badituzu, ez harritu, beraiek dira eta.

Hau bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila gure herriko plazan



Mikela Freundlich Zubiaga - DBH. 1. Maila

“Hi lagun, nirekin euskeraz jardun”

XAHARREKITAN GRA TXUTI

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen.

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen.

Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten handik nekez.

Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten handik nekez. [...]

Horrela dio abestiak. Polita ez? Ikusten duzunez, euskarari buruz da, hainbat bertso edo abestitxo bezala. Esaterako, Aitorren Hizkuntza Zaharra olerki ederra da, ongi pentsatua eta prestatua, gure euskara hizkuntz magiko eta jatorri ezjakineko istorioaren laburdura, eta nola eta zein modutara erabili behar dugun informatzeko testutxo.

Aitorren hizkuntz zaharra

nahi degu zabaldu.

Munduaren aurrean

gizonki azaldu.

Baldin gure zainetan

odolik badegu.

Euskaldunok euskaraz

hitz egin behar degu. [...]

Jarraipen eta guzti dauka kanta honek, baldin eta Aitor eta euskararen bizitzak nola moldatzen zirenekoak. Baina ez dut osorik idazteko asmorik, ez gogorik, ez eta itxaropen hutsik ere. Euskara delako nire pentsamendu bakarra, bakuna. Euskara ez den beste zein hizkuntza da ederrago? Eta zaharrago? Eta zailago? Askok esango duzue: “Gezur galanta! Txinera eta Asiako beste hizkuntza zailagoak ere aurkitzen dira!” Egia izango da noski, dudarik gabe. Baina zailenarikoa da euskara, bere euskalki eta azpieuskalki, esamolde eta esakera, eta.... Horrela jarraituz gero ezin inoiz bukatu! Euskararen euskalkiez eta azpieuskalkiez hitz egiterakoan, gauza bat piztuko zitzaizuen zeuon buruetan: “Zer da ba, euskalki demontre hori?” Dakizuenari ez, noski, baina bestelakoei? Ba hauxe da definiketa, definizioa, laburdura azken batean: euskarak berak dituen berba egiteko modu desberdinak, diferenteak. Baina denak, bide desberdinetatik zein sustrai eta erro ezberdinetatik euskararen seme-alaba dira. Euskalki nagusienak bizkaiera, gipuzkera, goi nafarrera, lapurtera, behe nafarrera, zuberera eta erronkaria dira, zein baino zein ederragoak, lirainagoak.

Eta horrek, beste horrek, sagardoa eda(n) euen eta esakerea euen “Jesus”, eta esa(n) euen “Jesus” eta itxi eutsen basue. Eta badiñotso señoreak: “Au basu hau eroaixu. Ze honegaz, len bakauket penitentziengandik handiegoak deukedaz. Ze hau zuk (eg)indo zu bendizidu, “Jesus” esan dozunian.

Mendebaldeko hizkuntza da hauxe, bizkaiera hain zuzen. Euskalki honetan, azpieuskalki gehiago ere badaude. Esate baterako Mundakakoa. Bai, Mundakakoa. Lehengo portu txikia eta kortsarioen memoria gordetzen dituen herritxoa, Izaro uhartearen jauna eta jabe izateko aukera galdu zuena, eta orain munduko surflarien jostamen eta txapelketa girorako herri famatu bihurtu dena:

Pez luna: atalua. “Atalua”. Ori oten da, e, asalien, beren egue atata dala, aulan, plin, plan, ordun oten da “lo” esaten du dauela, esaten du: “lo dau, atalue”. Da, egualdi kalmak dauzenin da olan dauenin bare-bare ta aixe barik eta an ukusten die ba igual bost edo sei era batera ta aulan. Da esati dau, esakerie, esakeri dau, ataluk salta eitxen dau, aidin saltaten dau, iru bider saltaten dauena euskalduna dala.

Irakurtzerik izan ote duzu? Zaila ez? Horrela da euskararen bizitza, bai. Gogorra zein erraza, latza zein paregabea, ... Baita aldakorra ere. Euskarak hainbat garai zatar eta makal jasan behar izan ditu, latinak jo eta ke gainean ematen baitzion. Baina kutsu asko utzi ohi ditu latin honek, adibidez: okela, pagoa, angelua, gaztaina... Hauek guztiak latinetik datoz, hainbeste eta hainbeste urtez Euskal Herria erromatarren menpean aurkitu baita. Baina euskarak, jasan izan ditu kolpe eta sakakada hauek guztiak, iraun izan du bere momentu txarretan... Eta orain joaten utziko al diogu? Etorbizunean aldegiten ikusiko al dugu? Haizeak hostoak eramaten dituen bezala. Edo katuak sagua uxatzen duten moduan. Edo, errealtatean, gaztelaniak eta

frantsesak euskara suntsitzen eta makaltzen duen eran. Tristeia bihurtuko litzateke euskararen amaiera. Makal-makala. Tristeia eta zorigaitzekoa. Negargarria. Pobre geratuko zen gure hizkuntza preziatu eta adoratua, urteetan eta hala nola mendeetan ere iraun duena. Gure erruz galdu egingo dena horrela tratatzen segitzen badugu, gaztelaniarekin eta frantsesarekin nahastatzen badugu, txikleia ahoan bezala, korapilatu. Hodeiak ilun agertzen diren bezala. Haur bati jostailua hausten zaion eran.



Ikusten duzuen ez goiko ilustrazioan, hodei ilun eta triste batzuk agertzen dira, kasu honetan, euskararen egoera. Baina ezkerrean, puntu txikitxo batean, esfortzu guztiak indarrarekin emanez, eguzkia sartzen da. Hori zer izango ote da? Imajinatzen al duzue? Agian, laguntzaren bat edo... HORIXE BAIETZ!!! Euskal Herri guztian geratzen diren euskaldun euskalzale guztiak dira, indarrak eta ahaleginak emanez hor nonbait geratzen direnak, han zulo txoreen bateko ertzen batean, euskara biziago eta indartsuago bihurtuz. Horregatik, jadanik asmatuko zenutenez, dauka izenburuak halako izen arraroa, misteriotsua. Erronkarietaz dago idatzirik, esanahi eta guzti, idazlan honen guztiaren laburduraren arrazoiarengatik. Ez al dago ba, euskara hori egiten? Ez ote dago zahar eta zahar bihurtzen, eta aldi berean gero eta hizkuntza kanpotar gehiagoz suntsiarazten eta higatzen, hainbat sakakada eta bultzakadaren ondorioz? Eta ez al gaude ba, horren aurka borrokatzen? Euskara eta bertan dauden euskaldunen alde ez gaude ala? Horrexengatik dauka idazlan honek halako izenburua, halako titulua. Primeran egokitzen zaiolako, euskararen historiaren eta etorkizunaren arrazoi eta egia delako: “XAHARREKITAN GRA TXUTIK”.

Abestitxo hau eskaintzen eta dedikatzen diet bihotz barren-barrenetik, nik daukadan indar eta sendotasun guztiak emanez euskarari eta Euskal Herriari:

Araban bagare,
Gipuzkun bagera,
Xiberun bagire,
Ta Bizkaian bagara.
Baita ere Lapurdi ta Nafarra.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara.
Nahiz eta hitz ezberdinez,
bat bera dugu hizkera.

B	B	B	B
A	A	A	A
G	G	G	G
A	E	I	A
R	R	R	R
E	A	E	A

Euskadi askatzeko oraintxe dugu aukera!!!



Maidier Sierra Menendez - DBH 2. maila

“Irakurtzea asko gustatzen zait eta animaliak asko maite ditut “

DINAREN AMETSA

Dena hasi zen gau zoragarri batean. Dina deitutako neska bat, bere logelako leihoan etzanda zegoen zeruari begira. Zerua izarrez beteta zegoen eta ilargia inoiz baino borobilagoa. Ez zegoen hodei bat ere, eta hotza ez zen ageri uda hartako ekainaren 20an.

Dinaren oporrak hasi berriak ziren eta oraindik ez zekien zer egingo zuen uda hartan. Bat-batean bere ama agertu zen logelan.

- Dina, dei bat duzu!

- Nork deitzen dit ordu honetan? – Pentsatu zuen.

-Amama da. Zerbait proposatu nahi dizula uste dut.

Neskatoa telefonorantz abiatu zen irrikaz.

-Bai ? - erantzun zuen.

-Dina? Amama nauzu eta ea uda nirekin pasatzea nahi duzun galdetzeko deitzen dizut.

-Zenbat denbora amama?

-Zuk nahi duzun beste. Uda osoa, hilabete bat, bi aste... , zuk nahi duzun beste.

-Ados, amama! Orduan laster ikusiko dugu elkar.

Aste bat pasatu zen eta, neskatoa, autobusa hartuta, amamaren etxerantz abiatu zen. Momentu horretan, berak ez zuen susmatzen zer gertatuko zen amonaren zihoala.

Autobusaren gidaria lo geratu eta autobusak kamioi baten kontra jo zuen. Istripu izugarria izan zen. Talkaren ondorioz jendea leihoetatik atera zen bost metroko hegaldia eginez. Batzuk odolez beteta zeuden, beste batzuk oso kolpe gogorak zituzten.

Dinak kolpe handia hartu zuen buruan konortea galduz, eta geroxeago esnatu zenean, gertatutako dena ikusterakoan, oihuka hasi zen beldurraren beldurrez. Bere alboko gizonak izugarritzko zauria zuen buru erdian eta bere ezkerreko hanka egur zati handi batek zeharkatzen zion. Bere aurrean zegoen emakumeak begi bat galdu zuen bere semea babesteko ahaleginean. Minutu batzuk pasatu zirenean, Dina lasaitu egin zen eta laguntza ematen hasi zen.

Ahal izan zuen jendeari laguntasuna ematen saiatu zen, baina asko ez ziren berriro esnatuko, zoritxarrez. Momentu horretan, arinagoko urtean egindako kurtsoak, larrialdietarako lehen laguntza, zerbaitetarako balio zuela konturatu zen. Maletetan aurkitutako arropekin odol jarioak gelditzen ahalegindu zen, odolustu ez zitezen. Banaka batzuk, zauri larriak ez zituztenak, martxan jarri ziren gertatutakoaz ohartu zirenean: umeak lasaitzen batzuk, laguntza bila beste batzuk, lagungarri izan zitekeen edozeren bila beste batzuk. Denak oso urduri eta izuturik zeuden; baina laguntza ematen jarraitu zuten. Gizon indartsuenak zaurituak autobusetik ateratzen aritu ziren eta ausartenek hildakoak alde batean jartzen zituzten.

Autobusa landa zabaleko errepide zahar batean zegoen, argirik gabe. Ez zen ikusten inongo argirik eta kotxerik ere ez zetorren. Denek zekiten azkar ibili behar zirela, gaua heldutakoan ez zelako ezer ikusiko. Telefono mugikorra hartu zuen laguntza eskatzeko asmoz, baina bateriarik gabe zegoen. "Etxean kargatzen ipini izan banu.." pentsatu zuen haserre bizian.

Gidariaren lekuraino joan zen zein egoeratan zegoen ikusteko; baina...gidariaren orde, paper bat aurkitu zuen eserlekuan zintzilik:
EZ PENTSA NIGANDIK LIBRATU ZARENIK..., ZURE AMETSETAN AURKITUKO NAUZU GAUERO.¡¡¡


Dina, izututa, korrika hasi zen leku hartatik urrun joateko asmoz, baina ezin zituen hankak mugitu. Norbait bere atzetik zetorrela iruditzen zitzaion bere izena esanez: Dinaaaa, Dinaaaa, baina ezin zen mugitu!!!!
Bat-batean norbait sorbaldatik bultzaka zeukan.
Dina! Dina! Esnatu zaitetz! Dei bat duzu itxaroten! Dina!

Ama zen. Neska bere logelan zegoen. Leiho ondoan etzanda eta zeruari begira. Gaixoa zurbilduta zegoen eta izerditan blai eginda. Dena amets gaizto bat besterik ez zen izan! Amets bat. Zelako amets ikaragarria! Odola, zaurituak...
Baina... eta notatxoa? Ze esanahi zeukan notatxoak?
Halako batean amak:
-Dina! Telefonora! Amama duzu itxaroten.
-Amama?

Arrapaladan jaitsi zituen eskailerak eta telefonoa hartu zuen:

-Bai? Nor da?

-Dinana? Amama Felisa nauzu. Uda nirekin pasatu nahi al duzu?





Deiene Bermeosolo Perez - DBH 2. maila

“Bizitzak maitasuna ematen duen bezala, maitasunak bizia ematen du”

Zuriñe maitea, zure laguna Andoni naiz.

Joan den egunean, taldean geundela, ikastolan irakurtzen ditugun olerki hoiek idazten dituzten mutilak existitzen diren zalantzan jarri zenuen.

Ondorengo hitzak zuretzat dira.

MAITASUN HITZAK

ederragoa	Zu zara eguzkia baino
distiratsuagoa,	izarrak baino
alaia	txoriak bezain
gozoagoa.	eta ezta baino
eguzkia	Nire neguko bihotzian zeu zara udaberria, elurra urtuko duen
“Itun Berria”	eta nire bizitzako
galdurik	Txoriak txio-txioka dabilz amaren bila, ni zure bihotzian bezala

gidari,	argiaren bila. Zu zara dana niretzat zu zara nire bizitzaren
zaitudanean	zu nire betiko maite eta ni zure mirari. Kaletik ikusten denbora gelditzen da, zu ez zaudenean mundua inperua da.
maitasunik	Zu ez bazina izango nik zer egingo nuke? Egongo ote ezeren truke ? Maitasun polita. Maitasun ederra. Maitasun osoa. Maitasun malkoak. Zu aurkitzean nik daukat zorte ona, zure barrualdean topatu baitut zoriona.
dute	Erreka da zure irudia, arrainek igerian egiten
gorputzean	ni bezala zure maitasunez jo ta ke. Lore lirain distiratsu hori, emaidazu maitasuna eta niri ez bada, inori.

Andoni





Amaia Goitia Iraeta - DBH 2. maila
“Gaurko izerdia biharko ogia”

EGIPTORA BIDAIA



1.PASARTEA “Khan el Khalili”

Eider eta Jaione Donostian bizi diren bi lagun dira. Elkarrekin doaz eskolara eta hamalau urte dituzte. Bi lagunak Groseko Txofre kalean bizi dira. Gustora daude Donostian bizitzeaz. Beraien etxeetatik gertu dago Groseko Zurriola hondartza.

Eider neska alaia eta dibertigarria da. Beti ondo jantzita eta prestatuta joatea gustatzen zaio. Ile horaila eta itsasoa bezalako begi urdinak ditu. Jaione ile marroi iluna eta begi beltzak dituen isiltzen ez den neskatxa da.

Egun batean Alderdi Eder jardinetan zeudela biak, Eiderrek zera kontatu zion Jaioneri:
 -Ba al dakizu nora joango garen Aste Santuko oporretan? Egiptora!
 -Bai ala? Nortzuk joango zarete?
 -Nire gurasoak eta ni.
 -Betidanik nahi izan dut Egiptora joan- aitortzen dio Jaionek Eiderri- Gizehko piramideak bisitatu, Karnakeko tenplua ikusi, Esfingea...
 -Zer iruditzen zaizu zure gurasoak konbentzitzen saiatzen ba gara elkarrekin joateko?- proposatzen dio Eiderrek- Gaur bertan gure gurasoekin hitz egin genezake, ea uzten dizuten nirekin etortzen.

Bi lagunak isilik gelditu ziren, bakoitza pentsatzen nolako izango litzatekeen Egiptorako bidai hori elkarrekin.

Geroxeago, beraien gurasoei deitzera joan ziren pentsatu zutena esateko. Horretarako afari bat antolatuko zuten denentzako txoko batean, asmoak komentatzeko eta abar.

Eiderren gurasoei ondo iruditzen zitzairen, uste zuten ondo pentsatua zegoela, horrela biak batera hobeto pasatuko zutela. Jaioneren gurasoak beraiekin ados zeuden eta baimena eman zioten beraien alabari Egiptora joateko, baina hegazkinaren txartela eta hoteleko gela, noski, beraiek ordainduko zuten.

Aste Santurako hilabete falta zen baina hegazkin txartelak eta hoteleko gelak erreserbatuta zituzten. Eider eta Jaione oso pozik zeuden, bata bestearekin joango zirelako. Ez zuten lortu Gaztelera eta Arabezko hiztegirik baina eskolan ikasitako ingelesarekin nahiko izango zutela pentsatzen zuten.

Hurrengo egunetan ez zuten eduki beste konbertsaziorik bidai baina. Liburu denda batean erosi zuten Egipton ikusi daitezkeen gauzei buruzko gida bat.

Bidaia baino egun bat arinago esan zion Eiderrek Jaioneri telefonoz:
 -Siesta luzea bota beharko dugu, goizeko bostetan Donostiatik irten behar dugu Loiura iristeko eta.

-Niri horrek ez dit inporta, Egiptora joateko gogo itzela daukat eta.
Gau hartan ez zuten lo lasai egin, bidaia nolakoa izango zen amets eta amets egin zuten biek.



Laster iritsi zen bidaiaren eguna. Jaione eta Eider lo geratu ziren autoan, Loieurantz zihoazenean, baina gertu zeudenean esnatu ziren, hegazkin baten zaratarekin.. Maletak zinta baten gainean jarri eta eraman zituzten. Beraien hegazkina oso handia iruditu zitzairen, behin ere ez baitzuten ikusi bat hain gertutik. Igo ziren hegazkinera eta autobus baten itxura zuela iruditu zitzairen, eserleku iladak bietan berdinak zirelako eta leku estua zelako. Hegazkinaren zaratak harritu zituen.

Aireratzera zihoazenean hegazkinak izugarriko abiadura hartu zuen. Gora egitean tripan sentsazio berezi bat sentitu zuten eta belarriak tapatu zitzaizkien. Laster eman ziren gosaria azafatak. Hauek hegazkin barruan bidaiariei laguntzeko neska gazteak ziren. Urdinez jantzita zihoazen, gona urdina, alkandora zuria, jaka urdina eta lepoko painelo bat.

Hegaldiaren bi ordu hitz egiten eman zuten Eiderrek eta Jaionek, baina azkeneko lau orduak nahiko aspertuta iragan zituzten. Tarteka hodeirik ez zegoenean hiriak ikusten zituzten eta beste denbora luze batez Mediterraneo itsasoa. Bitartean Eiderren aita eta ama lo zeuden.

Kairora iritsi zirenean ordu batak ziren. Ordubetez egon ziren denak maletai itxaroten eta Egipton sartzeko aduanako tramiteak betetzen.

Taxi bat hartu eta hotelerantz abiatu ziren. Egiptoko gidariak zoroak balira bezala gidatzen zutela ohartu ziren. Denbora guztian edozein lekutatik aurreratzen eta bozina joz. Joan ziren hotelak Continental izena zeukan. Lau izar eduki arren zahar xamarra zen: sabai altuak, korridore luzeak eta getetako kortinak granate ilunak zituen.

Maletak gelan utzi eta jantokira jaitsi ziren segituan, gose baitziren.

Lehenengo egunetan turismo pixka bat egiten ibili ziren: esfingea ikusi zuten, Karnakeko tenplua bisitatu...

Egun batean, jan ondoren, egongelara joan ziren, pixka bat deskantsatzera. Eider eta Jaione Egiptori buruzko gida bati begirada bat botatzen ari zirela, gizon egiptiar bat hurbildu zitzairen eta zera esan zien:

-Egiptori buruzko gauzak interesatzen al zaizkizue?
-Bai!-erantzun zion Jaionek.

-Nahi al duzue Khan el Khalili deitzen den zocora joan?
Neuk eramango zaituztet nahi baduzue.
Zer da zoco bat?-galdetu zuen Eiderrek.
-Zocoa merkatu handi bat da.-erantzun zion gizonak.

Eiderren gurasoei galdetu zien ea uzten zien zocora joaten eta hauek baiezkoa eman zieten, baina beraiekin joango zirela. Gizon hura Slimane deitzen zen eta arkeologoa zen. Oso jatorra eta berbalduna zen.

Khan el Khalilian zeuden bitartean Slimane produktuen kalitateaz hitzegiten hasi zitzairen: hura imitazio bat zela, hark merezi zuela erostea, kalitatea zeukala... Segituan egin ziren bostak lagun. Slimanek kontatu zien piramide baten zegoela lanean. Dagoeneko pieza dexente bilatu zituela, baina lapurren beldur zela ere. Puestu baten aurrean zeudela esan zuen Slimanek:

-Pieza hori nik piramidean bilatutakoa da.-granitozko irudi txiki bati begiratu.



Slimanek puestuko saltzaileari esan zion ea nondik lortu zuen. Saltzaileak ezagun baten bitartez lortu zuela erantzun zion. Oraingo honetan zenbat balio zuen galdetu zion, baina ez zegoela salgai erantzun zion. Orduan Slimanek aurpegira begiratu zion, harriturik gelditu zen mafioso aurpegia zuela konturatu zenean. Ezkerreko belarritik hasita ia ahoraino iristen zitzaion orbain bat zeukan eta eskumako besoan kobra baten itxura zeukan tatuai bat.
-Goazen hemendik-xuxurlatu zien Slimanek lauri.

Denek alde egin zuten puestu hartatik beste batera, disimuluz, noski. Andre zahar baten saltokira abiatu ziren, Slimanek esan baitzuen ezaguna zeukala andre hura eta gauza politik saltzen zituela. Eiderrek papiro orri eta perfume potetxo bat erosi zituen. Jaionek berriz esfigearen irudi txiki bat, bere gurasoentzako postal bat eta bere izena geroglifikoz zeraman pultsera bat.

Gaua egiten ari zen eta Slimanek hotelera eramango zituela esan zien, baina autorako bidean norbait segika zutela ohartu ziren. Atzera begiratu eta mafioso aurpegia zuen gizona ikusi zuten. Kale estu batzuetatik sartu ziren ea despistatzen zuten, baina alferrik. Ematen zuen gizon hark Kairoko kale guztiak ezagutzen zituela. Berdin zen zein kaletati joan, mafiosoak leku guztietara jarraitzen zituen. Azkenean taberna batetara sartu ziren, gizona despistatu nahian. Zerbait eskatu behar izan zuten, eta kuxinetan eseri. Slimanek tabernarko jabearekin hitzegi zuen, ea uzten bazien atzeko aldetik ateratzen. Egipton denden edo tabernen atzeko aldeak jabearen etxebizitzak izan ohi dira. Slimanek konbentzitu zuen gizona eta atzeko aldetik atera ziren. Isilean kotxera joan eta hotelera habiatu ziren.

Iritsi zirenean ea mafiosoak zergaitik jarraitu zituen pentsatzen hasi ziren. Agian Slimanek nondik lortu zuen galdetu ziolako eta beraiek poliziari ezer esan baino arinago berak jipoi bat emango ziela pentsatu zuten.

Hurrengo egunerako gelditu ziren jada. Slimanek esan zien piramidera joan behar zela lanarekin jarraituzera.

-Zein piramidetan?-galdetu zuen Jaionek.

-Micerinos faraoiaren piramidearen ondoan dagoen beste, txikiago batean, Micerinosen emaztearenean.-erantzun zion Slimanek.

-Bai, oso gustura joango gara-esan zuen Eiderrek.

Eiderren amak ezetz esan zien, ez ziela uzten joaten, beraiek jadanik nahiko abentura izan zutelako eta ez zutelako nahi neskak bakarrik joatea. Baina Slimanek leku lasaia eta segurua zela erantzun zion. Bera arduratuko zela bi neskez eta ez zitzaizela ezer gertatuko esan zion, eta ama konbentzitu zuten.

-Eskerrik asko!-oihukatu zuten Eiderrek eta Jaionek.

-Orduan biharrarte-agurtu zen Slimane.

2.PASARTEA “Sajid”

Goizeko bederatzietan han zegoen Slimane, hotelaren sarreran Jaione eta Eiderren zain.

-Egun on-agurtu zien.

-Kaixo-erantzun zuten bi neskak.

-Prest zaudete?-galdetu zion Slimanek-Bai ezta? Orduan goazen.

Jaionek argazki kamera hartu zuen, piramide barruari argazkiak ateratzeko. Kairotik pixka bat atera eta dena zen basamortua. Izan ere, Egiptoko alderik berdeena Nilo ibaiaren inguruan dago, beste guztia basamortua da. Azken urteetan hainbeste haunditu da Kairo, piramideetatik bostehun metrotara edo egongo dira etxebizitzak. Horma bat eraiki behar izan dute etxerik ez eraikitzeke piramide inguruan. Esan bezala, Kairotik irten eta segituan zeuden Micerinosen alboko piramidean.

Slimanek piramidearen plano bat erakutsi zien, berak erabiltzen zuena ez galtzeko. Piramideek pasadizo eta tranpa asko edukitzen dituztela esan zien eta kontuz edukitzeko ikutzen zutenarekin.

-Hau erreginaren kamara da eta bertan bere sarkofagoa aurkitu genuen, nire lagun Manerrek eta biok. Sarkofago barruan urrezko bitxiak, diamanteak etabar zeuden. Baina gauzarik baliagarriena bere koroa zen. Koroaren gaikaldean kobra bat zuen, sugearen begiak bi esmeralda txiki eta polit ziren. Aurkitutako guztia Kairotiko museoan dago. Nahi baduzue joango gara egun batean ikustera-azaldu zien Slimanek.



Eider eta Jaione pozez zorutzen zeuden. Slimane benetan arkeologo eta lagun ona zen.

-Orain beste kamara batetara eramango zaituztet, hau baino askoz ere politagoa.

Arrazoa zeukan, kamara hura azkoz ere politagoa zen, zoragarria. Pareta guztiak kolore ezberdinetako geroglifikoz beteta zeuden. Batean esan zien Slimanek erreginaren bizia kontatuta zegoela. Baztar batean Horus jainkoaren irudia sapelaitz buruarekin zegoen urrezko mahai baten gainean.

-Polita benetan ezta?-galdetu zion Slimanek. Bitartean Jaione argazkiak ateratzen ari zen etengabe.

-Bai -erantzun zion Eiderrek.-Nola iritsi zinen arkeologo izatera?

-Ba nire aitak, ni txikia nintzenean faraoiei buruz istotio pila bat kontatzen zizkidan. Asko gustatzen zitzaidan Egiptori buruz gauzak ikastea eta baita irakurtzea ere. Neuk ere nahi nituen pieza baliagarriak bilatu, eta horrela arkeologoa izatea erabaki nuen.-erantzun zion Slimanek.

-Zer da palanka hau?-galdetu zuen Jaionek.

-Ez ikutu!-oihukatu zion Slimanek. Beranduegi ordea, ordurako sakatua bait zuen palanka beherantz. Bapatean zoru erdia ireki egin zen eta hirurak zulo batetik behera erori ziren. Ez zuten ezer ere ikusten, dena zegoen ilun eta erdi bustita.

-Ondo zaudete?-galdetu zuen Slimanek. Bere ahotsa urrutitik zetorrela ematen zuen.-Linterna pizkuko dut, zuek argia ikusten duzuen lekura jo segituan eta eman eskua niri.

Horrela egin zuten. Slimanek linterna piztu zuen eta Eider eta Jaione berarengana abiatu ziren eta Slimaneren eskura heldu ziren sendo.

-Aurrerantz joango gara ea zerbait aurkitzen dugun. Jaione eta Eider beldurrez kakaztuta zeuden, nahiz eta Slimaneren eskuak segurtasuna eman. Slimanek beti zekien zer egin horrelako momentuetan.

-Begira, argi izpi bat ikusten da hor.-xuxurlatu zuen-Isiltasunez hurbilduko gara ea nor edo zer den ikusteko.

Hurbiltzen zihoazen einean, argi izpia gero eta handiago egiten zen, azkenean argia zetorren lekuraino iritsi arte. Altxorrez betetako gela bat zen eta bertan pertsona bat zegoen zaku handi bat bitxiz betetzen. Pertsona hura mafioso aurpegia zuen gizona zen. Bapatean Slimanek, Eider eta Jaionen eskuetatik askatu, eta esan zion mafiosoari:

-Baina zertan ari zara lapur halako hori! Nondik sartu zara?

-Bentilazio kanaletatik, artaburua! Baina ezin duzu hori hortik esaten joan eta orduan hil egin beharko zaitut!-erantzun zion mafiosoak ganibeta ateraz.

-Ezta pentsatu ere!-oihukatu zuten Eiderrek eta Jaionek batera. Metalezko pieza bana hartu zuten eta mafioso buruan kolpatu zuten. Kolpearen eraginez mafioso lurrean etzanda gelditu zen. Etorri ziren bidetik ihesi atera ziren hirurak piramidetik.

-Orduan badakigu nondik ateratzen dituen piezak lapur horrek-esan zuen Jaionek-Bentilazio

kanaletatik sartzen da eta nahi duen guztia lapurtzen du, gero zokoan saltzeko, prezio on batez noski.

-Goazen poliziarengana-esan zuen Slimanek kotxera sartuz. Honek telefono mugikorra utzi zien neskei, Eiderren gurasoak abenturatxoarena jakiteko. Eskerrak Eiderrek hoteleko zenbakia buruz ikasi zuela larrialdiren bat gertatzen baldin bazen. Gurasoei deitu eta polizi etxera zihoazela abisatu zion aitari Eiderrek, eta piramidera joan zitezela esan, beraiek laister bueltatuko zirela eta. Momentu horretan Slimanek taxista zoro haietako bat ematen zuen, abiadura handian gidatzen baitzihoan. Ordu laurdenean polizi etxean zeuden eta hamar polizi beraiekin joateko prest. Komisaria lapur eta kontrabandistaz beterik zegoen. Eraikin hartako paretak bainila kolorez margozturik zeuden eta mahaiak eta eserlekuak egur zaharrez eginik. Slimanek den-dena kontatu zion poliziarri Kairotik piramideetarako bidean, nola bera arkeologoa zen eta neska biak beraren bi lagun eta piramideko kamara batetan zeudela tranpa batean erori eta mafioa bilatu zutela lapurtzen.

Heldu zirenean Eiderren gurasoak itxaroten zeuden, erabat larrituta. Bi neskeengana korrika joan eta galdetu zien:

-Zer moduz zaudete? Minik hartu al duzue?

-Ez lasai ondo gaude-erantzun zieten Eiderrek eta Jaionek.

-Non utzi duzue lapurra?-galdetu zuen polizietako batek.

-Barruan-erantzun zion Slimanek-Orain eramango zaituztet. Etorriko al zarete nirekin?-galdetu zien Slimanek bi neskei.

-Bai-erantzun zion Jaionek-Horrela esango dizut zer ikutu nuen tranpan erortzeko.

Slimanek piramidearen barruan gidatu zituen eta Jaionek erakutsi zion sakatu zuen palanka hura. Berrito tranpan erori, baina oraingoan kontu handiagorekin eta mafioa zegoen lekura eramane ziotzen poliziak.

-Baina hau Sajid da! Orain dela hilabete batzuk bilatzen hasi ginen piramide lapurra!-esan zuen polizi haietako gizon batek.

Orduantxe hasi zen esnatzen Sajid.

-Atxilotuta zaude!-oihu egin zion polizi batek eskuburdinak ateraz eta beraren eskuen inguruan jarriz.-Lapurketa honengatik urte dexente pasako duzu kartzelan, denbora aski zer egingo duzun erabakitzeko.

-Ikusiko gara berriro, arkeologo nazkagarri hori-esan zion Sajidek Slimaneri.

-Bai, ikusiko gara kartzelatik ateratzen zarenean, ateratzen bazara-erantzun zion Slimanek harro. Eta piramidetik atera ziren hiru lagunak.

-Pieza baliagarriak bilatu dituzu ezta Slimane?-galdetu zion Eiderren aitak.

-Bai, nahi al dituzue ikusi?-proposatu zion Eiderren gurasoei.

-Zergaitik ez? Goazen ba-esan zuen Eiderren amak ,eta Slimanek bilatu zuena erakutsi zien.

Slimanek, bilatutako piezak seguruago egon zitezela, Kairoko museora eramatea pentsatu zuen. Azkeneko egunean Slimanek bisita turistiko bat prestatu zion Euskaldunei Kairoko museora, beraren piezak erakusteko. Museoan piezak askoz ere garbiago eta politago ikusten ziren piramidean baino. Hala ere, piramide barruan ikustea esperientzia politagoa zen. Bertan ikusteak beste sentsazio bat ematen zuen.



Inork ez zuen nahi Egiptotik aldegin baina, Euskal Herrira ere bueltatu behar zuten, Aste Santuko oporrak bukatzen ari zirelako. Laister eskolara bueltatu behar izango zuten. Slimanengandik despeditzea gogorra egin zitzairen, oso lagunak egin baitziren. Hiru lagunak beraien korreo elektronikoko helbideak aldatu zituzten. Astean behin idatziko ziela hitz eman zion. Slimani, Euskal Herriko postal bat bidaliko ziotela esan zion Jaionek.

Ez zitzaion inori ahaztuko Egipton bizi izandako abentura. Eiderrek eta Jaionek erabaki zuten haundi egiten zirenean Egiptora bueltatuko zirela, Slimani bisitatxo bat egitera. Orduetik aurrera Jaione eta Eider Egiptori buruzko filmeren bat ikustean Slimanez eta Egiptoko bidaiaz gogoratuko ziren.



Aitor Iturbe Alberdi - DBH 2. maila

“Nik gustoko ditut kirolak”

LAMINAREN MENDEKUA

Etxean etxekoei, batez ere, nire amumari entzun nion behin baino gehiagotan ipuin hau.

Neguko egun hotz eta ilunetan, denok suaren inguruan, biltzen ginen, amuma, aita, ama, anaiak eta ni, eta amumak lotara joan aurretik, pila bat ipuin kontatzen zizkigun lamina eta sorginari buruz batez ere.

Behin batean, bi anai, Kepa eta Koldo, Anboto azpiko baserri batean bizi ziren. Bi anai hauek, beste herriko jendearekin oso harreman gutxi zeukaten, baina hala eta guztiz ere, astean behin, igandeetan, herrira jaisten ziren. Ez zeukaten dirurik, oso txiroak ziren eta lan bila kanpora irtetea pentsatu zuten, euren bizimodua hobetzeko asmoz.

Etartetik alde egin aurretik, 10 urte igaro eta gero, berriz ere etxean elkartuko zirela erabaki zuten. Elkarri baldintza bat jarri zuten : ahal zuten dirurik gehien ekarri behar zutela eta gero honela biak baserrian oso pozik eta lasai biziko zirela. Egunak joan eta egunak etorri, bakoitza bere aldetik, mendiz mendi eta herriz herri ibili ziren, euren bizimodua hobetzeko asmoz.

Kepa oso langilea zen, lan asko egin zuen eta dirutza ederra aurreratu zuen. Koldo alderantziz, oso alferra zen eta urteak pasa zituen ezer egin gabe, egunak pasatzen utzi zituen.

Goiz eguzkitsu batean, 10 urte igaro ondoren, bakoitza bere aldetik, etxerantz abiatu ziren bi anaiak. Oso pozik zeuden elkar ikusteko eta besarkatzeko.

Baserrira iristen ari zirela, Koldo, mozorrotu ondoren, zuhaitz baten atzean ezkutatu zen eta Kepa noiz etorriko zain zegoen. Kepa heldu zenean, zekarren gutzia kendu zion eta handik alde egin zuen. Gauean, baserrira heldu ziren, afaltzera bildu ziren eta, suaren inguruan bakoitzak bere 10 urtetako bizimodua kontatzen ari ziren. Biak oso pozik zeuden elkarrekin egoteaz eta Kepak Koldori zer gertatu zitzaion diruarekin kontatu zion.

Biak zin egin zuten inoiz handik ez zutela alde egingo eta beti elkarrekin biziko zirela. Baina denbora gutxi iraun zuen poztasunak, Kepa gaixotu egin zen eta oso txarto zegoen. Koldok berak egin zuenagatik zela pentsatzen zuen eta ez zegoen bat ere lasai eta pozik.

Egun batean auzoko atso zahar batek esan zion entzunda zeukala laminak zutela anaiarentzat sendabidea; eta gaueko 12etan erreka bazterrera hurbildu behar zela. Ez zitzaion txarto iruditu ideia eta beldurrez beterik, basorik baso joan zen erreka ondora, laminak biltzen ziren tokira.

Bertako koba beltz batean ezkutatu zen laminaren zain. Handik gutxira, laminak agertu ziren; beldurtu ere egin zen Koldo hauek ikusita, baina aurrera egitea pentsatu zuen.

Laminak, gau erditik aurrera egiten zituzten euren bilerak, dantza, zantzo, irrintzi artean.

Koldo pixka bat hurbildu zen bilera hasi zenean eta sasitza ostean ezkutatu zen. Gau erdia heldu zenean, oso beldurtuta joan zen laminarekin berba egitera.

Honela esan zion lamina batek oso haserretuta:

-Zergatik zagoz hemen?

Koldok erantzun zion:

-Nire anaia oso gaixo dago, eta zuek sendatu ahal duzuela, esan didate.

Laminak galdetu zion:

-Zer gertatzen zaio?

Koldok gezurra erantzun zion; ez zen ausartu egia esatera eta lamina berehala konturatu zen, baina ez zion ezer esan.

Laminak sendabidea azaldu zion: etxera joan, sukaldeko harri losarik handiena aurkitu eta altxatu egin behar zuela. Gero, harri azpian zegoen zapo handi bat hartu eta hil ondoren bere anai Kepak jan egin behar zuela eta horrekin sendatu egingo zela.

Baldintza bat jarri zion, anaia sendatuz gero toki hartara, berriro bueltatu behar zela.

Eguna argitzen zeuden, eguzkiak lainoak zulatzen hasita zegoen eta pozik sentitzen zen; laminari entzundakoa betetzeko asmoz etxera joan zen.

Berehala hasi zen egiten esandakoa. Hau egin ondoren lasaitu egin zen eta harrituta ikusi zuen anaia nola egunetik egunera, hobetzen zihoala, guztiz sendatu arte.

Anaia sendaturik ikustean, laminak esandakoa ahaztu egin zitzaion. Urte batzuk igaro ondoren, Koldo ez zegoan pozik eta gaixorik jarri zen eta berehala gogoratu zuen ez zuela bete laminak esandakoa. Oso ahul zegoen, baina aurreko moduan, basorik baso joan zen berriz ere, laminak biltzen ziren tokira, eta orduan bezala, gauerdia igaro ondoren, hasi ziren laminak heltzen.

Laminak, dantza bizi, pandero jotze eta irrintzika zebiltzan. Lamina gehienak bildu zirenean, laminetako batek, Koldo ikusi zuenean, haserre antzean, isiltzeko agindua eman zien besteei,

Koldo hurbildu zen eta laminak esan zion:

-Zuk, zure bizitzan hainbat maltzurkeri egin dituzu, anaiari aberastasunak lapurtu, gero barrenak lasai edukitzeko eta bizi izateko gaixorik zegoen anaiarentzat osabide bila ahalegindu zinen. Gure batzarretara etorri eta gezurra esan. Zure anaia sendatu egin da eta zu ez zara etorri hona esatera.

Eta laminak, zantzo eta irrintziz gizona hartu eta eurekin eraman zuen erreka baino artera eta betiko desagertu zen.

Horregatik esaten da egun lanbro eta euritsuetan behe lainoa erreka bazterrean ikusten dugunean, gizonaren arimaren aienak entzuten direla.



Jon Boyra Lopez - DBH 2. maila

“Zain dezagun natura, bertatik baikatoz eta bertara baikoz”

HERIOTZA HIMALAIAN



Ager Elgoibarren bizi zen gaztea zen. Hogeitaz urte zituen eta bere gurasoekin bizi zen, etxe txiki bezain txukun batean. Pozik igaro zituen bere haurtzaroko lehen urteak, familiak, lagunak... eskaintzen zioten segurtasun giro horretan.

Sei urteko anaia txikia zuen, jasan ezina benetan; beti zebiltzan borrokan edota eztabaida gogorrean baina txikiak derrigorrez behar zuen nagusia bere inguruan.

Ager, arkitekturako ikasketak egiten ari zen, unibertsitatean, Elgoibarretik ez oso urruti. Egunero joan behar izaten zuen unibertsitate hartara, eta egunero goizeko zortzietatik arratsaldeko zazpietaraino. Gero, autobusa hartu eta bueltan etxera. Huraxe zen Agerren eguneroko bizitza. Egia esateko, nahiko gogorra.

Unibertsitate hartan lagun asko zuen, bai bere klasekoak eta baita bere gelakoak ez zirenak ere. Sano garrantzitsua izaten omen da honelako tokietan ahalik eta jende gehien ezagutzea, babesa eta familiako giroa izateko behintzat.

Mota askotako jendea zegoen unibertsitate hartan: batetik dirutsuak, hau da, harro samarrak zirenak eta bakarrik euren maila bereko jendearekin harremanak izaten zituztenak; bestetik oso umilak, apalak, eskuzabalak eta ikastunak zirenak, harrokeriarik gabekoak. Horrez gain baziren parrandaren defendatzaile sutuak, alkohol eta zigarrozale amorratuak, liburuak gorrotatzen zituztenak. Ager azken talde honetakoa zen eta eurak zituen atsegin, arazorik larrienean ere lagunduko zaituztela dioten horiek.

Urte hura Agerren bigarren urtea zen unibertsitate hartan eta oso pozik zegoen. Hala ere, hutsune bat nabaritzen zuen bere bizitzan; maite izan eta maitatua izateak betetzen duen hutsune hori. Lagunartean esaten den moduan laguntzua behar zuen, koadrilako giroa ahaztaraziko ziona eta beste unibertso batean murgilduko zuena.

Hasi ziren bada, neskak bere ludian sartzen, errepikatzen, berriztatzen ... baina egonezin zoragarri hori sortzen duena ez zen inondik inora ageri. Amaia, ordea, han zegoen jada, ezin ederrago, ezin politago, ezin gozoago. Ondoz ondoko gelak zituzten eta elkar topo egiten zuten bakoitzean Amaiak irribarretxoak eta begirada sexyak botatzen zizkion aldi berean bere mihi txikitxo eta fina ahotik ateraz. Ager segituan jartzen zen gorri-gorri, lotsatia baitzen oso.

Heldu ziren aste santuko oporrak eta urtero bezala festa bat antolatzekotan zeuden norbaiten etxean. Oraingoan Amaiarenean izango zen. Izugarritzko etxetxo zeukan: hiru solairu, igeritokia, eskupilotan edota zesta-puntan aritzeko frontoia, lorategi ondo zaindua, lorez eta landarez betea...

Amaia oso lanpeturik zebilen gonbidapen-txartelekin. Aukera ezin hobea aurkezten zitzaion Agerri Amaiari antolaketa-lanetan laguntzeko, eskainitako edozein laguntza mota onartuko

zuela begi bistakoa baitzen. Txartelen banaketa bien artean burutu zuten. Amaia oso neska jatorra eta alai zen.

Eta jaialdiaren eguna heldu zen. Ager dotore-dotore jantzita, jaieguneko praka eta alkandora zuriz eta Amaia ordea beltzez, kamiseta gorputzari estuki lotua, bigarren larruazala bailitzan eta prakak modako bakeru horietakoak, gerria agerian uzten duten etarikoak. Ilea busti baina bustitasun artifizialez. Panpina zirudien, panpoxa, polita, gardena, ederra eta batez ere ... sexya.

Amaiaren etxera heldutakoan bi musu eman zizkion eta edateko zer bait hartzera joan zen, ea alkoholak beldurra askatzen zizkion eta behar zuen ausardia ematen zion. Whiskyari zurrutada bat eman eta sofaren gainean jezarri zen. Etxea jendez gainezka zegoen eta egoera horretan hobe zen kanpora irtetzea txiza egitera komuna libratu arte itxarotea baino. Ordu bi geroxeago Amaia Agerri hurbildu zitzaion berba egiteko asmoz baina Ager ez zegoen berba egiteko moduan, hamar txupito whisky edanak baitzituen. Amaiari gerritik heldu zion eta lehenengo solairuan zegoen logelan sartu ziren. Ager ez zegoen batera lotsatuta, pixka bat mozkortuta baino. Amaiaren gainean etzan zen, ohe gainean, noski, eta musuka hasi zitzaion, kamiseta estu hura erantzi egiten zion bitartean. Eta han jarraitu zuten gau osoan.

Hurrengo egunean kasik denak zeuden lorategian lo. Hamabietarako bakoitza bere etxera joanda zegoen Ager izan ezik. Han zegoen bera, Amaiarekin oporretaz berba egiten. Bazeukan pentsaturik toki apropos bat, Himalaia mendikatea. Berarekin joateko eskatu zion. Amaiak une berean eman zion baietza. Garestiegia ez omen zen izango baina hotz handia jasan ahal izateko arropak beharko zituzten. Egun biren buruan aterako ziren eta guztia prest eduki beharko zuten ordurako. Ez zegoen denbora galtzerik. Egun bi haiek oso arin pasatu ziren eta goizeko zortzietan, etxekoei agur esan ondoren joan ziren autobusa hartzera gero hegazkinarekin arazorik eduki ez zezaten.


10etako hegaldia hartu behar zuten baina ordu bi lehenago egon behar zuten aireportuan mailetak hegazkinean sartu ahal izateko.

10ak jo zuten eta hegazkina pistatik ibiltzen hasi zen. Hiru ordu eta gero hegazkina lurra hartzera zihoan Nepaleko aireportu ez oso dotore ez oso garbi batean. Ondoren zama guztiak hartu eta autobusera igo ziren hotelera lehenbailehen heldu ahal izateko. Lo kontuekin kontuz ibili beharko zuten biharamunean indartsu eta animoso egoteko, Everest igo nahi bazuten behintzat. Lortuz gero, mendiak joko handia eskainiko zien: eskalatu, elurretan ibili, naturaz gozatu ...

Hurrengo egunsentirako prest zeuden, motxilekin, janariarekin, tresnekin... Taxi bat hartu zuten Everest mendiaren oinetan utziko zituen. Ordaindu, eskerrak eman eta martxan jarri ziren. Agerrek ondo ezagutzen zituen hango bide, zoko eta bazter guztiak eta baita non babestu ere hura ez baitzen paraje haietatik zebilen lehen aldia.

Lehen orduetan igo eta igo besterik ez zuten egin. Ondoren, pareta eskalatzen hasi ziren. Agerrek sokak eta arnesak sendo ezarri zituen eta bata bestearen atzetik han joan ziren, zuhaitz enborren azaletik gorantz doazen katuak bailiren. Baina bazkal ordua heldu zenerako goseak zeuden. Ezkutupetxoak aurkitu zuten eta eurek aurretiaz prestatutako otartekoak jaten hasi ziren. Elur-hotzak gero eta gogorrago jotzen zuten eta are gehiago elurra berriro hasi zenean. Mugitu beharra zegoen. Gutxi falta zen iluntzeko eta tenperaturak beherantz egiten jarraitzen zuten. Ea -10 gradutara helduak ziren.

Hotelean normaltasuna zen nagusi baina hala ere, azken orduko prebisioren arabera, gau hartako elur-jauzi gogorren arriskua oso handia zen. Amaiak eta ez zuten horren berri izateko modurik baina gero eta hotz handiagoa hautematen zuten. Itzulerako bidean elur masa handi bat ikusi zuten eta ihesari eman zioten baina alferrik izan zen. Bazekiten ez zirela handik bizirik aterako.



Roke Ojanguren Gabikaetxebarria - DBH 2. maila
“Zainetan daramat ipuinak idazteko grina”

MAITE NAUZU ?

Anerentzat egun hura bere bizitzako egunik txarrena zen. Laugarren aldiz, gida baimena lortzeko azterketa suspenditu ondoren, ez zuen uste ezer okerragorik gertatuko zitzaionik. Lurrak irenstea nahi zuen. Triste zegoen.

Hala ere, etxera heldu, bazkaldu eta deskantsatu ondoren, arratsaldean kalera jaitsi zen. Autoeskolara joan eta berriro paperak berriztatu ondoren, bueltatxo bat ematea pentsatu zuen.

Kalean zebilela, bere hutsegitearen alde positiboak bilatzen hasi zen eta orduan, umorea berreskuratzeke moduko aitzakia bat zuela otu zitzaion. Berekin hasi ziren guztiek gidabaimena bazutenez, autoeskolako irakaslearekin bakarrik ibiliko zen orain. Nahiz eta ez zuen amets askorik egin nahi mutil gazte harekin, behintzat arratsaldero hiru ordutan berarentzat bakarrik izango zen, beste aste betean gutxienez.

Autoeskolako irakasleak Ibon zuen izena. Ibonek ikatza bezain ile iluna zuen. Aurpegia berriz, zurbil zurbila zuen eta begiak ilea bezain beltzak. Altua eta argala zen nolabait esatearren.

Aneri izugarri gustatzen zitzaion, “tercera”tik “segunda”ra palanka gaizki mugitzen zuenean, Ibonek bere eskuaren gainean, bere esku indartsua jarri eta palanka mugitzen laguntzea. Ibon atera eta sartzeaz mintzatzen zen eta Anek beste sartu irten batzuetan pentsatuz irribarre egiten zuen.

Horrela ba, hurrengo egunean autoeskolara joan zenean, egin zuen lehenengo gauza autora begiratzea izan zen, eta noski! Ibon bakar bakarrik zegoen bere zain. Ezin zuen beste modu batera izan. Aneri bihotzak salto txiki bat eman zion eta itxurak zaindu nahian edo, irribarre gozo batekin sartu zen autoan. Ibon harritu egin zen Ane hain pozik ikustean, izan ere, aurreko egunean triste eta umore txarrean utzi baitzuen etxean.

Bilborantz abiatu ziren eta egunero bezala bidean honetaz eta hartaz hitz egin zuten etengabe. Dena zihoan normal-normal. Eguneroko martxa apurtzeko moduko ezer ez zen gertatu. Beti bezala Ibonek adarra jotzen zion Aneri ezer gaizki egiten zuen bakoitzean. Irratia piztu eta berriak bien artean komentatzen zituzten, horrela hiru ordu luzez. Besteontzat plan aspergarria izan liteke arratsalde baterako, baina Anerentzat plan izugarria zen. Gainera, bere motibazio bakarra hura zen momentu hartan. Ibonengatik ez balitz, antzina utzi zuen autoeskola. Bai horixe!

Hala baina, etxera heltzean (normalean Ane bere portalaren aurrean uzten baitzuen Ibonek), Ane autotik jaitsi, eta bidea gurutzatzeko kotxearen aurrealderantz zihoan. Ibonek ere kopilotoaren postua utzi eta pilotoarena hartu behar zuen etxera heltzeko, autoak ez baitira bakarrik ibiltzen. Horrela (pelikuletan bezala), aurrez aurre topo egin zuten SEAT Ibiza horiaren aurrean. Jolasean ari ziren haurrak txaloka hasi zitzaizkien eta Ane gorri-gorri jarri zela ikustean, Ibonek “bihar hitz egingo dugu” esanaz eta muxu bat emanez agurtu zuen Ane.

Hurrengo egunean, Ibonek guztiz aldatu zuen eguneroko ibilbidea. Autzaganeko kurbak utzi eta Kortezubiko eta Arteagako rektetan barrena, Lagako hondartzaraino eramanean zuen Ane eta ez txokolata txurroekin hartzea bereziki. Autoa ondo aparkatu eta hondartzan zehar ibili ziren luzaroan. Gauza askotaz hitz egin zuten oraingoan, serio. Ez zuten normalean egiten zuten bezala, zentzurik gabeko komentariarik egin eta sentimenduz hitz egin zuten. Elkarri buruz uste zutena esanez:

- Oso gogorra egiten zait zurekin hemen egotea. Inoiz ez naiz ikasle batekin honetara heldu.
- Gauza guztietarako lehen aldi bat dago. Gainera, autoeskolatik kanpo ere, asko ikusten gara elkar eta edonoiz gerta zitekeen gauza bat da, ezta?
- Ane, zuk ni maite al nauzu? Gustatzen natzaizu?
- Ez. Gidabaimena garestiegi ateratzen zitzaidan eta...
- Horixe da zugandik gehien gustatzen zaidana.
- Zer? Zutaz aprobetxatzeko gai izatea?
- Ez neska! Zure umorea.
- Ez, benetan esateko ez daukat argi maite zaitudan. Ez daukat argi zer den zurekiko sentitzen dudana. Batzutan gauza hauek gertatzen dira.

-Zer esan nahi duzu?

-Ba begira, adibidez, urtero izaten da gustatzen zaizun irakasleren bat, momentu bakoitzean zure bizitzan gertatzen denaren arabera, jende berria ezagutzen duzu eta askotan sentimenduak nahasten dira. Eta aurten justu hiru hilabete daramatzat zure ondoan egunero eta zuk neuk izatea gustatuko litzaidakeen hainbat ezaugarri dituzu: pazientzia, jenioa aguantatzeko gaitasuna...

-Ba nik uste dut maite zaitudala.

Horrela ari ziren biak hizketan. Elkarri konfiantza eskainiz. Noizbehinka kaioren txioak entzuten ziren eta olatuek harkaitzen kontra ateratako doinuak Ane eta Ibonek ahotsak estaltzen zituzten.

Berriro ere Gernikarantz itzultzean Ane zetorren bolantean eta Ibon ondoan gaizki egiten zuena zuzentzen. Laida pasatzean eguzkia gorri-gorri zegoen eta zoragarria zen paisaia hura kotxetik begiratuta.

Halako batean, norbaitek agindu bat emango balie bezala, elkarri begiratu zioten. Ane zoragarri sentitu zen orduan.

Ordutik aurrera lotsa utzi eta egunero joaten ziren leku desberdin batera. Irteten zebiltzan. Ibonek beti esaten zion Aneri maite zuela, baina Anek ez zuen zinik egin nahi, zegoena aprobetxatu nahi zuen eta kito.

Asteburu bakoitza bere lagunekin poteoan ibiltzen zen eta taberna guztiak itxi ondoren diskotekara abiatu zen Ane. Han lagunekin dantzaz zebilela komunera joan zen eta irteterakoan Ibon aurkitu zuen. Hark ezer esan gabe Aneri eskutik heldu zion eta dantzalekutik atera zuen.

Anek galdetu ere ez zion egin nora zeraman. Isilik jarraitu zion atzetik, etorri zitekeenaren zoragarritasunean pentsatuz. Etxera joan ziren baina ez zen Anek pentsatzen zuen ezer gertatu. Hitz egin zuten beraien harremanari buruz eta ezer gehiagorik ez.

Honela beraz, zerbait serioa sortu zela zirudien. Baina begira gauzak nola izaten diren. Hurrengo astean Anek zorionez azterketa praktikoa gainditu zuen. Berak ere ez zuen sinisten lortu zuenik, baina aprobatu egin zuen. Berria entzutean elkar besarkatu zuten maitale biek eta Ibonek muxu bat eman zion arren Anek ez zuen emozio berezirik azaldu.

Etxeratzean Ibonek ekarri zuen autoa. Azterketaz hitz egin zuten bide osoan.

Etxera heldu zirenean, Anek ez zion muxurik eman. Ibon pentsakor geratu zen, batez ere, aste bete lehenago hondartzan izandako elkarriketa hartan Anek esan zizkion gauzak gogoratu zituelako.

Anek ez zion aste osoan deitu Iboni. Asteburuan topo egitean lagun bat balitz bezala begiratzen zion eta Ibonek gehiago ezin eutsi eta dudak argitzeari ekin zion:

-Ane, zerbait gertatzen da? Zer ari zaigu gertatzen? Bukatu al da gurea?

-Astiro Ibon, galderak banan-banan.

-Hondartzan esan zenidanari bueltak ematen aritu natzaio eta zure jarrera ikusita, badirudi momentuko kapritxo bat bakarrik izan naizela zuretzat. Hala ere hori ez da min gehien ematen didana. Gutxienez argitu iezaizkidazu gauzak.

-Begira Ibon, zu niretzat kapritxo bat baino gehiago zara, baina SEAT Ibizaren barruan.

-Ez baduzu argiago hitz egiten...

-Zurekin autoan joatean, zure ezaugarri askok liluratu naute: pazientzia, gozotasun... baina hori Ibon autoeskolako irakaslea zen, eta orain zer da Ibon niretzat? Lagun bat.

-Horrela besterik gabe?

-Lehen norbait jakintsua bezala ikusten zintudan. Ez dakit nola esan. Lehen eredu bat zinen niretzat baina orain ez.

-Orduan, bukatu da?

-Zuk horrela ikusten baduzu bai.

-Lagunak??

-Eta zerbait gehiago ere bai, baina oraindik denbora apur bat behar dut nire burua argitzeko.



Leire Gonzalez Enbeita - DBH 2. maila

“Euskara ahoan eta Euskal Herria bihotzean”

NESKA BERRIA DUGU GELAN

Neska berria dugu gelan. Irina du izena. Duela urte bete etorri zen Gernikara, Poloniako herri txikitxo batetik bere guraso eta nebarekin.

Ez dut ahaztuko Irina gelara sartu zen lehenengo egun hura. Gure tutoreak aurretiaz esan zigun ikaskide berria izango genuela eta harrera ona egin behar geniola, baina gauzak ez ziren ondo joan.

Irina gure gelara sartu zenean, denok geunden bere zain, ateari begira. Gure adina bazuen ere, gazteagoa iruditu zitzaidan. Ile beltza zuen, gaua bezain beltza, begiak berriz, marroiak eta handiak. Sudurra luzea eta ezpain lodiak. Bere azala txuri-txuria zen eta aurpegia pekaz beterik zuen. Beroki beltza eta praka urdinak zituen soinean. Urduri zegoela ematen zuen. Bere aurpegian kezka isladatzen zen. Hankak dardarka zituen beldurratetik eta aurpegia gorritzen joan zitzaion lotsagaitik. Aurrekaldean hutsik zegoen aulki batetan eseri zen, bakarrik. Beste guztiok binaka jezarrita geunden. Ordu osoan ez zuen inorekin hitzeging, ezta burua atzerantz bueltatu ere.

Jolastorduan mutilak futbolearen eta neskak solasean ibili ginen. Irina, berriz, albo batean, bakarrik gelditu zen. Ez zuen nahi gugana hurbildu, beldur zela ematen zuen. Gainera, euskaraz hitzegiten ere ez zekien. Egia esan, guk ere ez genuen ezer egin gugana erakartzeko.

Egunak joan, egunak etorri, egoera berbera errepikatzen zen. Harrituta utzi gintuen gure hizkuntza ikasteko agertu zuen erreztasunak. Irakasleen laguntzaz, denbora gutxitan, moldatzen hasi zen. Baina bakarrik zegoen, bakardadeak irentsia zuen eta asko saiatu arren egoera berdintsuan jarraitu zuen.

Halako batean, eskolako lan bat taldeka egin behar genuela eta Irinari nire taldean egotea suertatu zitzaion. Primeran egin zuen lan guztia eta benetan arduratsu agertu zen.

- Zein ondo neska!

- Ez da ezer- erantzun zidan- Taldekide onak izan ditut!

Berehala konturatu nintzen bere helburu nagusia gure arteko harremanak sendotzea zela. Beraz, hizketan jarraitu nuen.

- Gauza bat esan nahi dizut.

- Zer ? – galdetu zuen urduri-

- Barkamena eskatu nahi dizut orain arte egin dizudan guztiagatik. Edo hobeto esanda, egin ez dudagatik. Benetan bakarrik sentitu behar zara zure herritik urrun eta lagun barik.

- Lasai- erantzun zidan- Badakit ez dela erraza . Agian nik ere berdintsu jokatuko nuke. Ez dakit zergatik baina ez gara konturatzen besteen sentimenduetaz.

Oso harrituta utzi ninduen. Ez nuen espero erantzun hori. Une horretan ezagutu nuen benetako Irina. Nahiz eta lagunik izan ez, beti zentzuz erantzuten zuela erakutsi zidan.

Askok eta asko hitzegin genuen eta lagunminak egin ginen. Bene- benetako lagunak.

Berarekin idatzi nituen betirako gorde ditudan bertso hauek:

“ Eguzkia izartzera doa
landareak jaiotzera
une ilun eta desatseginak hiltzera
une argi ta zorionsuak jaiotzera”




Nagore Llorente - DBH 3. Maila
“Maitatzeko egina den maitasuna maite dut”

AITORREN PEKATUA

Aitor Gipuzkoako hamabi urteko gazte bat zen; ez zuen neba-arrebarik eta bere gurasoekin bizi zen iaz arte, bere aitak, mozkor-mozkor eginda zetorren gau batean, istripua izan eta bertan bizia galdu baitzuen.

Aitor ez zen batere itsusia, guztiz kontrakoa, oso mutil ederra zen, neska askoren zoramena, bere lagunen kalterako noski, baina ez zuten neskek erakartzen eta bere lagunek inbidia zioten neskekin zuen arrakasta zela eta.



Aitorri ez zitzaizkion neskak gustatzen; deskribatu ezineko zerbait sentitzen zuen bere bihotzean eta berak bazekien ezin zituela sentimendu horiek kontrolpean mantendu. Aitorrek bi urte pasatu zituen horrela, gertatzen zitzaiona ulertu ezinik.

Bere hamalaugarren urtebetetzea zen eta gauean lagunekin ospatu ondoren parkeko eserleku batean geratu zen. Bere bihotz taupadak ez ziren betikoak; oraingo honetan bizkorragoak eta bortitzagoak ziren. Parketik oinez zihoan mutil batengan ezarri zuen bere begirada galdua, erakargarria iruditu baitzitzaion, ederra benetan. Eta ez zuen arrazoirik falta. Orrazkera zaindua, ilea modara moztua, janzkera ezin aproposagoa ilekera horretarako eta markakoa, zer esanik ez. Pijo begi urdin horietakoa esan zitekeen. Modako aldizkariak fabrikatutako panpina. Nahikoa Aitorrentzat bere homosexualitateaz konturatzeko. Zer egingo zuen Aitorrek? Nori kontatuko zion? Zer pentsatuko zuen jendeak? Milaka eta milaka galdera zituen bere buruan hara eta hona, azkenean zoramenera eramango zuten. Aitorrek beste norbait bailitza jokatzeko zuen eta bere klaseko lagunak honetaz ohartu ziren. Bere portaerak neska batena ematen zuen, janzkeran, izaeran, pentsakeran... Halako batean bere lagunak komunean ispiluaren aurrean neska jantzita eta ezpainak margotuta ikusi zuten. Eta hara ze nolako barreak bota zituzten honen kontura. Aitorrek inauterietako mozorroa prestatzen zegoela jarri zuen aitzakiatzat. Espero zitekeen erantzuna zenez, inork ez zuen bestelakorik galdetu.

Bere homosexualtasuna pentsa ezinekoa zen nahiz eta garai modernoetan bizi. Baina horrek ez du esan nahi eskolako nagusienek bere kontura barre egiten ez zutenik. Azken boladan etxean ere zerbait arraro somatzen zuten. Aitorren jokaeran baina ez zekiten zer zen, galdetu eta galdetu zebiltzan baina Aitorrek ez zuen murik ere esaten. Arazo hauek zirela eta, ez zen kalera irtetzen, etxea zuen gordeleku eta babesle; ateraldi bakoitzeko gozo bakarra bere aitortu ezineko maitea ikustea zen. Jasan beharreko burla guztiak eraginda buruak eztanda egingo ziola iruditu zitzaion.

Behin, bere lehengusuekin afaria zuela eta, gau osoan tabernarik taberna ibili zen eta haran non, azken tabernan bihotz taupadak bizkortzen zizkion mutila aurkitu zuen. Orain zuen aukera ezin hobea mutil hartaz gehiago jakiteko. Lotsa ematen zion berarengana joan eta hizketan hastea, beraz, alkohola lagun, dosi pizgarria irentsi ondoren, animoak gora egin zion. Pozik hurbildu zitzaion eta izena galdetu zion. Honek, kopetilun Imanol zela esan zion. Aitorrek honen aurpegia ikusteaz batera handik alde egin behar zuela argi ikusi zuen eta burumakur bere lehengusuek itzuli zen. Porrota. Plan guztiak ez zuen ezertarako balio izan. Zer egin zezakeen oraingoan? Gau osoa eman zuen eserita, burumakur, pentsakor. Eta hara nora, bat batean burutapen bat izan zuen. Bere lehengusua Elisabethek lagun zezakeen. Berau oso ederra zen, Londonen jaioa, ama euskalduna eta aita ingelesa zituen. Neska ile horia begi berdeduna, guri-guria azalez, hainbat eta hainbat aldiz saritua edertasun lehiaketetan. Oraindik 16 urte baino ez bazituen ere, gorputzez ikaragarria zen eta mutil mordoa zebilkion atzetik. Edozein mutilek beretzat nahiko lukeen ametsetako poxpolintxo.

Elisabethi eskatu zion mutil harengana joateko ezkutuko mezu batekin, bere esistentziaren berri parte ematera, aldi berean bestearen bizitzaren berri izan zezan. Elisabethek, ileak

hatzekin atondu eta Imanonlengana jo zuen ipurdia benetan modu erakargarri batean mugituz. Imanolek, txotxolo aurpegia ezin ezkutaturik, neskatoa beregana zihoala ikustean ezin izan zuen armarik aurkitu jasan zuen galdeketa erakargarri hurari aurre egiteko eta itaundutako guztiari zehatz-mehatz erantzun zion sorginduta balego bezala. Gerokoa, betikoa. Elisabethek informazio guztia eman zion lehengusuari baina interes guzti huraren zergatia argitzeko eskatuz. Aitor, bat batean mututu egin zen ezpainetan irudikatuta zeukan irribarrea desagertuz. Minuturen bat egongo zen ezer esan gabe, zer esan jakin gabe, hobeto esateko. Eta ahots leun eta eztsitu batekin, mihiak hitz egitea oztopatuko balio bezala, guztia lagun bategatik izan zela esan zion. Ondorioak agertzen hasiak ziren jada: Imanol zeharo maitemindu zen baina ez Aitorretaz; neska zuen gustoko! Akabo Aitorrentzat!

Aitorrek burua zeharo nahastua zeukan eta horrelako berriak ez ziren heltzen unerik egokienean. Beraz, barnea hutsitzeko asmoarekin, kezkatzen zuen guztia Gaizkari kontatzea erabaki zuen azken honek inori ezer ez ziola esango agindu ziolako. Baina hitza betetzen ez duen horietakoa zenez, hurrengo egunean, klasera sartzerakoan luzarokan itzarotako elementu arrotz bezala sentitu zen: barre-algarak piztu ziren, goitik behera aztertu zuten, ezkerretik eskumara. Zerbait arraroa jantzita izangozuela edo aurpegian zerbait izango zuela pentsatu zuen. Ez zen horrela izan! Denbora gutxi behar izan zuen guzti hura ulertzeko: Han zebilen Gaizka guztiei zerbait kontatzen, protagonismo osoz. Aitorrek klasetik korrika egin zuen ihes, begiak malkoz beterik. Etxeratu, komunean giltzapetu, ez jan ez edan, ezta inori erantzunik eman ere: ama lanetik heltzearekin batera, semea komunetik ateratzen ahalegindu zen, zarataka, txilioka, mehatxuka, maitasunez, aholkuz, errukia eskatuz, erreflexiona araziz.

Ezinezkoa zen, ez zuen aterik inondik inora irekitzen. Ama, antzarrak perratzera bidali zuen, eeta bakarrik utzi zuen momentu bat aprobetxatuz itsasertzera jo zuen. Laster heldu zen eta haitz garai batera igo zen. Pentsamendu gaiztoen hego beltzek eramanda, hegan eginez mundu honetatik behin betirako aske izango zela pentsaturik, haitz baten gainean jarri zen, hegaltia bailitza, hegan eginez barneratzeko prest. Eta une honetan ludiko aire kutsaezin guztia, espazio mugaezin guztia, infinitua... berea sentituz hegaldiari hasiera eman zion eta berak aukeratutako migrazio-bidaian sartu zen; beti entzun izan baitzuen guztiok daukagula geure toki propioa unibertsoan.



Lukene Endeiza Lopez - DBH 3. maila

*“Nire zereginak alde batera utzitakoan
beti saiatzen naiz nire nerabearoa
ahal dudarik eta hoberen aprobetxatzen,
lagunekin gehien bat...”*

ILUNTASUNAREN BEGIETAN

“Zergatik gertatu zait niri?...Hori pentsatzen dut baten baino gehiagotan. Denbora gutxi igaro da gertatu zenetik.

Denak ari dira negarrez, batez ere nire ama. Jende asko etorri da, hori da gehien harritu nauena, ez nuke pentsatuko hainbeste jende ezezagun eta kanpotarra etorriko zenik; beno, egia esan, Euskal Herri osotik zabaldu da albistea; oso albiste tristea...

Ez naiz oso ondo oroitzen zer gertatu zen, oso zaila da honelako gauzak azaltzea, are gehiago zuri gertatzen bazaizkizu.”

- Ai ama! Oso berandu da eta erosketak egitera joan behar naiz... Ama!, Aita!... Ze arraroa, ez da inor etxean. Iratzargailu txerria, zergatik ez nauzu inoiz ordurako izartzen, dagoeneko ordu bata dira... Dendak itxiko dizkirate zure erruz; baina gaur zure azken eguna da, iratzargailu berria erosiko dut!. Zer jantziko dut? Bueno txandala hartu eta kitto. Non ote dago atzo gordetako dirua? Hara! Amaren notatxo bat diruaren alboan, ea zer esaten didan oraingoan:

“Aitziber, zure aita eta ni kanpora joan gara egun guztirako. Gaueko hamabiak inguru helduko gara etxera. Ezer nahi baduzu deitu gure telefono mugikorretara. Gaur goizeko lauretaraino egon zaitezke kalean; beranduago ez, eta ez deitu jarri dizugun ordua luzatzeko asmoz.

*Maitea, kontuz ibili kalean. Badakizu nolako gauzak gertatzen diren eta, jende oso txarra dabil solte hortik, gainera zu oso neska liraina zara... A! eta ez edan alkohol askorik, badakizu txarra dela, gainera, oraindik oso gaztea zara, egin mesede hori. Beno ondo pasa eta gauerarte. Muxuak,
Zure ama eta aita.”*

- Zelako sermoia bota didan andra honek. “Oraindik oso gaztea zara” baina zer dio! Dagoeneko hamazazpi urte ditut eta, mesedez, NIRI ez zait ezer pasako, herri hontan ez baita ezer gertatzen inoiz ere ez! Gainera, bertoko pertsona guztiak ezagutzen ditut banan-banan kontatuta eta inork ez du itxura txarrik, oso atseginak dira guztiak.”

“Hori pentsatzen nuen orain dela lau egun eskas: Zer gertatuko zait NIRI?. Baina orain, orain zer esan, nola pentsatuko nuke NIRI gertatuko zitzaidala.”

Erosketak egin ondoren nik prestatu behar izan nuen bazkaria...eta zelako bazkaria, buff! Espageti batzuk prestatu nahi nituen baina azkenean masa bigun bat irten zitzaidan eta hori jan behar izan nuen ez baitzegoen beste ezer jateko.

Bazkaldu ostean lo kuluxka bat bota nuen oso nekatuta bainengoen. Berandu izartu nintzen...dagoeneko arratsaldeko seiak ziren eta ziztu bizian jantzi nintzen:

- Gaur zer jantziko dut?...A bai! Erosi nituen praka gorri berriak niki beltzarekin.

Jantzi eta ziztu bizian irten nintzen etxetik. Lokalerantz abiatu nintzen, nire lagunak bertan egongo zirela banekien eta. Eta horrela izan zen. Sartu eta batera ikusi nuena lotsagarria zen. Denak zeuden sofa gainean botata eta erdi lo...noski, atzo zapatua izanda eta bota genuen parrandarekin, hurrengo egunean denok kriston erresakarekin geunden. Musika baxu-baxu entzuten ari ginen, oso altu jartzen bagenuen burua dunba- -dunbaka hasiko baitzen. Oso arratsalde aspergarria igaro genuen; ez zegoen elkarrizketarik ez ezertaz berba egiteko gogorik...oso nekatuta geunden.

Dena zen tristea bera agertu zen arte. Ahaztuta neukan baina mutilarekin geratuta nengoen:

-Aupa Enekoitz! Barkatu baina ahaztu egin zait geratuta geundela.

- Egon trankil. Banekien hemen egongo zinela. Atzo bota genuen parrandarekin ...denak gaude berdin.

- Ongi da. Zertan ibili zara orain arte?

- Ba, etxean. Historia apur bat ikasten, laster azterketa dago eta. Egia esan... ez dut tutik ere ulertzen!

- Hara! Nik ez dut ezer ikasi! Beno ez zait ardura, denbora asko dago aste guztian zehar ikasteko. Gainera, gaur ez dago gogorik ikasteko; irakurtzen hasi eta batera lo geratuko nintzateke. Eta nolatan zu ikasten? Zuk ez baituzu inoiz ikasten.

- Aldatu egin naiz.

- Baita zera ere! Zuk gainean daukazun alferkeriarekin!

- Ongi da, ongi da. Ez dut ezer ikasi... gainetik irakurtzen nenbilen bitartean lo geratu naiz eta azkenean, ez irakurri, ez ikasi.- irribarre egin zuen.
- Banekien zuk ez zenuela ezer ikasiko, zure buru barruan “ikasi” hitza ez da existitzen.
- Ai. Hau da nire neska, beti txantxetan!

“Zelako mutil-laguna neukan; jatorra, dibertigarria, gozoa, maitagarria... Bere irribarra eta bere besarkadak dira orain faltan hartzen ditudan gauza garrantzitsuenak. Munduko neskarik zorionsuena nintzen besarkatu eta masailean muxu bat ematen zidanean.”

Nire alboan jesarri eta besarkatu egin ninduen. Horrela igaro genuen arratsalde guztia. Inork ez zuen hitzik esaten; baina azkenean isiltasuna apurtu zen:
- Hara! Ideia bat bururatu zait!- hildako bat berpiztu eta bere hilobitik irtengo bailitzan, Nerea hasi zen berbetan. – Bihar klaserik ez daukagenez nire osabaren basoko etxera joan gintezke gaua pasatzera, zer iruditzen zaizue?.- lokal horrek minutu batzuk arinago Saharako desertua zirudien; baina halako batean denak izartu ziren: - Noski baietz! Hara goaz ziztu bizian!- esan zuten denek.

- Zazpi eta erdietan denak hementxe egon, Asierri deituko diot bere aitaren kotxean joateko.- esan zuen Itsasnek. Bere mutil-lagunak hemezortzi urte zituenez kotxeko gidabaimena zeukan.

Nik hogeitun minututan prestatu nuen nire maleta. Ez neraman arropa askorik: bi jertse, bi praka, jake lodi bat, mendiko botak, lo egiteko zakua, pijama eta bainugelarako beharrezkoa dena. Amari notatxo bat utzi nion:

“Ama, Nerearen osabaren basoko goaz eguna pasatzera. Egon trankil, oso ondo egongo gara bertan, ez zaigu ezer txarrik pasako.

*Muxuak,
Aitziber”*

Puntu- puntuan heldu nintzen, zazpi ta erdietan, eta han geunden denak kotxeari itxaroten: Nerea, Itsaso, Maiteder, Lorea, Enekoitz eta ni.
Bost minutu itxaron behar izan genituen eta han agertu zen Asier bere aitaren kotxearekin. Barruan Iker eta Gotzon zetozen. Leihatila jaitsi eta zera esan zuen Asierrek:
-Aizue! Bi petral hauek ere gurekin datoz...txarto iruditzen ez bazaizue, noski.
- Bale ba!- erantzun genuen denok.
Bidaian zehar denak joan ziren abesten “Lau teilatu” abestia. Ni eta Enekoitz hitz egiten joan ginen:
-Afalostean basoan zehar ibilaldira bat egitera joan gintezke...- proposatu zuen Enekoitzek.
- Zoro al zaude! Ilun ilunetan eta basoan zehar?- erantzun nion.
- Beno bestela etxetik hurbil dagoen belardi batera joan gintezke. Ilargi betea dago eta hodeirik ez dagoenez izar guztiak ikusi daitezke.
- Hori hobeto dago- muxu bat eman nion.

Etxe hartara heldutakoan iluntasuna zen nagusi. Kotxea etxe alboan utzi genuen eta denak joan ginen Nerearen atzetik, honek baitzituena atea zabaltzeko giltzak. Gau hartan ezin zen oso ondo ikusi nolakoa zen etxe hura kanpotik, baina han sartutakoan eta Nereak argia pizterakoan etxe erraldoi bat zela ikusi genuen. Beheko sua zeukan egongela erraldoia zen, tamainaz, ia- ia etxearen beheko alde guztia hartzen zuen baina honen alboan sukalde txikitxo bat zegoen. Bigarren solairuan (etxeak hiru solairu zituen) bi bainugela eta beste bi logela zeuden, bertan logelek ohe erraldoiak zituzten. Azkenengoz, hirugarren solairuan tximini txiki bat baino ez zegoen; han egingo genuen lo denak batera. Eraikuntza guztiko hormak harrizkoak ziren, horregatik zegoen etxea hain hotz, orduan, beheko sua piztu genuen. Guztiz inkomunikaturik geunden; ez zegoen telefonorik ezta mugikorretan kobeturarik. Ez zegoen, ez telebistarik, ezta irratarik, horregatik erabaki genuen afalostean beldurrezko istorio batzuk kontatu genituzkeela.

Maleta guztiak hartu eta bigarren solairuko armairuetan gorde genituen bakoitzaren arropak. Beranduago, Itsasne, Lorea eta Iker afaria prestatzen hasi ziren. Beste guztiak lo egiteko zakuak ondo antolatzen geratu ginen goialdean.

Dagoeneko gaueko hamarrak ziren:

-Afaria prest dago!- oihukatu zuten hiru sukaldariek.

- Ongi da, bagoaz!- erantzun nien.

Jaitsi eta batera mahai erraldoi bat aurkitu genuen janariz beteta. Denok jan genuen egunetan zehar jan izango ez bagenu bezala.

Afalostean ni eta Enekoitz harrikoa egiten geratu ginen eta beste guztiak hitz egiten geratu ziren. Harrikoa egin ostean besteekin batu eta beldurrezko istorioekin hasi ginen. Gotzon oso trebea zen istorioak kontatzen, beraz, bera hasi zen hizketan. Denbora pasatzen zen eta nik beldur gehiago neukan. Enekoitz gerritik hartu eta berari itsatsita egon nintzen lapa bat arroka bati itsatsita dagoen bezala. Nik uste dut bera oso gustura zegoela horrela. Hamabiak puntu-puntu zirenean oraindik Gotzon kontu kontuka segitzen zuen, orduan hauxe esan zidan Enekoitzek:

- Aizu, zer iruditzen zaizu orain bagoaz lehen esan dizudan lekura? Bertan geratzen bagara lo geratuko naizela uste dut eta.

- Bale ba- poztasunez beteta erantzun nion- Ei, gu bueltatxo bat ematera goaz ingurutik, ez geratu gure zain.

- Ai ai ai! Zertara joango zarete biok hara bakarrik?- oihukatu zuen Asierrek.

- Ze ardura zaizu?- erantzun nion ironiaz irribarre batekin batera.

Bakoitzak bere jakea hartu eta kanpora irten ginen.

Kanpoan ez zegoen hotz askorik eta ilargiaren argitasunaren laguntzaz, egun hartako gaua pelikuletako moduko bat bihurtu zen. Etxe ingurutik poliki- poliki ari ginen ibiltzen.

Azkenean heldu ginen Enekoitzek aurretik esan zidan belardi hartara. Inoiz ikusitako belardi politena zen. Etxetik hirurehun bat metrora zegoen; baso batetik igarotzen zen bidetxo batetik igaro behar izan genuen hara heltzeko. Leku zoragarria zen; zuhaitzez inguratutik

zegoen eta ilargiaren argitasunak bertan jotzen zuen, leku argitsu bat sortuz. Izarrak ere primeran ikus zitekeen. Ametsetako leku bat zirudien, baina erreala zen.

Lurrean etzan ginen eta han igaro genituen orduak eta orduak. Halako batean etxera bueltatzeko gogo sentitu nuen, ez nintzen gustura sentitzen zerbaitengatik eta zerbait hori ez zen Enekoitz, ez, beste zerbait zen baina ez nekien nola azaldu:

-Aizu besteengana joan nahi dut, ea zer egiten ari diren ikusi nahi dut.- ez nuen nahi esan sentitzen ari nintzena, pentsatu nuen Enekoitzek zoro bat izango banintz bezala hartuko ninduela.- Ez al zaude gustura?- erantzun zidan aurpegi tristearekin.- Ez, ez da hori. Oso gustura nago zurekin baina ez zait oso ondo iruditzen behin lagun guztiok egun bat pasatzera gatzozela etxe batera gu biok bakar- bakarrik egotea. Haiekin egoteko gogoak ere baditut.

- Ongi da, ongi da, ulertzen dizut.

Ez zuen ematen oso gustura sentitzen zenik nire ideiarekin baina etxerantz joan ginen.

Basoa zeharkatzen ari ginen bitartean, ez dakit oso ondo zergatik, beldur oso handia sartu zitzaidan

“ Arrazoi guztiarekin sentitu nuen beldurra. Momentu hartatik eta gutxira gertatuko zena ez baitzen ametsetako gauza izango, ez hori, kontrako guztia izango zen.”

Halako batean norbait edo zerbaitek Enekoitz kolpatu eta honek konortea galdu zuen. Beldurra zen sentitzen nuen gauza bakarra. Lurrera jausi nintzen eta ezin nuen ezer ikusi, dena zen beltza momentu hartan.

Begiak ahal nituen neurrian zabaldu nituen. Izugarritzko mina sentitzen nuen buruan, bestela ez nuen inolako zauririk gorputz osoan. Pertsona bat zegoen nire alboan; ez nekien gizona ala emakumea zen, burua eta eskuak estalirik zituen. Txabola baten antzeko toki baten nengoen mahai baten gainean soka batzuekin lotuta. Nire inguruan hormak bakarrik zeuden eta haietan tresneria arraro bat eskegita; ez nekien zertarako ziren tresna haiek. Pertsona horrek gauza bat bakarrik esan zidan:

- Orain itxi begiak eta ez egin zaratarik.

Gizonezko ahotsa zuen. Bere asmoak ez ziren onak. Ahoa zapi batekin estali zidan eta berak esan bezala begiak itxi nituen. Ni biluzten hasi zela nabaritu nuen, ez nuen nahi pentsa zer gerta zitekeen. Tresneri hartatik zerbait hartu zuen eta bere esku nazkagarria nire gorputz osotik pasatu ondoren tresna horrekin nire hanketan eta gorputz osoan zauriak egiten hasi zen. Min handia sentitzen nuen eta oihu egiten hasi nintzen baina inork ez ziezadakeen entzun. Egin zizkidan zauriak ez ziren ezer izan ondoren egin zidan guztiarekin konparatuz. Gizon hura dibertitzen ari zen. Ordu bat gutxi gora- behera pasa zen eta oso txarto sentitzen nintzen. Nire gorpua hartu zuen eta menditik behera bota ninduen, zakar poltsa bat izango banintz bezala. Oihu egiteko beharra nuen baina ez neukan indar nahikorik. Odola galtzen ari nintzen, bizitzak nola ihes egiten zidan sentitzen nuen.

Gaua joan eta eguna agertu zen batera jendearen ahotsak entzuten nituen. Agian Enekoitzek konortea berreskuratu bezain laster lagunengana joango zen eta laguntza eske joango ziren.

Norbaitek altzoan hartu ninduen eta bertan zegoen medikuarengana eraman. Ezin nuen ia ezer ikusi, entzuteko gai nintzen bakarrik:

- Aitziber! Aitziber! Esna zaitenez mesedez, esna zaitenez! Ondo jarriko zara egon trankil.

- Enekoitz zen.

“Edozer emango nukeen orain daukadan oroimen hori betirako ezabatzeko. Orain ezin naiz berriro nire lagunekin egon ezta nire familiarekin. Enekoitzek erru guztia bereganatu du eta nire ama apurtuta dago. Orain ez dago zer eginik, behintzat jakin izango banu nor izan den min hau sortu duena trankilago egongo nintzateke, baina ez dakit. Ertzainek ez dute inolako pistarik aurkitu eta ez dute pertsona susmagaririk. Nire bizitzan dena zen hain polita, hain erreza, ez zegoen ezertaz beldurrik edukitzeko arrazoirik; baina orain bukatu da dena. Hilda nago.”



Oihane Orue Domínguez - DBH 3. maila

*“Egunsentia da zure itxaropen argia,
zure barneko indarra,
oztopo guztiak gainditzen dituen,
etsipena atzean uzten duena”*

BIZITZAK EMAN DIDANA

Gaur ere, beti bezala, gimnasioan nago ekin eta ekin nire gorputza lantzen. Ez dut ulertzen nola gerta zaidan elbarri gelditu izana. Nire bizitza guztiz aldatu da. Hasieran gogor samarra egin zitzaidan onartzea, oso gogor esango nuke, gainera etsia nengoen ez bainuen ikusten nire burua gai zenik berriro lehengo bizimodura itzultzeko. Zaharregia naiz eta ez dut gazte izaniko indar guztia. Baina asko hobetu dut eta orain zutik mantentzeko gai naiz. Hau nire familia eta inguruko jende guztiari eskertu behar diot animuz bete nautilako nire burua ez baitzen gai ulertzeko ezta onartzeko. Animu handiko pertsona izateak ere asko lagundu izan dit eta nire arazo berbera duten guztiari aurrera jarraitzeko esango nieke. Horrela jarraituz gero uste dut lortuko dudala, ez dut etsiko. Egoera honek asko irakatsi dit. Batzuetan izaten ditut nire gorabeherak baina momentuko gauzatxo batzuk izaten dira.

Nire ingurura begira hasten naizenean nire iragana datorkit burura. Txikitako historia herri txiki baten bizi nuena. Beti eskolatik irten eta lagunekin aritzen nintzen aponaka, soka saltoan...

eta iluntzean etxera joan beharrak pena handia ematen zidan. Badakizu, denbora arin joaten da ondo pasatzen ari zarenean. Ezin naiz kexatu txikitari bizi izan dudana izan ere, goi mailako gurasoak nituen eta denetarikoa nuenez, beharrezana zutenei ematen nien zertxobait. Gaur egun ez da horrelakorik ikusten gazteen artean baina lehen horrela zen. Gero beste ikastola batera joan ginen lagunak eta ni gaur eguneko DBH egitera. Bertan liburu bat zegoen ikasgai guztiak batzen zituena. Nire garaian ez zegoen gaur egun dauden telebista eta joko elektronikokoak eta aitortu beharra dut hobeto pasatzen genuela eta ez ginela aspertzeko. Ez gaur eguneko gazteriari gertatzen zaion bezala, ez dakiela nora joan. Nire gazte denboran herriko plazan denak elkartzen ginen dantzatzera. Bertan ezagutu nuen nire lehengo eta oraingo mutila. Hau 19 urte nituela gertatu zen. Lau urtera, elkar ondo ezagutu, eta ezkontzea erabaki genuen. Familia bat ere osatu genuen eta hortik irten ziren gaur egun ditudan hiru seme alaba eder. Hauetariko batek arazoak zituen baina garai hartako medikuntza ez zegoen gaur egun dagoen bezain aurreratua eta medizina eta hirira bidaiak zirela-ta, hondamendian gelditu ginen. Arazo honi konponbidea bilatuz nire gaur egungo gizonak pentsatu zuen lan bila etortzea Euskal Herrira. Hemen ikusi zuen arazoiari aurre egin ahal geniola eta Muxikara bizitzen joatea erabaki genuen familia osoak jaioterria urrun utziz. Hemen txarto ikusiak ginen eta inguruko jendearen presioa jasan behar izan genuen. Baina ez ginen bakarrak izan, beste kanpotar guztiak berdina gerta zitzairen eta elkarri lagunduz aurrera egin genuen. Lehen esan dizuedan bezala, garai honetan ez bezala, jendeak bata besteari laguntzen zion. Beno, orain ere bai baina ez lehen bezala. Heldu herri berrira eta lana bilatu nuen. Kosta zitzaidan lanari ekitea niretzako salto handia izan baitzen goi mailatik behe mailara pasatzea eta honek eragina izan du nire bizitzan. Lehenengo momentuan etsita nengoen, ez nion ikusten irtenbiderik zulo handiari. Egun osoa jarduten genuen lanean umeak nire amarekin zeuden bitartean eta azkenean ohitu ginen lan berriari egitera. Aurrera egin ahala ikusi genuen gure helburua bete genuela eta aurreztutako dirurekin Gernikara aldatzea erabaki genuen. Ni beti bizi izan naiz bizitzak eskaini didanarekin. Herrian pisu batean geunden eta bertako biztanleria baserrietan bizi zen eta Gernikan bai igartzen zela presioa eta kanpotarrekiko mesprezua. Asko erabiltzen zuten maketo hitza. Bazekiten min handia egiten zuela hitz horrek. Denborarekin hau hobetzen joan zen. Nire umeak ez dira ume nagusiak baizik eta ezkonduak eta orain beraiek ere familia osatu dute. Seme txikiena etxean dut. Desiratzen nago ea noiz topatzen duen neska lagun bat bere bizitza aldaraziko diona, asko gustatuko litzaidake benetan.

Momentu honetan nire alabaren etxean nago bizitzen. Nire gizonak ezin du nire kargua hartu ahul baitago. Errekuperatzeko gogo handia dut eta nire etxea berriro ere zapaltzeko ere bai. Gainera traba egiten dudala sentitzen dut. Berak ere badu bere alabekin nahiko lan. Ikusten dut nola saiatzen den ni pozten eta ni traba bezala ez ikusten. Ezbeharra gertatu ostean inguruko eta lagun minen hurbiltasuna sentitu dut. Medikuek dionez oso ondo noa. Gaur sei hilabete egin ditut aulki honetan eserita nagoela. Luzea da tratamendua. Osatu bezain pronto nire jaioterri nahi dut joan urtaro egiten dudana bezala eta nire esperientzia kontatu eta lagunak berriz ikusi.

Orain munduaren egoera begiratzean ahaztu egiten naiz eta aldatu egin dela ikusten dut baina ez onera. Zerbait falta da. Esperientzia honek irakatsi dit gaixoak, elbarrituak txarto ikusita daudela eta familiak ez dituela onartzen. Ez diot hori bizi dudalako baina bai ni joaten naizen erresidentziako gimnasioan horren eredu asko ikusi izan ditudalako.

Amaitzeko esan nahi dut esperientzia honek asko erakutsi didala, aurrera jarraituko dudala eta inoiz ez dudala etsiko. Berdin esaten diet gainontzekoei. Bizitza gozatzeko da, bat baino ez dago eta; gaurkoari begiratu eta ez etorkizunari. Momentua gozatu, eta ez etsi.



Jon Markel Etxegarai Arana - DBH 3. maila

*“Nik gitarra honen aldean
sustrai batzuk behar ditut,
Euskal Herriarenak”*

SOINU BORTITZAK

Hauek dira nire soinuak: gogorrak, lasaiak, baxuak, garratzak, goxoak, agudoak, grabeak distortsionatuak, garbiak,...

Ni bai, ni naiz, askok eta askok maite duten kitarra elektriko bat, milaka eta milaka bizitza aldatzeko gai naizen kitarra elektriko bat, mundu guztian egun tristeak egun zoragarriak, egun zoroak bihurtu dituen musika tresna mundial, ikaragarri, harrigarri elektronikoa naiz.

Musika tresna askorengandik desberdintzen nauena nire Gibson gorputzak, nire buruak, nire kordelek eta batez ere nire ahotsak dira. Kitarra umil bat naiz eta ez nire lagunen modukoa, hauek uste baitute soinu elektronikoa izanagatik besteak baino gehiago direla, nik berriz, beste musika tresna normal batzuen moduan tratatzen ditut. Nahiz eta aditu askoren ustez nik kalitate gehiago izan, ez dut horretan pentsatzen eta bai eguneroko entseguetan, eguneroko ahaleginetan nire maila hobetzeko ahalik eta modurik egokienean saiatzen naiz.

Nire sorrera, beste gauza askoren moduan Asiako herrialde pobreetan gertatu zen, Vietnameko herri txiki, txiro eta langile batean, Pleikn izenekoa. Nire jaioterrian herri osoak

gau eta egun lan egiten zuen eta diru kopuru miserablea jasotzen zuten. Gainera umeak langile finak ere izan behar ziren, diru gutxiago jasotzen zuten eta askotan ez zuten dirurik jasotzen. Horietako bat nire etxekoa zen, Ttokimura izena zuen hamar urteko umea zen. Honek bere familiari laguntzeko egunean 16 ordu ematen zituen kitarra elektrikoak egiten eta hortik ni jaio nintzen. Ttokimurak berak eskaini ahal zidan maitasun guztiarekin egin ninduen eta atzeko aldean otso hortz bat jarri zidan, bere ametsa, nagusia zenean nire kordelak jotzea zelako eta ikusten ninduean dudarik gabe bereizteko jarri zidan.

Saltzeko prest nengonean hegazkin batean sartu ninduten herrialde aberats batetara eramateko asmotan, beste hainbat produktu Vietnamdarrekin. Ipar Amerikara heltzerakoan kamioi zahar eta usain txarreko batean sartu ninduten Seattlerako bidean. Seattleko “Hard Sounds” izeneko denda batean sartu ninduten. Denda hau oso itsusia zen, dendariak hainbeste musika entzun ondoren zoro bihurtzen hasi zelako. Bertan hilabete batzuk irauan nituen Jimi Hendrix izeneko gazte beltz bat dendan sartu eta erosi ninduen arte. Jimi dendara sartutakoan lokal amaieran ikusi ninduen eta nire beltz gorri koloreek maitemindu egin zuten eta esan zion saltzaileari:

- How much is it?

Eta segituan erosi ninduen.

Jimi sekulako kitarra jolea zen eta oraindik handiagoa bihurtu zen nire kordeletan zehar bere atzamar finak pua batekin mugitzen ikasi zuenean.

Jimi Hendrixen kitarra elektriko gustukoena bihurtu nintzen eta bion ahaleginei esker Jimi 60. hamarkadako kitarra elektriko jotzailerik onenatariko bat bihurtzea lortu genuen. Jimi eta biok maitaleak ginen, gure artean maitasuna zegoen, ama eta semea ginen, bata bestearengandik probetxua ateratzen zuen bikote bikaina egiten genuen.

Jimik beti eraman ninduen bera joaten zen lekuetara eta beti beste kitarrek baino hobeto zaintzen ninduen, ez zen arraroa izango bat baino gehiagok sekulako inbidia izatea. Lehen esan dudan moduan bere semea nintzen; norbaitek gaizki tratatzen baninduen Jimik sekulako sermoia botatzen zion.

Jimik beti bera zihoan leku guztietara eramaten ninduez nik ia munduko leku guztiak bisitatu ditut eta horregatik gizaki askok baino kultura gehiago ikusi ditut.

Zuok, gizakiok uste duzue kitarrok ez dugula bizirik, hain inozoak izategatik nik delitu asko eta gauza bitxi ikusi ditut.

Behin Estatu Batuetako Detroit hirian kontzertu oso garrantzitsu bat ematera gindoazen eta kontzertua baino pare bat ordu arinago instrumentu gelan, nik burua kontzerturako kontzentratzen jartzen ari nintzen bitartean, ahots batzuk entzun nituen. Bat emakume batena eta bestea gizon batena, ezkutuka hitz egiten ari ziren inork ez entzuteko, baina ez zekiten oso baxu hitz egin arren musika tresna batek dena entzungo zuela. Droga kontu zerbait hitz egiten

ari ziren, baina ez zuten hitz egiten droga kopuru gutxiengatik, zerbait handia zen, ez nago oso seguru entzun nuenarekin baina uste dut 5 edo 6 kilo kokainari buruz hitz egiten zeudela. Bat-batean nire kontzentrazio guztia desagertu egin zen eta kitarra hasiberri bat ematen nuen, ordu bat irauan zuen gai hark nire buruan. Kontzertu hura ez dut inoiz ahaztuko, nik burua beste leku batean neukan eta ezin nuen soinu onik atera, horregatik Jimi eta publiko guztiak ez zuten entzun, espero zituen soinu gogor biziak, geldo lasaiak, erritmo arindunak, huts egin nuen eta Jimi eta publikoa etsituta zeuden.

Kontzertua eta ordu batzuk geroago Jimik eta nik seriozki hitz edo gure komunikazio partikularra izan genuen, eta nik gaizki jotzearen arrazoia jakitera eman nion.

Hendrixek gehien gorroto zuena beste batzuen erruz bere publikoak etsipena eramatea zen, orduan Jimik amorraren amorrur bi indibiduo, delinkuente, drogadiktu haiei kontzertu horretako dirua ez zien eman eta lan gabe utzi zituen.

Honelako gertaerek, Jimik nigan zuen maitasuna erakusten zidan eta beti nigatik edozer egingo zuela frogatzen zidan, berak ere bazekien nik huts egiten banuen zerbait arraroa gertatzen ari zelako zela. Honelako gertakizunek gure erlazioa, zena baino gogorragoa bihurtzen zuen.

Gure erlazioa hortik aparte, eguneroko entsaioetan gogortuz joan zen bata bestearekin orduak eta orduak emanez.

Pertsona askok uste dute Jimiren maila lortzeko astean lau entsegu edo egin behar direla eta horrekin izar bat izateko ahalmena hartzen dela. Beste batzuen ustetan Hendrixen edo beste fenomeno baten maila lortzeko jaiotzako dohainak izan behar direla eta hauek ez badituzu ezin zarela izar handi bat izan.

Azken hauek alde batean arrazoia dute dohain espezialak izan behar dira Jimiren modukoa izateko, baina kalitate horiek garatu egin behar dira eta hau entseguak egunero orduak emanez lortzen da. Honek esan nahi du dohainak izanagatik ezin dela izar handi bat izan egun batetik bestera.

Lehen aipatu bezala munduko ia lurralde guztiak bisitatu ditut eta abentura asko jasan ditut. Horietako beste bat honako hau izan zen Brasileko Sao Paulo hirian gertatutakoa:

Hara 1962. urtean nik Jimirekin lau urte jotzen neramatzen eta Los Angeleseko kontzertuan izan genuen arrakastari esker, Jimiren ordezkariak Brasilgo lehendakariarekin tratatu egin zuen, hau Jimi Hendrixen amorratu bizi bat zelako. Brasilgo lehendakariak Jimi Hendrixen ile berdina jarri zuen Jimirenganako maitasuna adierazteko, 10 zentimetroko bibote beltz-beltz bat zuen eta bere larruzala txokolatea baino beltzaranagoa zen.

Seattletik irten ginen eta ni zera baino alaiago nindoan nire lehen kontzertu internazionalen nire kalitatearen ikuspegi on bat emateko esperantzarekin eta kontzertu borobil bat emateko

esperantzarekin. 8 ordu aspergarriko bidai oso luze bat izan zen, gainera musika taldeko gauza zaharren artean nindoan eta oso astuna egin zitzaidan.

Sao Pauloko aireportura heltzerakoan atmosferan zerbait arraroa edo berria somatu nuen, agian jende guztia dantzan eta pozez saltoka ikusten nuelako izango zen.

Sekulako egunak izan ziren haiek, ezin dut esan nire bizitzako onenak (asko izan direlako), baina zoragarriak izaten ari ziren. Erregeak ginen paraje haietatik edo hauen modura zaintzen gintuzten: janaria bikaina, jendearen zabaltasuna primerakoa, jasotako tratua ezin hobea,...: Egun bikainak.

Sao Pauloko hotelik garestienetako batean lo egiten ari ginen, nire logelak sekulako balkoia zeukan eta hondartza nudista batera ematen zuen. A zer nolako bistak inguru haietan argazkiak ateratzen jartzeko modukoa, Jimik ikusiko balu nire logelan lo egitera geldituko litzateke. Dena biribil zihuan, baina denak lar perfektua ematen zuen, nahiz eta nik garrantzi askorik ez eman, horregatik kontzertuaren arinagoko gauean nire funda goxoan amets sakonak izaten ari nintzen bitartean bahitu egin ninduten.

Gaueko 11-ak inguruan ziren eta lo seko nengoen, bat-batean norbaitek nire fundako heldu lekutik hartu eta bortizki eraman ninduen balkoiraino funda gogor eta latz batean, hemen segundo batzutan geratu eta balkoitik behera bota ninduen. Biguna zen zerbaiten gainean erori nintzen eta hortik aurrera ez dut ezer gogoratzen kolpe gogor bat hartu nuelako buruaren goiko partean.

Itzartzerakoan ez nuen ezer ikusten funda zahar haren barruan jarraitzen nuelako eta begi bat guztiz handiturik neukalako. Nahiz eta ezer ez ikusi nire motako kitarra elektrikook usaimena oso garaturik daukagu, horregatik kafe eta beste substantzia ezezagun baten usaina hartzen nuen. Txori asko txioka entzuten nituen, hori dela eta mendi artean nengoela nabaritu nuen, nahiz eta Hego Amerikatik honelako lurralde asko egon Boliviako mendi arteko lurralde galdu batean nengoelaren susmoa nuen.

Ez zidaten elektriziterik ematen horregatik gosez hiltzen ari nintzen; bahitzaile zikin eta gorrotagarri haien eskuetatik ihes egiteko esperantzarik ez nuenean nire bizitza laburreko momenturik onenak gogoratzen ari nintzen. Nire aita Ttokimura ikusi nuen lehen aldiz, momenturarteko nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuen, nire lehen kontzertua, nire kontzerturik onena eta nire azken kontzertua Los Angeles eta nire azken irudia funda hartan sartu baino lehenago: Sao Pauloko hotel onenaren suite bikain hura.

“ “ “ “ B O M M M ! ! ! T A , T A , T A R R A T A T A . RATATATATATATATATAAAAAA!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!”””””

- Alto, arriba la mano o te pego un tiro en la cabeza, alto en nombre de la Guardia De Bolivia.- entzun nuen txabola edo espazio haren kanpoaldetik, eta jarraian tiroak entzun ziren.

- A zer nolako bala zaparrada bi minutuz ez zen beste ezer entzuten , baina azkenean Jimiren

ahots goxoak nire funda zeharkatu zuen nire belarrietatik pasa ondoren. Inoiz ez dut sentitu halako lasaitasuna.

Jimirekin itzultzeko garaian kotxearen leiho baten ondoan jarri ninduen eta bide estu batetik abiatzen ari ginen, beno bidea baino gehiago ahuntzentzako bidezidor bat ematen zuen. Paisaia hura liluragarria zen, dena arbolaz beterik, zailtasun gutxiarekin mota guztietako animaliak ikusten zenituelarik. Nik jadanik barne izua kenduta neukan. Lehen bai lehen Sao Pauloko kaleak ikusteko eta bertan kontzertu basati baina kalitatezko bat emateko gogoz nengoen, nire bahiketari mendekua hartzeko.

Eta pentsatu bezala, sekulako kontzertua izan zen, nahiz eta egun batzuk beranduago eman, baina garrantzitsuen atzerrian gure musikaren irudi on bat eman genuela izan zen eta honela Jimiren entzutea handitu egin zen munduko beste aldeko edozein lekutaraino.

Gero eta lagun handiagoak bihurtzen ari ginen bata bestearengan jartzen zuen interesagatik, babesagatik,...

Segundoak, minutuak, orduak, egunak, asteak, hilabeteak, urteak,... pasatzen joan ziren, baina ni nire izaera kontserbatzen jarraitzen nuen, nahiz eta ospea hartzen joan, diru kantitate izugarriak irabazi, jende ospetsu asko ezagutu, ni, ni naiz betikoa , Vietnamen sortutako Gibsona.

Jimik orain dela bost urte utzi ninduen erabiltzeari, esaten zuen nik jada nire eginbearra bete nuela eta bera gizon bat egin nuela eta bera zen guztia niri esker zela esan zidan. Nik ez dakit ulertu banuen, baina gaur ulertzen dut. Inor ezin da izan betirako Jimiren gauzarik gogokoena, baina beti daude salbuespenak eta ni horietako bat naiz, badakidalako Jimiren bihotzean beti izango dudala leku handi bat eta berak berdina nire bihotzean.

Azken urteotan nire betiko bizitasuna eta ilusioa galtuta ditut ez –aktibo nagoelako, hau da kitarra batentzako gauzarik txarrena, baina nahiz eta lehen jotzen nituen orduak ez jo egunean ordu batzuk entseguak egiten ematen ditut Jeimi Hendrixekin, Jimiren semearekin.

Harro samarra da eta ez naiz bat ere ongi konpontzen berarekin uste duelako kitar jole mitiko baten semea denez, inork baino hobeki dakiela kitarra jotzen. Ez dauka Jimik zuen barne maitasuna, zerbait handia lortzeko gogo, bakarrik ospetsua eta dirutsua izatearekin pentsatzen du. Uste dut gainera salmentan jarri nauela eta gabonetarako erosia egongo naizela.

Orain gogoratzen dut nire bizi osoa, kontzertu erraldoi eta izugarri haiek atzo izan zirela ematen du, halako festak,... baina ez errealitate latzean bizi naiz eta zoritxarrez nire ahalmek beheraka doaz, ez dut lehen sortzen nituen soinuak sortzen: bortitzak, gogorrak, lasaiak, erritmoarekin, gogoz, altuak, baxuak,... Orain soinu lotsagarriak ateratzen ditut lehen kordel magikoak zirenetatik, nire egoera negargarria delako. Hauek dira nire soinuak: latzak, desatseginak, ez- egokiak, desafinatuak, ugerrak, ustelak, ez dutenak ezertako balio,...

Hau niretzako desohore bat da, ez dut gehiago hau jasango saldua izateko irrikaz nago eta nire bizitza zoragarria infernua baino txarragoa zena, atzean ixteko eta bizi hobeago bat hasteko.

*The News of NEWYORK
Saturday 13 of May*

KITARRA MITIKO BAT

Jimi Hendrixen kitarra atzo saldu zen 30.000 dolarreko diru kopuruagatik, Vietnamdar fisikari bati. Atzo 17:00 orduetan Jimi Hendrix berberak kitarra eman zion Ttokimura Iroshiri, urteetan rockeroak kitarra hau ez bazuen ezin zuen kontzerturik eman eta nork esango, azkenean Gibson kitarra modelo zahar hau saltzen jarriko zela.

Bai lagunok bai behingoz saldua, eta gainera nori eta nire aitari saldua nire ametsik handiena eta sekreturik handiena betetzera doa nahiz eta askok ez sinestu. Nire herrira itzultzen naiz, nire odolekoengana. Lortu dut azkenean bizitza umil desiratua, ilusioa berreskuratu dut, bizitzeko gogoia, zarata egiteko gogoia eta nire lehen soinuak ateratzeko gogoak: gogorrak, lasaiak, baxuak, goxoak, garratzak, agudoak, grabiak, distorsionatuak, garbiak,...

Jada ez dut beharko Ttokimurak jarri zidan otso hortza, beti ikusiko garelako eta oraindik aurrera berea izango naizelako.

- “Vietnameko aireportua, Pleikn herrira doazenak jaitsi daitezela hegazkinetik.”



NI, BETIKO GIBSONA



Arrate Fidalgo Astigarraga - DBH 3. maila

*“Erabiltzen ez den euskera,
mugitzen ez den bihotza legez hiltzen da”*

OGI BEROAREN ONDOAN

Ametsetatik ihes egin nuenerako hamaika kanpaiakaderek aspaldi jo zuten jada. Hantxe nengoen berriro ere, gela apain eta txukun hartan. Edozein printzesarena izan zitekeen gelan nuen nire bizilekua. Bertan ordu luzeak igarotzen nituen irakurtzen eta baita idazten ere.

Gelaren erdian ohea, eskuman armairua, aurrez aurre idazmahaia eta leiho ondoan atea zegoen. Altzairu guztiak esnetan bainatuak izan balira bezala zeuden, zuri-zuri.

Oheko manta erretiratu, jaiki eta atea ireki nuen. Atea irekitzearekin batera han aurrean zegoen kristalezko hormatik zetozen eguzkiaren lehen izpiak gelaraino iritsi ziren. Nire aurpegia ere ukitu zuten, begiak piztu zizkidan. Eskailerak jeitsi eta ohikoa zenez sukaldeko mahai gainean gosaria jateko prest zegoen. Azkar asko eseri eta han zegoen guztia jateko gertu nengoen. Hasi nintzen bai, lehenengo kruazan xigortu pare bat jan nituen eta jarraian zeuden galleta guztiak, esnetan bustita, mahaitik desagertu ziren. Betiko legez gosaltzeari utzi eta telebista ikustera abiatu nintzen. Goizeroko programa aspergarri haiek berriz ere. Di-da batean itzali nuen. Ordua existitzen zela gogoratu nuenerako hamabiak ziren. Komunera joan, aurpegia eta hortzak garbitu eta arropen munduan bueltaka hasi nintzen, ez nekien zer jantzi. Azkenean praka berde eta kamiseta zuria soinean nituelarik irten nintzen kalera.

Lehenengo eta behin Tereren okindegira osteratxo bat egin nuen. Ogia eta egunkaria erosteko. Han eguneroko arloterekin topo egin nuen. Ogi eske etortzen zen, eta Tere zen pertsona eskuzabalarakin nola ez zion ba ogi pixka bat emango? Barra erdi eman zion. Arlotea poz batean irten zen dendatik. Ondoren noraezean ibili nintzen hirian.

Erruki izugarria sentitzen nuen, kalean aurrera nindoan ahalean gero eta gehiago ikusten nituen lurrean botatako eskaleenganako errukia. Erdi biluzik eta lo egiteko estalki batere gabe. Batzuek txirula joaz kalea alaitzen ahalegintzen ziren, diru eske zeudelarik. Baina ia inortxok ere ez zien limosnatxo bat uzten. Patrikan bila ibili eta hiru lau txanpon utzi nizkion eskaleetarik bati. Gehiegi distraitu gabe nire bidea jarraitu nuen plazara iritsi arte. Bapatean, berriro ere eskaleak agertu ziren nire bidean baina oraingoan bat nigana hurbildu eta ogi eske hasi zen. Erositako ogia atera eta ogi ertza eman nion. Nire begietan ur mordoa pilaturik nuen eta orduantxe dena botatzeko gogo bizia sentitu nuen. Nola edo hala negargarari eutsi nion.

Ordularirari begiratu eta ordu bat eta erdia zen. Etxera bueltatzeko bidea hartu nuen. Usoek bezain ondo ezagutzen nuen etxerako bidea. Oraingoan ez nuen eskale bakar bat ere ikusi. Arraroa zen, nora joan ote ziren?

Arratsaldea betiko moduan igaro nuen. Nire gelan irakurri eta irakurri. Ez nituen begiak liburutik altxatu nire sabelak gosea sentitu artean. Afaria ez zen ezberdina izan. Ohitura zen bezala, jatorduan baino askoz gutxiago jan nuen: Salda bero pixka bat eta azken, fruta.

Oherakoan gelara igo, lojantzia jantzi eta idazteari ekin nion. Ikusitako eskaleei buruz, nire buruari egiten nizkion galderei erantzuten ahalegintzen nintzen. Plazan hurbildu zitzaizkidan eskalearen irudia bizirik nuen oraindik nire buruan. Izugarria zen horrela bizi behar izatea. Haretan nenbiela loak hartu ninduen.

Kaleko kotxe zaratak esnatu ninduen. Mundu erreala eta niretzat gaiztoa zenean sartu nintzen. Beti bezala kale ilun hartan nengoan. Zaborrez gainezka zeuden zaborrontziz josita zegoen, nire etxea zen kalezulo hura. Kartoi zati batez soilik baliatu behar izaten nuen gauze hotzez ez hiltzeko. Nire ingurura begirada altxatu eta ni bezala beste hainbat kide lurrean botata ikusi nituen. Ni bezala beste hainbat bazeuden. Hau ikusteak trankiltzen ninduen, bestalde penagarria zen horrenbeste jende hain egoera txarrean bizi behar izatea.

Altxatu bezain laster, bart gauean garbitu eta gau osoa lehortzen utzitako arropa jantzi nuen, ez bainuen besterik. Zaborrontzietan janari bila hasi nintzen. Oraindik goiza zen, goizeko hamaikak eta laurden inguru, eta ez zebilen jende asko lan hartan baina geroxeago ezinezkoa izango litzaidake han bila ibiltzea. Jendez gainezka egoten baita. Aurreko eguneko, jendearen soberakinak zirelakoan nengoan, bukatu gabeko yogurt bat eta ogi zatitxo bat aurkitu nituen. Haiekin asetzen ahalegindu nintzen, ezinezkoa zen baina tira ezer ez baino hobe a zen.

Nire gauzak jaso, bizkarzorroan sartu eta eguneroko ibilalditxoari ekin nion. Aurrena Tereren okindegira joan eta egunero ematen zidan barra erdia eskuratu nuen. Okindegian

neska eder harekin topo egin nuen orduantxe ere. Lehenagoko egunetan ere ikusia nuen neskatxa polit hura, baina gaurkoan ezin disdiratsuago zegoen. Ile marroi hura, begi urdin haiek betiko berdinak ziren baina egun hartan ezberdin ikusi nituen. Arantza bat bailitzan sartu ziren nire bihotzean. Maitemindu egin nintzen. Jakinekoa zen emakume hura nigan fijaszea ezinezkoa zela baina ahal nuena egin beharrean nengoan. Banekien pinpilinpausa hura Artekale kaletik igaroko zela hamar minuturen buruan, beraz nire pausua arindu eta Artekalera iristean lurrean eseri nintzen txirula joaz. Ez nintzen oso trebea baina ahal nuena egiten nuen. Bere zain nengoan, ez zen inon ageri ordea.

Bapatean, bidearen bestaldean bidea gurutzatzeko zain egondako jende multzo handi batean, paper zuri batean puntu beltz bat nabarmentzen den bezala, izengabeko neskatxa ikusi nuen. Bide hasieran zeuden eskaleei begira nigana hurbiltzen jarraitzen zuten. Harriturik geratu nintzen! Nire parera heldu zenean eskua poltxikora sartu eta zerbaiten bila hasi zela iruditu zitzaizkidan, hala zen. Hiru lau txanpoan atera zituen eta nik goxo-goxo txirula jotzen nion bitartean txanponak eman zizkidan. Bere begirada ederra nire begietan josi zen. Ziurren kasualitatez niri emango zizkidan txanponak baina hori ez zen nik pentsatu nahi nuena; nire nahia bera nigan fijaszea zen.

Hurrengo topagunea plazan izango zen. Goizero egiten baitzuen bide berdina. Ordubata eta erdi inguruan plaza nagusitik igarotzen zen. Nire asmoa beragana hurbiltzea zen. Nola edo hala berarekin hitzegin behar nuen. Plazako jesarleku batean eseri nintzen. Urrunean bere silueta perfektua ikusten nuen. Neska argal eta nahiko altua. Geldiro-geldiro zetorren, hurbiltzen zen ahalean ezinegon gehiago sentitzen nuen. Azkenean! Hurbildu nintzaion eta ogi puxketa bat eskatu nion. Ogia atera zatitu eta eman egin zidan. Ederra izatearekin nahikoa ez bazuen, eskuzabala eta bihozbera ere bazen. Ogia zatitzen zuelarik bere begiek disdira izugarria bereganatu zuten, negar egitera ekingo ziola zirudien. Baina ez, ahal izan zuen bezala eutsi egin zion. Nire begietatik begirada uxatu eta erlojuari begiratu zion. Antza zenez berandutu egin zitzaion. Azkar batean ihes egin eta etxera bueltatu baitzen.

Oraingoan ezin izan nion Artekale kalean itxaron, nire kale ilunera bueltatu behar bainuen lehen bait lehen janari bila.

Arratsalde ez nekien zer egin, guztiz maitemindurik nengoan, neska lirain harekin egon beharra nuen. Baina ezinezkoa zen. Arratsaldeetan ez dakit non sartzen zen. Agian etxean? Edo apika mutil-lagunarekin igarotzen ditu arratsaldeak? ez dakit, baina jakinmina nuen. Non bizi ote zen? irrikaz nengoan dena jakitzeko.

Nire buruari horrenbeste galdera eginez, kartoi zati baten gainean jarririk, tximista baino arinago igaro zen arratsaldea nire begien aurretik.

Afalordua zen. Niretzako ez zen afalordua esistitzen, nahiz eta sabela huts-hutsik eduki. Baskalordutik gosariarte ez nuen mokadurik probatuko.

Hamarretarako jada ez nuen esna jarraitzeko energia gehiagorik. Beraz nire kartoizko mantak hartu eta loari ekin nion. Nire barnean neskak haren gaitasunak hurbilago sentitzen nintzen, baina ziur asko nengoen bera nirekin gogoratu ere ez zela egingo.

Esnatu nintzenean, ez nintzen gogoratzen noiz loakartu nintzen aurreko gauean. Ez dakit zenbat denbora igaro nuen nire bihotzeko neskarengan pentsatzen. Berarengan pentsatzean ezin baitut denbora neurtu. Nolabait berari buruz informazioa lortu beharra nuen. Ezer egin baino lehen hobeto ezagutzen ahalegindu behar nintzen. Ezagutu zezakeen pertsona ezagun bakarria okindegiko Tere izan zitekeen, beraz berarengana joan eta galdera sorta bat egitea pentsatu nuen. Badakit ideia oso nabarmena dela baina ez zitzaidan beste ezer ez bururatzen.

Beraz gosaria bilatu, ahalik eta apainen jantzi eta bizkarzorrora sartu nituen nire jabegoak. Normalean hamabiak zirenean elkar ikusten genuen okindegian beraz, gaur goizago joan nintzen berarekin topo ez egiteko. Bestela bazitekeen neskak konturatzea.

Tere oso emakume ona zen, oso maitagarria. Nire galdera gehienei erantzun zien. Elisa zuen izena, 20 urtekoa, ni baino bi urte gazteagoa. Etxe aberats bateko alaba gazteena zen. Terek esan zidanez bakardadean bizi zen; amak munduko toki guztietan lan egin behar izaten zuen, hemen izan ezik eta aita berriz etxean izan arren lanlekua ez zen gela hartatik irtetzen lo egiteko izan ezik. Ulertu nuenez Elisak ez zuen mutilagunik. Honek poz itzela eman zidan. Elisa zaharraren ondoko palazio zurian bizi ziren. Fatxada landua zuen, harrizkoa, eta izenak dioen moduan zuria zen. Oso etxe atsegina zirudien, benetan handia. Ni han galdu egingo nintzatekeen.

Terek emandako datu guztiekin, nire asmoa pixka bat apainago jantzi eta Elisaren etxean aurkeztea zen. Aurrezturik nuen diru apurrarekin arropa berria erosi nuen. Praka bakeruak eta alkandora urdin bat erosi nituen. Ondoren nire lagun batek ilea ebaki eta ondo orraztu zidan. Oso luze eta zikin bainuen. Ia oinetako zaharrekin geratu nintzen, ahaztu egin zitzaizkidan. Zapatila berri batzuk aurkitu nituen, aspaldian izan nituen zapatilarik garbienak. Beltzak ziren, marra zuriekin. Dendako ispilura begiratu nuen, han zegoena ez nintzen ni. Garbi-garbi nengoen, inoiz baino ederrago sentitzen nintzen. Nire helburua lortzen hasi baino lehen Tererengana jo nuen niganako bere iritzia entzutea. Dendara sartu eta ahozabal geratu zen. Esan zidanez bere okindegian inoiz egon zen mutilik lirainena nintzen. Honek asko animatu ninduen eta oso adoretu abiatu nintzen Elisaren etxerantz. Arratsaldeko bostak ziren, beraz etxean egon behar zuen.

Kalean gora joan nintzen eliza zaharrera bidean. Hamar minutu oinez ibilita iritsi nintzen. Oso urduri nengoen, benetan urduri. Etxeak, inguratzen zuen hesia ere bazuen. Alde batean ate txiki bat, hura igaro eta lorategi zaindu bat ikusten zen. Lorategi erditik bidetxor bat pasatzen zen, zurrina Elisa ere hainbat aldiz bertatik pasatuko zena, nik ere handik gainetik igaro nuen etxeko atera. Nire aurrean ate zuri eta zabal bat nuen. Atetik eskumatara etxeko txirrina. Eskua dardarka nuelarik hatzaz txirrina jo nuen. Kanpai bat bailitzan, oso ozen entzun zen. Urduritasunak ia nire adoreari irabazi zion, ihes egiteko zorian egon nintzen. Zirudienez

ez zen inor ageri etxean. Inor ez zen atea zabaltzera agertu. Ate ondoan kokka bat zegoen eta bertan eseri nintzen, oraindik itxaropena pizturik nuen. Agian momento batetik bestera Elisa etxean azalduko zen, hau gertatzeko irrikaz nengoen. Bi, hiru, lau.. ordu zain egon nintzen. Arratsaldeko argitasuna izkutatu eta iluntasuna nagusitu zen. Bederatziak jo zuten eta jada etsiturik nengoen.

Altzatu nintzen eta lau ordu inguruan aberats sentitu ondoren, berriro ere txiro izatera bueltatu behar nuen. Kalezulora sartu behar nuen. Etxeko hesia barrutik kanpora igaro nuen eta kalean behera oinez hasi nintzen. Bapatean auto dotore eta distiratsu bat igeltsozko palazio aurrean geratu zen. Iluntasunaren erdian eguzki izpi bat irten zen kotxetik, Elisa. Berarengana hurbiltzera hastera nindoanean kotxetik ardi beltz bat irten zen, mutil gazte eta txukun bat. Hesiaren atetxo aurrean Elisa besarkatu eta muxu goxo bat eman zion. Bere mutilaguna zen. Mundua gainera erori zitzaidan, munduaren pisuaz zapaldua sentitu nintzen. Jada ez nuen bizitzeko gogorik. Nire bizitzako garra itzali egin zen Elisa mutilagunarekin ikustearekin batera.

Kalezulora bueltatu nintzen. Egun haietan itxaropentsu bizi izan nintzen baina berriro ere betiko zulora erori nintzen. Elisa gabe ez nintzen inor. Askok maite nuen. Badakit ezinezkoa zela gu biok batera egotea baina nahikoa nuen nire itxaropenarekin. Mutilaguna agertu eta nire barnean nituen itxaropen izpi guztiak desagertu ziren. Nire mundua bukatu zen.

Betiko moduan nire printzesa gelan esnatu nintzen. Aurreko eguna bikaina izan zen, Andresekin igaro nuen egun guztia eta gau hartan ere berarekin amets egin nuen. Oso maiteminduta nengoen. Baita bera nirekin ere.

Eskailerak jaitsi nituen. Ate ondoan, lurrean gutun bat zegoela konturatu nintzen. Arrosa kolorekoa zen, izengabekoa. Gutunari buelta eman eta han zegoen nire izena: Elisa. Maitekiro idatzirik. Ezjakina nuen baina gutun honek urduritasun bat piztu zidan. Kontu pixka batekin gutuna ireki nuen. Tolestutako horria zabaldu eta hau zioen:

*“Infernu ilun hartatik irten nintzen
Argi izpi baten bila
Ogi beroaren ondoan
Arantza bazina bezala nigan sartu zinan
Zure bihotza ordea beste batena da
Zu gabe egoteko hobe nago hila
Atzo bertan bukatu zen nire bizitza”*

Nor ote zen honen jabea? Ez zuen axola. Seguru asko zoro obsesionatu baten istorioa zen. Ez nion buelta gehiagorik eman gutun honi. Erre egin nuen. Agian nirekin maiteminduriko mutil bat zen baina nik banuen nire mutila, ez nuen besterik behar.

Egunero bezala Terengana jo nuen ogi bila baina egun hura ezberdina izan zen, ez nuen betiko eskalearekin topo egin. Zer gertatu ote zitzaion? Ez nuen berriro ere sekula ikusi.



Maite Mugira Oar-Arteta - DBH 4. maila

“Saskibaloia gustuko dut”

EKINEAN

Hemen nago itxarongelan, operazioaren zain. Bertan nagoela, hona ekarri didan arrazoiak gogoratzen hasi naiz.

* * *

Ostiral arratsaldea da, asteko azken ordua. Gimnasiako maisua, beti bezala, berandu dator eta antza denez, gauza garrantzitsu bat esan behar digu:

- Ea gazteok, isilik,... Datorren astetik aurrera igerilekura joango gara.
- Ondo, ederto!- hasi dira denak zarataka.

Baina ni ez nago pozik, ez dut igerilekura joan nahi. Ez dut nire gorputz motz eta potoloa inork ikustea nahi. Bapatean, ondotik datorren ahots batek nire pentsamenduak uxatu ditu:

- Aizu Maider, etorriko zara, ezta?-bota dit klaseko pailazoak, Mikelek.
- Bai noski. Zer uste duzu ba?- erantzun diot harroputz plantak eginez.

Baina nire barrua ez dago lasai, ez dut astelehena heltzea nahi.

* * *

Medikuaren gelatik emakume zahar bat irten eta beste gizon indartsu bat sartu da. Orduan konturatu naiz laster nire txanda dela, eta hasi dira jada tximeletatxoak bueltaka nire tripan.

* * *

Heldu da astelehena. Argi daukat nola edo hala aitzakiaren bati esker ez dudala gimnasiarik egingo. Badakit! Hilekoarekin nagoela esango diot eta sinetsi egingo dit. Jolastorduan, irakasleen gelara joan eta bertan aurkitu dut Inazio, gimnasiako maisua:

- Inazio, gaur ezin dut igeriketa saioa egin.

- Zer dela eta?- galdetu dit jakinminez.

- Hilekoarekin nago.

- Ondo da, baina datorren astean egin beharko duzu. Ez dut nahi eta inork hutsegiterik.

Bertatik irten eta poz-pozik jarri naiz bat-batean, nire plana ondo irten baita. Arratsaldean, Zuriñek galdetu dit ea zer dela eta ez naizen joan eta maisuari esan diodan berbera erantzun diot:

- Hilekoarekin nago eta.

* * *

Oso urduri nago, ez nago ziur dena ondo irtengo den, eta txisaguraz komunera joan naiz. Han pare bat minutu eman ondoren berriro nire lekura itzuli naiz.

* * *

Astea pasatu da eta jai egunak datoz. Ni, normalean, asteburuetan mendi goian aurkitzen den nire amona- aitonon baserrira joaten naiz eta beraiekin pasatzen ditugu egun horiek. Goizean mendi ingurutik buelta bat ematen dugu (aitonak eta nik, noski) eta bide batez bidean aurkitzen ditugun perretxikoak biltzen ditugu. Gero bazkaria jan eta arratsaldean ortua lantzen ibiltzen gara. Egia esan, asteburuak oso azkar pasatzen zaizkit, baina oraingo hau dortoka baino motelago doala iruditzen zait. Astelehenenerako beste aitzaki bat bilatu behar dut. Nire burua nahi eta ezinean dabil, pentsatzen saiatzen naiz baina ez zait ezer bururatzen. Igande gaua heldu da eta oraindik aitzakiarik gabe nago. Hain desesperatuta nago, ezen amari esatea ere bururatu baitzait. Baina ez, ezin dut ama kontu hauetan sartu. Beldur naiz, bai beldur, gelakideek esaten dutenaren beldur. Betidanik izan naiz horrelako, beti besteek zer esango dutenaren beldur. Nahiz eta txotxolo batzuk izan eta betidanik ezagutu, ezin dut jasan nitaz barrezka egongo direla pentsatzea, pentsatze hutsak gorputz osoan izugarritzko dardara ematen dit. Gauerdia da eta oraindik begiak zabalik ditut, gau ilun honetan. Haizearen zarata entzuten dut, lurreko plastiko, zakarkeria, etab eramaten. Bururatu zait! Medikuarengana noala esango diot irakasleari eta justifikante faltsu batekin engainatuko dut. Bi minutu igaro ondoren, lo siku geratu naiz.

* * *

Han, aldizkari bat hartu dut. Bertan datozen argazkietan fijatu naiz: neska argalak, lirainak,...Niri ere halako gorputza edukitzea gustatuko litzaidake. Aldizkaria bertan behera utzi dut, inbidiak jota. Ezin dut ikusi nola jendeak gozatzen duen bere gorputzarekin.

* * *

Goizeko 8:12 puntu-puntu dira eta nire iratzargailua beti bezain zaratatsu dabil. Aitak erosi zidan herri txiki bateko plazan, niri jaikiaraztea oso zaila baita, gurasoek diotenez. Jaiki, 10 bat gailera jan (amak ez dit uzten gehiago jaten, dietan bainago) eta ikastolarantz abiatu naiz. Arratsaldea da eta Inaziori eman diot papertxo. Begirada bat eman dio eta buruarekin baietz esanez poltsikora sartu du. Ni, besteak igerilekuan dauden bitartean jolastokiko txoko batean ezkutatu naiz. Gero, ikastolako atea ireki bezain laster alde egin dut. Dena ondo irten da, eta bi aste daroadaz igerilekura joan gabe.

Azaroaren 1a da, astelehena. Oraingoan ez zait aitzakiarik bururatzen, nire burmuina neka-neka eginda dago, eta baita ni neu ere. Beti bezala jaiki, eta ikastolara bidean joan naiz. Heldu da errealtateari aurre egiteko eguna, bai heldu da. Gelara sartzean, Mikelek honako hau bota dit:

- Zer Maider? Gaur ez zara libratzen!

- Zer libratu eta zer arraio! Noski egingo dudala igeri, zergatik ez?-hau

esatean kanpotik itxura gogorra dudala adierazteko da, baina nire barnea kristalezko lorontzi baten modukoa da: asko ukituz gero, apurtu egiten da. Beraz, hobe bakean uztea.

Arratsaldean, han nago aldagelatik ez irtetzeko asmoz. Toailarekin estalita nago eta guztiz lotsatuta. Erlojuari begiratu diot eta berandu dela konturatzean aldagelatik irten naiz. Hara heldzean inork ez nau arraro begiratu eta pixka bat lasaitu egin naiz. Denak daude han, Inazio ere bai (bere loradun bainujantziarekin) eta klasea hasi da. Uretara sartzeko esan digu, eta orduan toaila kendu behar dudala konturatu naiz. Igerilekuko txoko batetan utzi eta jarraian denak gelditu dira niri begira eta betiko komentarioak entzun dira: zelako tripa daukan, zein potola dagoen!...Nire barruak ezin du gehiago jasan, larregi da. Lehertu beharrean nago eta negar malko batzuk erortzen hasi zaizkit. Eta jarraian negar hutsean hasi eta korrika alde egin dut. Inazio, nire atzetik etorri da, klasea bertan behera utzita eta kanpoan itxaron dit. Irtetzerakoan goxo-goxo honela esan dit:

- Lasai, ez da ezer gertatzen. Ahaztu dena eta aurrera! Ez egin kasurik hauei!

- Bai, erraza da esatea- eta amaitu gabe, berriz negarrez hasi naiz.

Hurrengo egunean, tutorea niregana zuzendu da eta 12etan geratu gara hitz egiteko. Berak, izugarritzko sermoia bota eta gero, ez nau konbentzitu, baina buruarekin baietz esan diot. Segituan, komunera joan eta negarrez eman ditut, gutxienez hamar minutu.

* * *

Honela bukatu zen dena DBH4.maila hartan. Orain 20 urterekin, ez dut gai hori gaintitzea lortu, eta azken irtenbide bezala aukeratu dut hau. Momentu honetan, erizaina agertu eta nire izena esan du:

- Maider Basterretxea- bere zerrendan irakurri du.

- Bai, banoa- erantzun diot arnasa sakon hartuta.

Bertan, ohe batean etzan eta medikua hara eta hona dabil. Ni, oroitzapen haiek ahazten hasi naiz, erizainak orratza sartzen didan bitartean.

Begiak itxi ditut.



Yasmine Arrien - DBH 4. maila

“Zein ederra den gaztea izatea eta ezeren faltan ez egotea!”

UZTAILEAN IZAN ZEN ...

2004ko uztail bero hartan piztu zela aitortu beharko dut; bat-batean, ustekabean, bina hala ere, nerabeon amodio guztiak bezala, itxura ederra, sutsuan iparra galtzera garamatzen ongizate amaigabea bailitzan: Peio eta hori arteko adiskidetasuna uztail hartako beroak erretako hazia zirudien. Lagako hondartzan, garenok garena dakusagun toki horretan; barruan daramagun animalia izaera hori azaleratzen denekoan, urarekin errietan, norgehiagoka genbiltzalarik. Hantxe ikusi nuen lehen aldiz nire ametsetako azukre kokkorra, beltzarana bera, aurpegian ondo diseinaturiko begin ilun bezain sakonak zituena. Atzamar muturren igurtziak hegan bidaltzen zuten pilota bati bultzaka, orain hona eta gero hara ia nork harrapatuko. Halako batean pilota neuri hurbildu zitzaidan “har nazazu, zeure aginduetara naukazu” esango balit bezala. Eta esan eta egin: pilota hartu, “nire” mutilarengana hurbildu jolasean hasi; dena izan zen bat: Eurekin jolastera gonbidatu ninduen; nik noski, nire adineko neskato lotsati guztiek egingo luketen bezala ezetz esan nion.

Asteak igaro ziren Peioren berri izan nuen arte, ahaztua nuen jada. Nire lagun taldea eta ni, ordurako jaietarako prest geunden, jai-giroan sartzeko irrikitzen. Hala, festak hasi baino ez eta han ginen gu, pozaren irudi bizia, tabernarik taberna, munduan lagun. Eta gutxien espero nuen momentuan han aurkeztu zitzaidan Peio, bere lagun taldearen erdian; bai galantak guztiak! Bat bera ez zen baztertzeko modukoa eta neskak atzean geratzeko modukoak ez garenez, minutu gutxiren buruan talde berean aurkitzen ginen, hurbiltze-teknikak egokiak

izan baitziren. Gau osoan egon ginen eurekin eta Peiok eta biok elkar ezagutzen hasteko parada ederra aurkitu genuen. Gaueko giroaren ederraz komentatzen gindoazela nire izena entzun nuen, Peio zen guganantz zetorren. Harrapatu gintuen, aurrean plantatu zitzaidan eta mugikorraren zenbakia eskatu zidan. Bi aldiz pentsatu gabe eman egin nion eta baita berea hartu ere.

Baina mundua ez da beti arrosa kolorekoa eta egunak igaro ahala bere mezurik ez nuela jasotzen eta, Peio ahaztea erabaki nuen. Jaietan oso ondo pasatu genuen arren, momentuko berotasuna pasatu eta gero dena ahaztuko zitzaizela pentsatu nuen. Justu instante horretan mezu bat iritsi zen nire sakeleko telefonora. Peiorena zen. Gau hartan oso ondo ibili ginenez beste egun batean elkar ikusteko aukerarik izango ote genuenetz galdetu zidan. Eta aurrerantzean mezuak bidaltzen jarraitu genuen. Bermioko jaiak iritsi ziren eta bermeotarra zenez, berarekin festak ospatzera gonbidatu gintuen, talde oso noski Bermiara heldu ginenean beraiekin elkartu ginen herriko parkean. Parranda makala bota genuen eta trena hartzeko momentua heldu zenean, Peiok, hurrengo baterako geratzeko eskatu zidan. Ni, segundo batzuen behar izanean aurkitu nintzen erantzuna mihi puntara etorri baino lehen. Irailaren 21ean geunden eta ez dut data hori sekula santan ahaztuko. Gero lagunekin atera beharrean berarekin ibiltzen nintzen. Horregatik ez nuen jakin berandurarte gure taldeko beste neska bat Peioz maiteminduta zegoenik.

Gaua luzea bezain iluna iruditu zitzaidan egun hartakoa. Ezin nuen nire lagunaren aurpegia burutik kendu. Ezin nuen jasan beste baten sufrimendua nire erruz izatea. Horregatik erabaki bat hartu nuen: Peiorekin geratuko nintzen dena azaltzeko eta gure artekoa egun ilun horretan bukatzeko. Baina horretan nengoela, mutilak, berak hori ez zuela onartzen esan zidan. Nik, negarrari eusten nion bitartean. Peiok besarkada bero bat eman zidan eta lehenengo aukeran argitu zion nire lagunari beraien artekoa ezinezkoa zela. Hasieran gaizki hartu zuen baina azkenean ulertu zuen.

Bikote guztiek bezala une gazi-gozaok igarotzen genituen baina elkarrengandik urrun egotea jasan ezinik beti adiskideta eta asmo onekin amaitzen genuen. Urteetako kontua izan zen.

Dena den, bizitzan, nahi zein ez, istorioek gorabehera handiak izaten dituzte eta gurea ez zen desberdina izango. Hala, atzo baztertua izan dena, galtzailea sarritan, bihar aurretik edo irabazle izan ahal da. Eta gure kasuan, Peiok nire lagun kuttunarekin igaro zituen zahartzaroko azken egunak, nik bakarrik utzi nuen momentu hartatik aurrera. Guk izandako seme-alabek ere ez zuten ez zeresanik ez zereginik berriro aurkitzen ziren gaztaroko lagun haiek elkarrekin bizitzera joateko gogoia agertu eta manifestatu zutenean. Nagusiak ziren, ezta? Eta gainera, gure patua aurretiaz idatzirik dagoela uste dugunok errazago ulertzen dugu maitasun konpartitua, bihotzaren zabaltasuna eta eskusibotasunik eza. Guztiok daukagu gure tokia mundu honetan eta guztiok daukagu geure momentua. Ikustea eta harrapatzea da kontua.



Beñat Elguren - DBH 4. maila
“Futboleko jokatzeko dut eta Athletic-eko jokalaria izatea gustatuko litzaidake”

GIZARTE DESBERDINTASUNAK

Hau ez da besteak bezalako ipuina, hau gaur egun munduan bizi dugun egoera eta bizimodu desberdinen islada da. Pentsa dezagun Brasilgo kaleko ume batek bere bizitza kontatzen digula.

Kaixo!! Ni Roberto naiz, Brasilgo kaleko mutiko bat. Jaioberritan abandonatu ninduten eta orain kalean bizi naiz beste hamar mutikorekin. Gure bizitza gogorra da, benetan gogorra, sentimendurik gabekoa, beno ez sentimendu bakarrekoa, gorrotoa. Gaurkoa beste egun arrunt bat da, goizean jaiki eta gaueraino kalean jana lortzeko asmotan eta hori ez da dena... Orain kontatuko dizuet nire bizitza; unerik latzenak, gogorrenak, sarritan galdetzen diot neure buruari zertarako naizen.

Rio de Janeiroko kale bazter batean ekarri ninduten mundura, aitarik gabe eta amaren begiradapean. Ez naiz gogoratzen nire amaren izenaz eta zer esanik ez, nire aitaren izenaz eta ez dakit zein den neure benetako izena ere. Nire lagunek edo hobeto esanda nire kaleko lapur-kideek Roberto deitzen didate eta orain horrela naiz. Oso txikitik kalean utzi ninduten nire bizitzari neuk soilik aurre egiteko. Orduan kaleko mutilek hartu ninduten euren taldean, egunean janari pixka bat eta dirurik gabe, baina hor lortzen nuen nolabaiteko babes.

Urteak aurrera egin ahala neure metodoak garatzen joan naiz lapurretarako eta honekin bizi irauteko; hala nola, arma zuriak erabiltzen hasi nintzen. Jende berria ezagutzen joan nintzen, jende mafioso, diru pixka baten truke, edonor hiltzeko kapazak zirenak. Beraiekin urte batzuk igaro nituen drogak pasatzen edota dendak xahutzen. Alde egin behar izan nuen bertatik polizia gure atzetik zebilen eta. Metodoez gain, hanketako muskuluak ere garatu ditut, handik hona poliziaren aurretik korrika, maratoilari keniarrak bezala. Gogoratzen naiz nola igaro nituen asteak eta asteak putzu beltz haietan, gosez eta egarriz, egunean janari pixka batekin soilik.

Handik irtendakoan nire itxura ikustekoa zen; buruan ilerik gabe, aurpegia odoletan, gorputza beltzunez josia eta bi atzamar gutxiagorekin, Drakula bera ere ikartzeko modukoa.

Asko kostatu zitzaidan putzu haietatik irtetea, droga kontuetan ere sarturik nenbilen. Une latz hartatik bizirik irtetea miraria zela iruditzen zait orain, baina irten nintzen azkenean. Orain beste arazo berri batzuk ditugu, alde batetik gurekin amaitu nahi dutenekin eta bestalde gorbatahun gizon horiekin. Ondo esanez, umeak bereganatzen dituztenak. Auskalo zertarako? Agian hil eta euren organoak beste lurralde batzuetan saltzeko. Pasa den astean ere, nirekin hamar urte kalean igaro dituen bat desagertu zen. Seguruenik putre horiek eraman zuten. Guk ez dugu sinesten ez maitasunean, ez poztasunean, ez ezertotan. Lo ere begiak irekita egin behar dugu ez badugu begi bien artean Magnum 22 bat sentitu nahi. Ikusten duzue gure bizitza, sufrimenduz josia, bizitzeko itxaropenik gabea, maitasunik gabea.

Pentsa dezagun orain, munduaren beste puntan, janaria zein beste edozer erraz daukaten toki batean, beste mutiko batek bere bizitzaren zertzelada batzuk kontatzen dizkigula.

Hola, ni James Oxford naiz 16 urteko mutikoa. Londreseko auzunerik aberatsena nire familia bizi dena da. Inguru horretako aberatsen semeak joaten diren Institutoan ikasten dut eta txofer bat uneoro neure agintean dut. Orain kontatuko dizuet nire bizitza. Londreseko ospitale ezagunenean jaio nintzen, nire aitak bideo-kamara berriarekin grabatu zuen jaiotza. Oinez ikasi bezain laster gasolinaz zebilen motorra oparitu zidaten. Urteak aurrera joan ahala segurtasuna dela eta bizkartzain pare bat jarri zizkidaten eta orain uneoro neure gainean ditut ume jaioberriarengan amak egoten diren bezala. Neguan eski estazio ospetsuetara joaten naiz bertan asteak emanaz eta udan aldiz, nire aitaren “yatean” aritzen naiz hara eta hona itsasoan oportetan. Horrez gain, landan dugun txaletera joaten naiz bertan golfera edo tenisera jolastera. Gure etxeko arauak filme Amerikarretan bezalakoak dira: leku guztietara trajea jantzita joan behar dugu, jatorduak zehatz-mehatz errespetatu behar ditugu, lotara hamarrak aurretik joan behar da... Ez uste nire bizitzan dena erraza eta atsegingarria dela; badaude arazo batzuk ere.

Ezin naiz lagunekin egon eta txarrena dena ez dudala inoiz ere nire aita ikusten, beti negozio bileretan baitago; Parisen ez bada Berlinen eta Berlinen ez bada Oslon. Arazo hauez gain, egia esan behar badizuet diruak asko laguntzen du eta nire bizitzan garrantzitsua da, maitasuna edo elkarbizitza baino garrantzitsuagoa. Horrez aparte, bihar bertan nire

bizkartzainekin Brasilerara joatekoa naiz, ikasturtea gainditu dudalako. Han hondartzan aritzeko gogoia daukat nire aitaren “yatean”.

Patuak biak batzea lortu zuen, Brasilen, bat kalean janaria topatzeko ahaleginetan zegoen bitartean bestea aurrerapen guztiekin oportetan. Esan dugun moduan patuak biak batu zituen.

Egun horretan ere ia egunero bezala, hondartzan zegoen jendea begiztatzen zebilen Robertoren taldea. Han zegoen James bere yatetik hondartzara jaitsi berri. Bere bizkartzainak distantziara berari so zeuden zelatan. Mutil gazte hau ikustean Roberto eta bere taldekoei egun horretako biktima hori izango zela otu zitzaien.

Erasoa nola egin pentsatu ostean, erasotzen joan zirenean ez ziren konturatu mutilaren bizkartzainak handik hurbil zeudela. Bereganatu eta zeukan diru guztia azkar emateko eskatu zioten Jamesi. Honek ikaraturik bizkartzainei egin zien garrasi. Elkarrekin borroka bat hasi zuten. Tiro batzuk airera bota eta elkarri mehatxuzko hitz batzuk esan ostean, Roberto Jamesen gorputzaren atzean gordeirik tiroketa bat izan zuten. Robertok atzetik helduta zeukan James bere pistola Magnum 20az apuntatzen.

Halako batean askatzeko mugimenduak egiterakoan bere pistola hartu eta tiro egitean James jo zuen horrela bertan azken arnasa eman zuelarik. Momentu berean bizkartzainek euren pistolak harturik Roberto eta taldekideak tirokatzen hasi ziren. Halako tiro batek Roberto harrapatu zuen eta lurrera erori zen zerraldo.

Baten familia lur jota zegoen bitartean, bestearengatik ez zuen inork negar tantarik isuri. Azkenean biak elkartu ziren betirako, beste munduan, lurpean, gizaki guztiak berdinak diren tokian.





Garazi Madariaga Aguirremalloa - DBH 4. maila

“Etorkinek bizimodu gogorra dute”

PANTERA BELTZA

- Nigmed, Nigmed!
- Bai oraintxe noa ama!
- Nigmed, eseri zaitez, zure aitak eta biok oso gauza garrantzitsu bat esan behar dizugu.
- Bai, begira maitea, badakizu diruz oso gaizki gabiltzala ezta?
- Bai, badakit bai- amak negarrari ematen dio.- Baina zer gertatzen da ama?
- Nigmed, Asmal, Nepiltarren tribuko nagusiaren semearekin ezkondu beharko duzu lehenbailehen duela urte batzuk jakinarazi genizun bezala.
- Nola? Nik ez dut ezkondu nahi!
- Ez daukagu beste aukerarik. Zu jaiotzean egin genuen akordu hori.- aitak.
- Baina...-sentitzen dut.
- Nora zoaz?- amak.
- Kanpora, bakarrik egon nahi dut!
- Baina...
- Utziozu.

Bi egun daramatzat begirik itxi gabe. Nirea bai dela zoritxarra. Azkenean heldu da hainbeste beldurtzen ninduen eguna.

Orain kontatu dizuedana Maput tribu Afrikar batean, niri Nigmed Astana izeneko 15 urteko neska bati gertatzen ari zaiona da. Hilabete barru ezagutzen ez dudan eta inoiz ikusi ez dudan 22 urteko mutil batekin ezkondu beharko du. beste tribu batera joan beharko naiz bizitzen, nire familiatik, nire lagunetatik eta nire ohituretatik urrun.

Maput tribua Afrikako erdialdean dagoen dago. Bertan 200 pertsona inguru bizi gara adobezko etxe txiki batzuetan. Astean behin, ilargia irten eta eguna hiltzean, tribuko kide guztiak sutondoan biltzen gara Patamari, gure Jainkoari, opariak eskaintzeko eta tribuko zaharrenek, duela milaka urte, Ziham-ak (lurraren sortzaile ziren aztiak) gure artean bizi zirenean gertatutako istorioak kontzen dizkigute.

Gaur da egun berezi horietako bat eta gaurkoa gainera berezienetarikoa. Gaur Zijam aztiak, unibertsoaz kanpo dagoen beraien erreinutik jaitsiko dira lurreko bizidun guztiei zortea opatzera.

Jada hasi da festa.

Tribuko mutil gazteak ehizan ibili dira egun guztian zehar, ahalik eta animalia handienak ehizatzen, orain festan erre eta denon artean jateko. Hau eginez, jadanik nagusiak direla erakusten digute tribuko beste kide guztiei.

Afaltzen hasi baino lehen sutondoan dantzan egiten dugu Patamarentzat eta honela berak, jango ditugun jakiak bedeinkatzen ditu. Dantzan ari garen bitartean loreak, astean zehar egindako egurrezko objektuak, eta janaria botatzen ditugu sutara berarentzat opari moduan eta hau egitean batzuek basoan bildutako belarrekin egindako edari bat hartzen dute. Hau hartzean asko mugitzen dira, begiak zuri jartzen zaizkie eta Patamarekin komunikatzen dira. Patamak esaten die noiz iritsiko diren Zijamak lurrera eta baita zer egin behar den eta zer ez.

Afaritarako gauza ugari ehizatu dituzte baina ez naiz gose. Denak ari dira barrez eta dantzan baina nik ezin dut burutik kendu gertatzen ari zaidana. Samala, tribuko zaharrena eta jakintsuena den emakume batek ere ez dirudi oso pozik dagoenik. Samalak, jada laurogeita hamahiru urte ditu. Gutariko norbaitek gaixotasunen bat duenean, berarengana joaten gara, ohean jartzen gaitu eta berak egindako edari batzuen bitartez sendatu. Sarritan, kasu hauetan ohean etzanda egon eta istorio ugari kontatu izan dizkit, edariak eragina egiten zidan bitartean.

Momentu honetan ez naizenez oso ondo sentitzen,berarengana joango naiz ea zerbait kontaktzen didan.

-Kaixo Samala.

-Kaixo Nigmed, zure zain nengoen.

-Baina nola jakin duzu zuregana etorriko nintzela?

-Horrek orain ez dio axola, zer behar duzu?
 -Arazo bat daukat, eta pixka bat animatzeko istorioren bat kontatzea nahiko nuke.
 -Bai, jakitun naiz, gertatzen ari zaizunaz.
 -Baina...
 -Sxx, ez dio axola nola dakidan hori. Etorri zaitetz nire etxera, hemen baino erosoago egongo gara eta. Zatoz, zatoz!
 -Bai ondo da.
 -Eseri zaitetz ohean. Ez dakit zure kasuan ezer asko egin ahal izango dudan.
 -Hm. Ulertzen dut.
 -Zurea ez da gaixotasun bat baina har ezazu edari hau apur bat lasaitzeko. Honelako kasuetan onena izaten da.
 -Eskerrik asko.
 Edalontzia eman eta nire ondoan esertzen da.
 -Entzun Nigmed, arazo honek ez du sendagairik baina beharbada badut lagunduko dizun zerbait. Orain kontatuko dizut; duela milaka urte gertatu zen hemen gure tribuan.

“Gaurkoa bezalako gau berezi bat zen. Zijam aztiak planeta guztiak Nashal izeneko neskatxa bati bere gurasoek, zuri bezala, beste tribu bateko nagusiaren semearekin ezkondu beharko zuela jakinarazi zioten. Nashalek 13 urte baino ez zituen eta mutilak berriz 25. Nashal ere asko tristetu zen berria jakitean. Bere gurasoekin haserretu eta bere lagunik onenarengana joan zen dena azaltzera. Lagunak, zer egin ez zekiela Nashali laguntzeko tribuko zaharrenarengana joateko gomendatu zion eta halaxe egin zuten. Biak joan ziren Kalam-engana. Kalamen ere edabe lasaigarri bat eman zion Nashali eta luzaroan pentsatzen egon ondoren, Nashal, Zijam baten bila basora joatea bururatu zitzaion. Bere bedeinkazioa eman ondoren, Nashalek, bere lagunari eta Kalami agur esan ondoren, honek lepoko bat eman zion zorte ona opatzeko. Honela Nashalek alde egin zuen basora eta bertan asko ibili eta gero, badirudi neskak zuhaitz baten azpian belar batzuk biltzen zebilen gizon arraro bat ikusi zuela.

Oso altua zen eta zilar koloreko kapa batez estalita zihoala esaten du legendak. Gizonak, bera itxaroten zegoela esan omen zion eta Nashalek bere arazoa



kontatu zion. Zijamak, hau entzutean zer nahi zuen galdetu zion eta honek libre izan nahi zuela erantzun zion.

Libre bere erantzukizunak hartzeko, libre inork zer egin behar zuen ez esateko. LIBRE.

Hau entzutean, aztiak pantera beltz bihurtu zuen Nashal. Kontatzen dutenez, handik hilabete batzuetara, ilargi beteko gau batean, Kalamen etxera pantera beltz bat sartu, berak emandako lepokoa utzi eta burua makurtuz alde egin zuela”.

-Niri gertatzen ari zaizkidan gauza oso antzekoak gertatu zitzaizkion Nashali ere ezta?
 -Bai hala da eta horregatik kontatu dizut zuri. Eskuardean dudan hau Nashalen lepokoa da. Tori zuretzat. Berari bezala zortea emango dizu eta. Zerbait esan ditu ahopeka baina ez diot ulertzen. Badirudi niri bedeinkazioa ematen ari dela.
 -Orain joan zaitetz basoan barrena. Zortea izan.
 -Eskerrik asko Samala, halaxe egingo dut.



Oihane Ituarte Lauzirika - DBH 4. maila

*“Irakurtzea eta musika ditut gogoko
eta saskibaloia ere asko gustatzen zait”*

HAMAR EGUN IHESEAN

Nire izena Yerma da eta 15 urte baino ez dituen neska heldugabe bat naiz oraindik. Ezin dezaket esan zehazki nongoa naizen zeren gerra dela eta, toki batetik bestera bidaiatu baino ez dugu egiten. Bai, dugu, nik eta nire familiak. Baina oraingo hau azken bidaiak dela esango nuke nik. Oraingo honetan errefuxiatuentzako kanpamentu baterantz goaz, bertan, aspaldi honetan sentitu ez dugun segurtasunaren bila. Nire amak esaten dit egunen baten bueltatuko garela jaio nintzen eta urte batzuk bizi ginen herri eta etxe hartara, baina nik badakit hori ezinezkoa dela berari esan ez badiot ere.

Bidaia hau ez da besteak bezalakoa horregatik pentsatu dut nire eguneroko pribatu bat idaztea. Eguren amaieran bere orrialdeak betetzen ahalegintzen naiz izan ditudan pentsamendu eta erreflexioak ahalik eta argien adieraziz. Egunerokoa idaztearen ideia hau ez zen nirea izan, ez, nire aitak eman zidan ideia esanez horrela denbora arinago pasatuko zaidala. Egun honetan bere falta izugarria somatu dut, bere bromak eta bere umorea gehien bat. Nire aita ez da gurekin abiatu, zeren bere pentsaera eta herrialdea, etab. defendatzeko beharra sentitu du. Horregatik gerran parte hartzearen erabakia hartu eta gu nolabait bakarrik utzi gaitu eta oraingo ez dugu beraren berririk izan.

Lehen eguna.

Gaur goizetik altxatu gara eta traste guztiak lepoan hartu eta nolabaiteko segurtasuna topatzera abiatu gara. Hainbat ordu egin ditugu gelditu gabe eta atzera begiratu gabe, norbait guri atzetik jarraika etortzeko beldurrez. Ez zait bidaia honen arrazoia bat ere gustatzen, baina zerbait ona aurkitu behar banio ihesaldi honi, pentsatzeko denbora aipatuko nuke. Egun guztian zehar inorekin ia hitzik egin gabe egotearen ideiak ez dit batere graziaz egiten, baina tira zer egingo diogu ba, horrelakoa tokatu zait bizitza.

Bigarren eguna

Gaurko eguna atzokoa baino gogorragoa izan da. Bidean harezko ekaitz batek geldiarazi gaitu eta hainbat denbora galdu dugu. Oraingoan janaria daukagu, baina ez dakit zenbat egunerako izango dugun. Hiru familia gara bide berbera jarraitzen aurkitu garenok eta bidaia entretenigarriagoa eta errazagoa egitekotan elkartu gara. Ez zait ideia txarra iruditzen elkartzearena, baina orain traste gehiago ditugu garraiatzeko eta hori ez da nire gustukoa. Gaur ere nahiko denbora izan dut pentsatzeko. Batez ere pentsatzen aritu naiz, nolakoa izango litzatekeen nire bizitza beste toki batean jaio izan banintz. Ez naiz larregi kezkatzen dudana bizitzaz, baina gauza batzuk aldatuko nituzke. Egia esan, uste dut gehiegi konformatzen naizela gauzeekin, baina beno, familiak asko maite nau eta hori da benetan garrantzitsua niretzat. Baina lagunak izatea faltan botatzen dudala ere ezin dut ukatu. Nahiko bakarrik sentitzen naiz eta nire adineko baten beharra dudala oihukatuko nuke, baina basamortuaren erdian ez luke askorik balioko.

Hirugarren eguna

Gaur beste familia bat elkartu zaigu. Hamar pertsonako taldea: gurasoak, bi alaba txiki, seme bat ni baino pixka bat zaharragoa, gizonaren anaia eta emaztea eta beraien hiru alabak. Hasieran pentsatu dut ume txikiek arazo gehiago ekarriko dizkigutela, batez ere, egun guztiak oinez eta martxa onean ematen ditugulako, baina bat-batean nire burmuinak funtzionatzeari utzi dio begi ilun eta handi batzuekin topatu naizenean. Momentu horretatik aurrera ez naiz izan gai pentsamendu finko batetan kontzentratzeko.

Laugarren eguna

Gaur normalean baino lo gutxiago egin dugu, gau erdian armatutako gizon batzuekin egin baitugu topo eta esan digute hobe dugula pixka bat arinago ibiltzea asko hurbiltzen ari direla bonbardaketako hegazkinak toki horietara eta. Beraz, gure tramankulu guztiak jaso eta ahalik eta arinen bidean jarri gara. Gaur ez gara gosaltzeko orduan ere gelditu. Bidean beste talde batekin elkartu gara eta esan digute egun batzuk barru ailegatuko garela kanpamentura. Ideia horrek animua igo digu denoi. Gaurko eguna oso neketsua iruditu zait baina goizaldean lo egin ditudan ordu gutxi horietan izan dudana ametsak okupatuta izan nau egun guztian zehar. Mutiko berri horrekin egin dut amets.

Bosgarren eguna

Lo gehiago egin ahal izan dugu goizean eta horri esker denon umoreak gora egin duela dirudi eta gainera egun hauek eta gero, denok konfidantza hartu dugu gure artean, horrek

asko errazten ditu gauzak lehen begirada batean ikusi ez arren. Gainera oso pozik amaitu dit eguna. Gaur mutil misteriosu horrekin hitz egin ahal izan dut. Rashid du izena eta 16 urte ditu. Oso jatorra iruditu zait eta aspaldian izan ez dudana bezalako elkarrizketa animatu bat izan dut berarekin. Egia da bost egun baino ez daramatzagula bidaia honetan, baina esan dezaket bost urte izango balira bezala iruditu zaizkidala.

Seigarren eguna

Janaria murrizten hasia da eta hori giroan nabari ahal izan da. Gaur nire amarekin hizketalditxo bat izan dut. Galdetu dit ea nola daramadan bidaia eta beste hainbat gai ezberdinez mintzatu gara denbora nolabait pasatzeko asmotan. Rashidekin ere aritu naiz hizketan eta berarekin nengoela horrelako kilima batzuk sentitu ditut triparen barnean. Zoritxarrez edo zorionez, ez naiz horretan larregi pentsatzen aritu, badakit zer esan nahi duen sentsazio horrek, amak azaldu zidalako urte batzuk arinago.

Zazpigarren eguna

Atzo gauean loa hartu ezinik egon nintzen nire ezkutuko sentimenduak deskubritzeko ahaleginetan. Azkenean horrelako istorio bat egin nuen neure barnerako bion arteko zera hori nolakoa izatera ailegatu zitekeen imajinatuz. Imajinazio horretan murgildurik loak hartu ninduen. Gaur buruari biraka ibili naiz eta harritu egin naiz nola momentu bateko gauzak nire azken egunetako pentsamendu guztiak alde batera utzi eta pentsagai nagusi bihurtu den. Laister ailegatuko garelakoan gaude denok bidaia honen bukaerara. Nik ordea, horrelako sentipen arraro bat daukat barnean eta badakit zerbait gertatuko dela hau dena bukatu baino lehen.

Zortzigarren eguna

Leherketa baten zaratak itzartu gaitu gaur goizean. Denon gorputzetan sartu den bat bateko beldurrak eta ikarak ohiko denboran baino arinagoan dena batu eta abiatzea eragin digu. Gero eta jende gehiago ari gara aurkitzen bidean eta denok dugu helburu bera dirudienez, segurtasuna. Imajinatu dut ez garela urrun ibiliko gure helmugatik baina bat-batean arazo bat sortu da nire baitan. Bidean aurkitu garen pertsona guztiak, orain askoz gehiago garenak, agian ez dugu tokirik errefujiatuen kanpamenduko denda horietan eta berriz abiatu beharko dugu beste toki baten bila eta ez daukat jada indarririk beste hainbat astez egoera honetan jarraitzeko. Egun guztian arazo honek arduratuta eduki nau. Ez dut inorekin honetaz hitz egin, ezta Rashidekin ere, oso lagun onak egin garen arren.

Bederatzigarren eguna

Ia egun guztia nire lagunarekin hitz egiten eman dut. Biok oso arduratuta egon gara, leherketak oso hurbil entzuten izan baitira eta beldurra eman digu hauek bidean harrapatu ahal gaituzten ideian pentsatzeak. Egia esan, oso gustura ibiltzen naiz Rashidekin hizketan. Une batez burutik pasatu zait berari esatea zerbait desberdina sentitzen dudala beragatik. Azkenean ez zait ideia ona iruditu. Horrelako aitorten batek gure elkarrenganako sentimendua pikutara bidaltzeko beldurrez edo, berak berdina sentitzen ez badu behintzat. Ziur nago ez naizela gai izango berari ezer esateko honi buruz eta beti izango dut esan banio erantzungo zidanaren zalantza hori.

Hamargarren eguna

Gaur ez dugu lorik egin. Gure ondoan aurkitzen zen eraikin txiki bat lehortarazi dutenean korrika hasi gara bakoitza bere bidetik eta gu behintzat ez gara gelditu atzera begiratzen, ni eta Rashid. Leherketa gertatu denean nire ondoan zegoen lotan eta ikaraz eskua eman diot korrika atera baino arinago. Ez dugu gauza handirik egin egun osoan. Gure familiak aurkitzen ibili gara, baina ez dugu arrakasta larregi izan.

Azken hitza

Ez dago hamaikagarren egunik gazte horientzat. Egun honetan lehergailu batek harrapatu ditu biak atsedena hartzen zeudela palmondo batzuen azpian. Tamalgarria da pentsatzea hain gaztea den jendea horrela hil beharra. Istorio hau edo antzekoak, gaur egun edozein tokitan sortzen diren gerra madarikatuen ondorioetariko bat besterik ez da, eta edozein egunkari edo notizietan agertzen diren horietakoa. Orrialde hauetan, agian egia den istorio bat kontatzen da. Nire ustez, pentsarazi egin beharko ligukeen zerbait da eta beharbada nire adineko hainbat eta hainbat gazte hiltzen dira gizonaren askogura, botere nahi edo handinahikeria dela medio, edonon sortarazten dituzten gerretan. **Munduan gerrarik ez !!**





Ibai Beristain Rezola - Batxilergoa 2. maila

*“Kirola egitea gustatzen zait
eta musika ere gogoko dut “*

ZER GERTATZEN DA?

Goizeko hamaikak puntuan jo dute. Ni ohean nago, eta zer nolako ajea dudan. Ez dakit nire buruan zer gertatzen den, baina lehertu egingo zaidalakoan nago. Ahal dudan moduan ohetik jaiki eta sukaldara joan naiz amari aspirina bat eskatzera. Ama ez dago, ezta aita ere. Non egongo ote dira? Gaur ez al da igandea ba? Euren logelara joan naiz ea han dauden, baina han ere ez dago inor. Berdin da, horrela etxe guztia dut niretzat bakarrik. Orduan gogoratu naiz Josurekin geratu nintzela hamaiketean. Dagoeneko berandu egin zait, hala ere, kalera joango naiz ea burua apur bat aireatzen zaidan.

Barkatu, uste dut ez naizela aurkeztu. Ni Agustin naiz, 18 urte ditut eta Bilboko institutu nagusian ikasten dut, bertakoa bainaiz.

Nire etxean dagoen panorama ez da oso ona, ama gaixorik dago, medikuek buruan tumore bat igarri diotela diote, eta aita bere lanaz baino ez da arduratzen, eta urteko ia aste guztiak atzerrian ematen ditu lan kontuak direla eta. Horregatik, etxean lagundu egin behar dut, eta ama zaindu. Bilboko auzo baztertu batean bizi gara, eta imajinatuko zenuenez ez dugu bizi kalitate oso ona, diru eskasiaz bizi baikara. Nire etxetik institutura joateko bizikleta hartu eta

kilometro pare bat egin behar izaten dut. Institutuan lagun asko ditut, baina nire koadrilako inork ez du institutoan ikasten, hobe esateko, nire koadrilako inork ez du ikasketarik, denak baikara auzo txiro berekoak.

Beno, uste dut nire bizitzaz nahikoa dakizuela eta harira bueltatuz, banindoan kalera eta atarian ohartu nintzen etxeko giltzak ahaztu nituela, baina ezingo nituen hartu ez baitzegoen inor etxean. Nire auzokideak bazuen gure etxeko giltzaren kopia bat, honelako kasuetarako bada-ezpada ere. Berari eskatu beharko nion, baina txirrina bost minutu luzez jotzen egon ondoren, hau ere etxean ez zegoela antzeman nuen. Oso arraroa iruditu zitzaidan, hau beti etxean egoten zen amonaxo bat zen eta. Beste ezer egin gabe, kalera irten nintzen.

Hamaikak eta hogeitabost ziren, parkera joan nintzen ea Josu hor zegoen. Parkera bidean sentsazio arraro bat zetorkidan burura, bakarrik egongo banintz moduan. Kaleak hutsik zeuden, ez zen arima bat bera ere kaletik ikusten, eta jadanik hamaikak eta erdiak ziren, hura bai gauza arraroa. Parkera iritsi nintzen, baina ez zegoen ez Josu, ez beste inor. Han geratu nintzen zigarrotxo bat erretzen ea norbait agertzen zen zain. Han ez zen inor ageri eta dagoeneko hamabiak ziren. Agian txabolan egongo zirela pentsatu nuen, oso eguraldi ona irten baitzen igande hartan.

Zer eginik gabeko asteburuetan txabolara joaten ginen. Txabolak zuen eragozpen bakarra, oso urruti zegoela, mendian gora zegoen bide batetik joanda, pinuz beteriko baso baten erdi-erdian zegoen. Txabola horretara koadrilakoak bakarrik joaten ginen, beste inork ezin zuen sartu. Bertan gure txokoa genuen sofak, mahaia, armairuak eta baita irratia eta musika entzuteko tresnak ere. Etxe bat zirudien.

Txabolara heldu nintzen eta ez zegoen inor. Behin haraino joanda, ez nintzen berriz behera jaisteko gogoekin aurkitu, beraz han geratu nintzen ea norbait agertzen zen itxaroten.

Hiru orduz itxaroten egon nintzen eta inor ez zen agertu. Hau ez da posible. Beste pixka batean egon ondoren herrirantz joatea erabaki nuen, bestela loak hartuko ninduen bertan eta.

Arraroa zen oso, baina herrira bidean ere ez nuen inor ikusi. Jakina da gure auzoan ez dela jende asko bizi, eta gehienak etxetik irteteko gai ere ez direla, baina pertsona bat bera ere ez zegoen. Ordurako pixka bat beldurtzen hasia nengoen "hemen zerbait ez doa ondo" pentsatu nuen. Joantxoren tabernarantz abiatu nintzen hau goizeko bederatzietatik herriko txikiteroez betea egoten zen eta. Gainera taberna hau beti irekitzen zuten. Joantxok ezin bazuen, bere emazteak, eta honek ere ezin bazuen semeren baten kargu uzten zuten. Ba hau ere, itxita zegoen. Ezin nuen sinetsi. Orduan bai benetan ikaratu nintzela Auzoko kale guztiak arakatu nituen ea arima izpiren bat aurkitzen nuen. Inor ere ez, ezta katu edo txakurrik ere. Dena zen isiltasuna.

Zer egin ez nekiela parkera joan nintzen eta erdiko bankuan eseri. Hemen buruari bueltaka hasi nintzen ea zer arraio gertatzen ote zen. Ez al nuen inor gehiago ikusiko? Denak hil ote

ziren ba bat-batean? Ni bakarrik geratzen al naiz mundu osoan? Nire buruak ez zuen ezer ulertzen.

Bat-batean itzal bat ikusi nuen nire aldamenetik. Eta baita mugimendu bat sumatu ere. Ikusi nuen lekura hurbildu nintzen baina ez zegoen ezer. Nire irudimena izango zela uste nuen. Buelta ematera nindoala berriz ere ikusi nuen itzala kalearen beste muturrean. Oraingo horretan ezin zen nire irudimena izan, benetan ikusi egin nuen eta bere atzetik lasterka hasi nintzen. Oso azkar zihonan, baina ez nuen bistatik galdu. Nonbaitera eraman nahi ninduela zirudien, zerbait jakinarazi nahi izango balit bezala. Etxe zahar batera iristean, gelditu egin zen eta lehendabiziko aldiz izan nuen itzal hura ongi ikusteko aukera. Itzal arraro bat zen, baina ez zen inorena ez zegoen han inor, baina zer da hau !!! Ni, harriturik, eta izuturik baita ere, buelta erdi eman eta eginiko bidetik abiatu nintzen azkar herrirantz, etxe zahar horri eta itzal hari susmo oso txarra hartzen bainien.

Bidea berriz ere egiten ari nintzela, bide gurutze batetan aurkitu nintzen, eta ez nekien zein bide hartu behar nuen ez bainintzen lehen egindako bidearekin gogoratzen. Azkar aukeratu behar izan nuen atzera begiratu nuenean itzala oraindik jarraika nuela antzeman bainuen, eta ezkerreko bidetik joan nintzen honek itxura hobeagoa baitzuen. Bidea jarraitu nuen hamabost minutu inguruan, eta berriz ere bide gurutze hartan agertu nintzen. Hau izan zen guztiz beldurtzen hasi nintzen uea. Beste bideari ekin nion ea zorte apur batekin herrira heltzen nintzen, baina ez, ez zen horrela izan. Mendi baten aurrean agertu nintzen izugarritzko mendi garaia, ez zen bere garaiera norainokoa zen ere ikusten. Eta hau oso arraroa zen, bizi nintzen lekuaren inguruetan ez baitago mendi txikienik ere. Bidea hor amaitzen zen, bi aukera nituen, atzerantz bueltatu eta etxe zahar hartara bueltatzea, edo mendian barrena zihonan bideska mehe batetik jarraitzea.

Bigarren hau aukeratu nuen, gehienbat jakinminagatik, eta ez dakit zerk, baina zerbaitek hara erakartzen ninduen, oso tunel bitxia ematen baitzuen, oso argi distiratsua zuen. Hain argitsua zen, non sartu nintzanean ez bainuen ezer ikusten, itsuturik banengo bezala. Argi hark ez zidan ezer ikusten uzten. Ni gelditu egin nintzen une batez, baina zerbait zegoen tunelaren barnera erakartzen ninduena eta ezin nuena kontrolatu. Nik nahi izan ez arren barrurantz eramaten ninduen indar misteriotsu batek. Azkenik, guztiz amore emanda, argizko amildegian behera murgildu nintzen. Amildegian behera nindoala gero eta lasaitasun eta bake handiagoa sentitzen nuen nire barnean.

Bai, bai, izpirituen munduan nago orain, hilda, paradisuan nago Eta ez naiz damutzen tunel hartara sartu izanaz.



Ane Miren Crespo Cuevas - Batxilergoa 2. maila
“Tempus fugit, Carpe diem”

...EZIN GOGORATU...

Goizeko seiak dira. Egunero bezala oilarraren kantuarekin batera itzartu naiz. Nork esango zidan niri? Oraindik gogoratzen dut gaztea nintzanean titi titi titi iratzargailuaren soinuarekin batera itzartu eta behin eta berriro errepikatzen nuenean : - Lan egiteari uzten diodanean goiz guztia ohean emango dut! Ja ja ja orain barre egiten dut. Zein tolesgabea nintzen! Egia da orain iratzargailuak jotzen ez duela, baina urteak pasatu ahala ez dut aparatu baten beharrik itzartzeko, nire gorputzaren hezur batek min egitearekin nahikoa da.

Gosaldu baino lehen goizeko hiru pastilak hartu behar ditut, gosaldutik baino lehen hartzen ditut gero hartzea erabakitzen badut inoiz ez ditudalako hartzen, ahaztu egiten zaidalako. Egia esan goizekoez gutxitan ahazten naiz, baina eguerdiko biak eta batez ere, gaueko hirurak hartzea gogoratzea gehiago kostatzen zait. Ez dakit zergatik, baina gero eta gehiago ahalegindu behar dut eguneroko gauzez akordatzeko; orain dela bi aste Joxe Mari hil zitzaidan, nire errua zela uste nuen, hiru astetan jatekorik eta urik eman ez niolako, oso txarto pasatu nuen bera baitzen nire konpainia bakarra, baina gero txarto sentitzeari utzi nion, Joxe Marik gosea bazuen alpilestea eskatzen zuela pentsatu nuelako beti bezala pioka eskatzen zidan bezala, beraz, Joxe Marik bere ordua zela pentsatu zuen nik bezala monotonia honetaz aspertuta egongo baitzen.

Horrela da bai, gauzak egitea ahazten zait, baina ni ez nago kezkatuta Joxe Mariri gertatutakoa gertatu ahal zaidala eta, Maria arduratzen baita horretaz. Gehienez bi egun pasatuko nituzke jan gabe, Maria astean zehar hiru egunetan etortzen baita ni bisitatzerako eta jatekoa

prestatu eta ematen dit baita batere gustatzen ez zaizkidan hiru injekzioak ere. Maria nire erizaina da, 35 urte inguruko emakume oso liraina, ile beltz luzea gaua bezain iluna eta azal zuri-zuria nire ilea bezalakoa, bere eskuak hain dira suabeak eta zimurrik gabeak... horregatik uzten diot hiru injekzioak ematen eta berak badaki hori, batzuetan injekzioak emateari ukatzean bere irribarrerik goxoena eskaintzen baitit. Gaur ez da etorri, bihar etortzea tokatzen zaio eta.

Atzo telebista ikusten pasatu nuen arratsaldea, telebistarekin batera irratia ere piztuta izaten dut. Nahiz eta etxetik ateratzen ez naizen nire butakatik bada ere, munduan zer gertatzen den jakitea gustatzen zait. Hori eta aparatu hauek zarata egiten dutenez, etxean jende gehiago dagoela ematen du eta isiltasuna eta bakardadea gutxiago somatzen dira horrela.

Telebistan albisteak eta eguraldia ikusi nituen, eguraldia ematen duen gizona ez zait gustatzen, ez du inoiz asmatzen, gaur ere euria egingo zuela esan zuen eta ez dago lainorik, baina ez nau harritu, atzo leihotik begiratu nuen eta zerua izarrez beterik zegoen. Hala ere, ez nuen eguraldia ematen duen gizonari abisatzeko denborarik izan, beno, denbora eza edo ahaztu egin zitzaidala, ez dut gogoratzen. Beranduago Afrikan bizi diren oso kolore bizia duten txori batzuei buruzko dokumental bat eman zuten. Harrigarria zen txorien arteko komunikazioa, gehienak gorri eta urdinak ziren ala berde eta horiak? Ez nago ziur, baina oso politak zirela gogoratzen dut. Dokumentala ikusten nengoela Joxe Mari etorri zitzaidan burura eta pena sentitu nuen, baina gero leihotik begiratzen jarri nintzen eta bikote bat musukatzen ikusi nuen eta Joxe Mari ahaztu zitzaidan, ondoren ohera joan eta ezer pentsatzeko astirik izan baino lehen lo geratu nintzen.

Gaur ohetik altxatzea asko kostatu zait, ezkerreko belaunak izugarritzko mina egiten baitzidan, horregatik jakin dut gaur euria zela ohetik altxatu baino lehen, belaunak min egiten didan gehienetan euria izaten delako. Erizainak esan zidan hezetasuna zela erruduna eta nik sinestu egiten diot; gainera, eskuineko eskua beltzuz beterik daukat, ezkerreko hankak min egiten didanean ezkerreko eskuarekin ahal dudana gogorren heltzen diot eskuineko eskuari eta beltzuek ateratzen zaizkit hori zirkulazioa txarto dudalako dela esan dit Mariak eta horretan ere arrazoia izango du. Maria beranduago etorri da gaur eta berarekin haserretu naiz, ez naiz berarekin haserretu berandu etorri delako baizik eta zaharren egoitza batera joatea komenitzen zaidala uste duelako. Joxe Mari ez dagoela ohartu da eta nik gertatutakoa kontatu diot. Azken egunetan gaueko pastilak hartzea ahaztu zaidala ere konturatu da eta atzo egun osoan ezer ez nuela jan ikustean esan dit ez naizela nire burua zaintzeko gai, nik baietz esan diot, ez dut nahi zaharren egoitza batera joan, nire etxean gustura nago hainbat urte bizi izan naiz etxe berdinean eta argi daukat horrela izango dela hiltzen naizen arte, burua galtzen ez badut, behintzat.

Leihotik begiratzea dut gustuko, nire etxe aurrean dagoen parkeari begiratzen orduak eman ditzaket. Egunez neska mutil txikiak aritzen dira jolasean eta haiei begiratzea gustatzen zait beraiek duten energiak eta inozentziak liluratu egiten nauelako; gauean, aldiz, bikoteak izaten dira bata besteari maitasuna agertzen eta leihoa irekitzean beraien algarak entzun ditzaket. Eta inbidia sentitzen dut. Rosa gogoraztea eragiten didate eta, Rosa da nire bizitzako emakumea. Ez zen nire andrea izatera ailegatu, beste emakume batekin ezkondu nintzen, hala ere, nire bihotza beti Rosarena izan da. Eguneroko gauzez ahazten banaiz ere, gaztetako oroitzapenak fresko ditut memorian.

Rosa ezagutu nuen eguna egunero etortzen zait burura: nire aitaren dendara etorri zenean bere soineko loradunarekin, bere ile luze eta beltza Mariarena baino politagoa, bere ezpain fin eta gorri- gorriekin, baina batez ere bere begi berdeak argitasunez beteak eta guztiz biziak harritu ninduten. Bere aitarentzako torlojoa eskatu zidanean nire bihotzak milaka taupada ematen zituen segundoko, bere ahotsa musika klasikoa entzutea baino atseginagoa zen.

Rosa dendara etorri eta hurrengo hiru gauak berarekin amesten eman nituen, berriz ere, dendara itzuli zen arte. Gutxinaka lagunak bilakatu ginen eta arratsaldeetan hondartzatik paseoak emateko gelditzen ginen, bikotea izatera ailegatu ginen arte. Gazteak ginen, eta bion artean etorkizunerako proiektuak egitea gustatzen zitzaigun. Berak eman zidan lehen musua, bizi osoko musurik goxoena eta berari eman nizkion eman ditudan maitasunezko musu bakarrak. Maitemindu nintzen lehen aldia izan zen, lehena eta azkena egia esateko, eta diotenez lehen aldiak ez dira inoiz ahazten.

Rosak eragiten zidan bizi osoan inork berriz eragin ez didan irribarrerik goxoena eskaintzea, berarekin orduak hegaz egiten zuten izan dudana ametsik politena baino hobea zen; baina amets polit guztiek bezala ez zuen betirako iraun.

Rosak istripua izan zuen eta hil egin zen, horrela bukatu zen nire ametsik politena eta agertu nire baitan betirako iraun errealtate gogorra: Rosarik gabeko bizitza. Istripua eta hurrengoko urteetan izugarritzko depresioa izan nuen, neuk ere Rosarekin joatea pentsatzen nuen eta istripuaren gau hartan berarekin kotxean joan ez izanak izugarritzko amorrua ematen zidan eta ematen dit, oraindik ere gogoratzean mina da nire jabe, Gorputzeko hezur guztiak min egiten badidate ere ez da ezer bihotzarenarekin konparatuz.

Urteak joan ahala Kristina ezagutu nuen, ezagutu dudana emakumerik bihotz onenekoa. Rosaren ausentzia inoiz bete ez bazuen ere emakume horri asko eskertu behar diot. Nirekin eman zituen urte guztietan pare bat urtera arte, hil zen egunera arte, dena eman zuen nigatik. Hala ere, benetan maitasuna emango zion gizon bat merezi zuela pentsatzen jarraitzen dut, nik ez nion eman berak merezi zuena. Ez maitasuna, ez berak hainbeste desiatzen zituen seme-alabak. Egia esan, orain damutu egiten naiz seme alabak ez izateaz, beraien presentziak aldatu egingo lukeelako bizi naizen bakardade hau. Maitemintzea gertatu daitekeen gauzarik politena da, sentitu dezakegun zentziorik onena, baina behartu ezin dezakeguna eta sentitzea hain erreza ez dena.

Pastilak hartu behar ditut. Egurdikoak ala gauekoak??Ez dut gogoratzen zeintzuk hartu behar ditudan eta zeintzuk hartu ditudan ere ez. Txoriak gustatzen zaizkit, bat edukitzea gustatuko litzaidake. Telebista ikustea ere gustuko dut, arratsaldeetan batez ere. Maria izeneko neska oso lirain bat bisitatzerako etorri zait, ez dut gogoratzen nor den, baina atsegina izan da. Etxe berria ez dago hain txarto, jende ugari bizi da bertan, baina denak dira zahar eta aspergarriak.

Rosa faltan botatzen dut,bera bai gogoratzen dudala.



Asier Ordorika - Batxilergoa 2. maila

*“Pausuak pixkanaka emanez urratsez urrats
egingo dut bizian aurrera”*

ZORTEAREN ZORITXARRA

Uda heldu zen, azterketa guztiak gainditu eta dibertitzeko garaia heldu zen. Zerbait dibertigarria egiteko gogoia genuen denok eta aste batetako oporraldi bat egiteko ideia sortu zen gure koadrilan

- Beno, oporretan gaude eta zerbait egin behar dugu udan ez aspertzeko, ze bestela ... jai dugu.
- Zergatik ez dugu aste bateko irteera bat antolatzen? -Esan zuen Mikelek.
- Bai, ideia ona da, zergatik ez? -esan zuen Jonek.
- Ideia ona bai, baina nora joango gara ez daukagu autobusa pagatzeko dirurik ere eta. -erantzun zuen Maitek.
- Dirua lortzeko zerbait egin behar dugu, baina zer?- gehitu zuen Gotzonek.
- Eta zergatik ez gara lanen bat bilatzen hasten? -esan nuen nik.

Beti gertatzen da gauza bera nire koadrilan, diru falta. Gainera ezin gara beti gurasoei diru eske ibili.

Lana bilatzearena ideia oso ona zen, baina, non? nola? oso zail ikusten genuen ideia hori. Zerbait hobeagoa behar genuen, denbora gutxitan diru asko ateratzeko, baina guk bagenekien hori ezinezkoa zela.

- Eta zergatik ez dugu kiniela bat egiten, badakit oso zaila dela tokatzea, baina behin saiatzearen ez da ezer gertatzen ezta?
- Kiniela? Baina zer diozu, hori dirua alferrik botatzea da, ez esan tontakeriarik,
- Baina zergatik ez, ez du askorik kostatzen eta tokatu ezkerero...
- Ez esan tontakeriarik, hori ezinezkoa da! Ez zait ideia ona iruditzen, baina nahi baduzue behin egiteagatik, ez da ezer pasatzen, ea zer gertatzen den.

Ostiral arratsaldea zen, aste osoa eztabaidatzen ibili eta gero kiniela egitera joan ginen. Guk bagenekien kiniela asmatzeko probabilitatea ia hutsa zela, baina ilusio handiarekin kiniela hartu eta betetzen hasi ginen

- Athletik-Bartzelona, zer 1 ala X ?
- Nik 1 jarriko nuke, baina Bartzelona oso ondo dabil azken aldi honetan eta... ez dakit.
- Baina nola jar dezakezu gure taldea zalantzan? Jarri 1 baina seguru gainera.
- Beno ba, ez nago hain seguru, baina beno, kasu egingo dizut.
- Eta Real Sociedad- Valentzia?
- Jarri 2, Errealak ez du irabazteko aukerarik Valentziaren aurka.

Horrela ba, kiniela osotu genuen eta denok dirua jarriz bota genuen ba ditxosozko kiniela hura.

Bitartean gure koadrilan ilusioak egiten hasi ginen, guk bagenekien ilusio eta amets guzti haiek ez zirela egia bihurtuko. Arinago ere jokatu izan genuen kinielan, inoiz ez zitzaigun zentimo bakar bat ere tokatu, baina zergatik ez orainoan? Guk gure desioekin jarraitzen genuen:

- Tokatuz gero, lehenengo gauza egingo duguna bidaia antolatzearena izango da, eta gero gerokoak. Gero jairik jai ibiliko gara Euskal Herri osoan zehar.
- Nik motor berri bat erosiko dut.
- Nik berriz, gitarra elektriko berri bat.
- Eta nik nire familiakoei opari piloa egingo diet.

Batzuek motorra, beste batzuek berriz gitarra berria, dena zen gure irudimenaren eta gure fantasiaren lekuko.

Ez genuen zortean konfiantza handirik, ez genuen askorik sinesten zortearen botere handi hartan, baina zergatik kendu ilusioa ?.

Askotan agertu izan ohi dira albistegietan... loteria tokatu zaien pertsonak, batez ere jende askok jokatzeko duen Gabonetako loteria hartan, denak poz pozik, denak alai eta irribarretsu. Baina, egia ote da telebistak erakusten diguna? Egia al da hainbeste eta hainbeste milioi tokatzearena?

Guk behintzat ez genekien guzti hori egia ote zen, bakarrik loteria tokatuz gero denok pozik eta alai egongo ginatekeela telebistan agertzen diren pertsona horiek bezala.

Hurrengo egunean, zapatuan, jardunaldi hartako lehenengo bi partidua jokatu ziren, bata Athletik-Bartzelona eta bestea Osasuna-Real Madrid. Athetikek jokatzeko gau hartan eta horrela ba, koadrila guztia tabernara joan ginen gure taldea animatzera eta bide batez ea kinielako lehen partidua asmatzen genuen ikustera.

Partidua banako berdinketarekin heldu zen atsedena dirira, gu gure artean diskutitzen hasi ginen jada.

- Esan nizun nik X jartzeko kinielan, kasu egin izan bazenidaten ia-ia partidu hau asmatuta edukiko genuen.
- Lasai, lasai, oraindik ez da amaitu eta amaitzen denean esango didazu ea ondo egin genuen 1 jartzean ala ez.
- Beno, beno arrazoi duzu, baina galtzen badu zure kulpaz izango da kiniela ez asmatzearena.
- Itxaron pixka batean.

Partidua 2-1-eko emaitzarekin amaitu zen, kinielako emaitzarekin bat zetorren eta Mikel aho bete hortz geratu zen zer esan ez zekiela. Zapatu hartako beste partidua ere asmatu zuten, Osasunak irabazi egin zuen eta jada bi ziren asmatutako emaitzak.

Azkeneko bi partidu gelditzen ziren jardunaldia bukatzeko eta harritzekoa bazen ere 14 partidutik 12 genituen asmatuta. Harrigarria zirudien hark, premio handiena irabazteko bi partidu besterik ez ziren geratzen eta batzuk jada hasiak ginen ea zer edo nora joango ginen ziurrenik irabaziko genuen dirutza ikaragarri harekin.

Azkeneko partidua besterik ez zen geratzen eta irratiz jarraitu zuten neurketa hura, R.Sociedad-Valentzia zen, kinielan 2-a jarri zuten eta horrela zihoan partida 1-2 Valentziaren alde, bost minutu besterik ez ziren geratzen partidua bukatzeko eta partidu hura horrela bukatuz gero dirutza ederra jasoko zuten gazteek.

- Amaitu da! Aberatsak gara! Oihukatu zuen Jonek.
- Gure ametsetako bidaia egingo dugu! Esan zuen Mikelek.
- Azkenean, suertea gure alde izan da.
- Bai, nork esango zuen orain dela egun batzuk aberatsak izango ginela, eta dena zure ideiarengatik Jon, onena zara! Gora zu!
- Eskerrik asko baina hau talde lan bat izan da, denok kolaboratu dugu honetan.
- Egia da, gora gu eta gutarrak!!
- Goazen hau ospatzera, gaurkoan nik ordaintzen dut. Eta bihar hemen poltsikoan dudana kiniela kobratzera lagunok!

Jonek eskua sartu zuen poltsikoan kiniela besteei erakustekotan eta bat-batean zurbil geratu zen, harridura aurpegia baino kezkatuagoarekin isilik geratu zen.

- Zer gertatzen zaizu Jon? Zergatik aurpegi hori?
- Kiniela, kiniela! Non dago kiniela!

- Zeeer! Ez didazu esango kiniela galdu egin duzula, ezta?
- Ez dut aurkitzen! GALDU EGIN DUT!
- Nolaaaa! Galdu egin duzula?
- Ba... bai. Ez dut aurkitzen eta
- Zeeer! Etorri hona, txikitu egingo zaitut eta etorri honaaa!!
- Denok dugu hanka-sartzeren bat ez!
- Hanka-sartzea, hanka-sartzea diozu! Bi milioi euroko hanka sartzea!! Hori ez da hanka-sartzea hori.... etorri hona, apurtu egin behar zaitut eta, edo hanka hemendik, aurpegia nik txikitu baino lehen.

Denek uste zuten aberatsak zirela, diru asko, zoriontasuna... azken batean telebistan agertzen diren pertsona aberats horiek bezala, loteria tokatu eta inor baino zoriontsuagoak ematen duten pertsona horiek bezala.

Hala ere istorio honetako pertsonaiek ez dute zortea bere alde izan, guztiz kontrakoa, edo agian bai, nork daki telebistan agertzen diren pertsona zoriontsu eta alai horiek diruditen bezain zoriontsuak diren?. Hainbeste diru zertarako? Dirua, dirua da gaur egungo gizarteak duen arazo larrienetarikoa, diru asko izan ez arren ere, izan daiteke zoriontsu pertsona bat, kontuan hartu behar dira pobrezian bizi den jende guztia, jende hau gutxiarekin ere konformatzen da eta ez jende aberatsa bezala, asko daukate eta gehiagoren bila dabilta. Zoriontsuak al dira pertsona hauek? Nik ez dut uste behintzat.



Ainhoa Madariaga Urrutia - Batxilergoa 2. maila

*“Lagunak izarrak bezalakoak dira,
zerua zenbat eta ilunago haiek disdiratsuago”*

ARROSA NAIZ, ARROSA DUT MAITE

Parisen, 1987ko martxoaren 12an

Kaixo egunkari, gaur erosi zaitut, nonbaiten adierazi behar baititut nire sentimenduak, azkenaldian nire bizitza asko aldatu da eta lagun baten beharra dut. Lehendabizi aurkeztu egingo naiz, Gorka deitzen naiz eta 25urteko Gernikar bat naiz. Txikitatik argi nuen ikasiko nuena, diseinadorea izango nintzen, lehen euskalduna Pariseko “Haute Couture”-an, bai hori izango nintzen ni, eta banekien lortuko nuela, ez nekiena ordea, gela hartan zegoen inork baino izerdi gehiago bota behar izango nuela. Zortzi urte nituela hasi zen dena, nagusitan zer izan nahi nuen galdetu zidanean irakasleak. Gelakideek betiko erantzunak eman zituzten, Ainara antzezlea izango zen, Regina dantzaria, Ane, ordea, medikua, Morgako mutil morroskoak militarra izan nahi zuen... nire txanda heltzerakoan, eta Pariseko “Haute Couture”-aren errege izan nahi nuela eta ospetsu guztiak nire markako arrokekin jaztea nahi nuela esaterakoan, bat batean denak barrezka hasi ziren, irakaslea barne. Hortik aurrera, mutilak adarra jotzen hasi ziren, maritxu, atzelari, marikoi... deitzen, baina niri bost axola. Nik jaramonik ez egiteak gehiago haserretzen zituen eta beste bide batzuk aurkitzen saiatu ziren min emateko.

Nire gaztaroa ere arazoz josita egon zen, ez nekien nor, zer nintzen, nortaz fidatu... Lagun bakarra nuen, Josune, eta oraindik ere nire bihotzaren barnean dago, askotan neguko egun hotzetan, estudioko bakardadean, izan genuen adiskidetasun hain politaz gogoratzen naiz, batzuetan nahi gabe begiek malko bat isuritzen dute, gutxika-gutxika itzaltzen ari zenean ez bainintzen bere ondoan izan. Droga madarikatua... Desberdina nintzela argi nuen, ez nintzen futboleko baino pentsatzen ez zuen mutiletakoa, sentsibilitate desberdina nuen, eta beharbada horregatik edo nire itxura erakargarri eta xarmangarriagatik, oraindik ere ez dakit, inork baino arrakasta handiagoa nuen neska artean. Eta horrek beste mutil asko nire kontra jarri zituen. Neska askorekin ibili nintzen, baina ez zidan batek ere ez benetan erakartzen, ez nuen ezer sentitzen, batekin uzten nuenean aste baten buruan beste batekin ibiltzen nintzen, niretzat jolas bat baino ez zen, ez nintzen konturatzen min ematen nuela. Pertsonalitate krisi asko izan nituen, baina, halako baten konturatu nintzen, -MUTILAK DITUT GUSTUKO!!

Hortik aurrera nire bizitza guztiz aldatu zen. Baina, nola esan, nola ulertarazi gurasoei, amonari, Josuneri... Pausua eman nuen, gurasoek psikologo batengana eramanez ninduten, gaixorik nengoela uste baitzuten, gainera amak depresioak izan zituen nire kondizio sexuala dela eta ez dela, Josunek ez zidan sinesten hasieran eta gero lepoa eman zidan, ez diot errurik egotzen, beste garai batzuk ziren... Eta amonak, eskerrak amonari oraintxe hemen egotea, nire buruaz beste ez egin izana, dena zor diot amonari, inork baino hobeto ulertzen zidan eta inork baino gehiago lagundu zidan nire bizitzako etapa ilun, beltz hartan.

Parisen, 1987ko martxoaren 13an

Kaixo! Gaurko eguna izan ditudan artean gogorrenetarikoa izan da, azalduko dizut beste baten, orain nire istorioarekin jarraituko dut, atzo ez bainuen amaitu. Nire gurasoek ez zuten nahi ogibide artistiko bat izatea, beraz, komertzio ikasketak burutzen hasi nintzen Bilbon. Bi urte beranduago Italiako joskintza etxe batera joan nintzen stage bat egitera, benetan zoriontsu nintzen diseinu egileen artean, modeloak, ibiltokiak... Ezin dut deskribatu mundu hartan sentitzen nuen zirrara. Izugarri maite nuen dena, lekua, Italiar gauak, eta batez ere jendea, beraien izaera irekia, inork baino sutuagoak ziren Italiar mutilak ohean... Baina komertzio saila ez nuen hain gustuko, beraz, dena utzi nuen. Gurasoek ez zidaten gehiago hitz egin urte askotan, ezta diru gehiago eman ikasketak amaitzeko. Parisera joan nintzen nire arropa guztiak makutu baten sartuta eta aurrezki guztiak poltsikoan nituela.

Apartamentu bat alokatu nuen atzerritar Errumaniar batekin eta berak aurkitu zidan lan bat eraikuntza arloan. Benetan nekagarria, baita gogorra ere, baina oso ondo ordaintzen didate, goizeko lehen orduetatik arratsaldera jardut bertan. Gauez, ordea, diseinu klaseak ditut, lo egiteko denbora gutxi izateak ez dit kezkatzen. “Design et Haute Couture” delakoan espezializatzen ari naiz, lagunek diotenez, “prêt à porter” egin behar izan nuen, langabezia gutxiago baitago eta errazagoa baita bertan izen bat egitea. Baina ideiak argi dituzten horietakoa naiz ni, eta ez nuen iritzia aldatu, askotan damutu banaiz ere. Klase orduetan inguruko guztiarekin deskonektatu eta nire munduan sartzen naiz, lan eta lan. Gaueko klaseetan pentsatzeak hurrengo goizean esnatzeko kemena ematen dit. Asteburuetan ordea, txandakatu egiten ditut ikasketak eta juerga (ez diot inoiz euskaldun izateari utzi, eta beraz gehienon

moduan ezin dut jairik gabe bizi, nire herrikoak desberdinak badira ere...!). Hilean bi asteburu atsedena hartzeko eta diseinuan lan egiteko erabiltzen ditut eta beste bi taberna eta diskoteka gay batetik bestera, mutil gazteak ezagutzen. Inoiz baino erlazio gehiago izan ditut azken urteetan, irtetan naizen bakoitzean, salbuespenak salbuespen, sexu harremanak ditut. Baina oraindik ere ez dut ezagutu nire bihotza betetzen duenik, momentuko plazerra soilik... Pariseko gau eroetan ospetsu egiten ari naiz... eta hori mesedegarria da niretzat, nire ogibiderako. Espero dut fama ona izatea, edonorekin oheratuko nintzen nire lanbidean gora egiteko, hori aldarrikatzeak ez dit inolako lotsarik ematen.

Parisen, 1987ko martxoaren 14an

Kezkatuta nago, diseinu ikasketak ia amaitu ditut, eta amaierako desfilea hile bete barru da, nire esku dago dena: modelo hautaketa, arropen diseinua, jostea eta baita eszenatokia apaintzea ere... Espektakulua eman behar dut, bestela inor ez da ohartuko hor nagoela eta beste guztien bezala amaituko dut, tailertxo ilun bateko langilea izaten. Propaganda beharrezko dut, prentsa... Hau buruhaustea!! Nire azken aukera da mundu honetan izen bat egiteko. Famatu ez izanda prentsa ez dator zure desfilea ikusten, eta prentsa ez badator agur bezeroak, ez didate ezer erosiko Parisko modan izen bat izan arte, hor dago leloa. Beno, orain ez naiz arduratuko horretaz,

InSpIrAzIoA BEHAR DUT!!!!

Pasadan larunbateko lige berriari deitu eta azokara joango naiz, urduri nagoen bakoitzean zerbait erosteak lasaitu egiten nau. Beno, ez, bakarrik joango naiz...

Parisen, 1987ko martxoaren 14an

Ez didazu sinetsiko!! Uste nuen hau Ameriketako pelikuletan baino ez zela gertatzen... Bigarren eskuko denda baten oso merke aurkitu dut setazko jake bat eta gero desfilerako oihal batzuk erostera joan naiz. Etxean nengoela txamarran zerbait arraroa somatu dut, forroa ireki hara aurkitu dudana:

Parisen, Rue Royale7, 1980ko urtarrilaren 12an

Ez dakit bizirik irtengo naizen, ez dakit inoiz, norbaitek gutun hau aurkituko duen, hala ere saiatu egingo naiz, Mathilde Sabourin naiz Pierre Sabourin margolari famatuaren alaba bakarra. 18urte nituela ezkondu nintzen, guztiz maiteminduta gizon bihozgabe, krudel eta anker batekin, Jean Dupontreue. Ez zen famili on batekoa, ezta lar galanta ere, zuen erakargarritasun bakarra bere hitz-jarioa zen. Aita ez zegoen ados ezkontzarekin, hala ere nik ez nion entzuten. Urte gutxiren buruan hil zen, aberastasun guztiak niretzat utziz: Pariseko eta Miarritzeko jauregiak, artelanak... Ez nintzen haurdun geratzen, eta etxea bizitasunik gabe zegoela eta, bere iloba ekarri genuen gurekin bizitzera. Oso erlazio arraroa zuten, lehen momentutik susmatu nuen, hala ere, ez nuen ezer egin. Nire familiarekin hitz egitea guztiz debekatu zidaten. Janaria pozoitzen ari zirela jabetu nintzen, askariko opiltxoan bolatxo urdinak nabarmetzen baitziren, baina, lar berandu zen, ezin izan nion inori esan inkomunikaturik

bainengoen, ezin nintzen logelatik irten, ezinezkoa zitzaidan ohetik altxatzea eta hitz egitea asko kostatzen zitzaidan, indarrrik gabe nengoan. Hasieran, egiten ari zirena nire onerako zela uste nuen, oso gaixorik nengoela sinestarazi zidaten. Konturatu naiz gezurra izan zela, berandu bada ere. Beharbada, egiten dudana azkena gutun hau idaztea da, norbaitek aurkitzen badu, erregutzen diot poliziara eramatea, nire hiltzaileak egindakoagatik ordaintzea. Bestalde, nire lehengusu Paulen semearentzat, Pierre Sabourine, nahi dut izatea nire ondasun eta jabetza guztiak, bera izan baita nitaz arduratu den bakarra, benetan maite izan nauen bakarra. Ez dakit oraindik nola aterako dudana gutuna etxe madarikatu honetatik, hala ere aurkitzen duenak, mesedez, lagun diezadala. Berriz ere eskerrak emanez:

MATHILDE

Harrituta, txundituta gelditu nintzen, gutuna irakurtzerakoan. Hasieran pentsatu nuen, ez nago ni txorakerietarako, norbaitek zirra sartu nahi dit. Beharbada, ikaskide bat... Baina nork? Gero, konturatu nintzen ezinezkoa zela, nola jakingo zuen nire lagunak batek domeketako azokara joango nintzela, nola jakingo zuen denda hartara sartuko nintzela, nola jakingo zuen txamarrak arrosa erosiko nuela eta nola jakingo zuen konturatuko nintzela zerbait susmagarria zegoela forro barruan? Beraz, hau dena uste izana baino serioagoa delaren konklusiora heldu naiz, ikertu egin behar dut poliziara joan aurretik...

Parisen, 1987ko martxoaren 14an

Arratsalde osoa liburutegi publikoan eman dut, internetean begiratzean, Mathilderen aitari buruzko datu asko agertzen ziren, obrak, bizitza... nahiko interesgarriak, alabari buruzko aipamenak ere bazeuden, baina ezin izan dut ezer aurkitu bere heriotzari zegokionik. Hori dela eta, garaiko egunkari guztiak begiratu ditut, orduak eta orduak eman ditut Sabourin familiari buruzko aipamenik aurkitzen ez nuela. Baina azkenean han zegoen, AURKITU NUEN!! Hura bai poza, hura bai alaitasuna... Egunkariko hirugarren orrian zegoen, beraz emakume garrantzitsua izan behar izan zen. Bere hiletari buruz hitz egiten zuen, inguruko jende ospetsu gehiena joan zen eta argazki bat ere bazegoen, azpian Jaques Dupontrieu, senarra eta bere iloba negar baten, zioen. Madarikatuak! Antzezleak! Ez daukate lotsarik!

Parisen, 1987ko martxoaren 15ean

Gaur ezin izan naiz liburutegira joan, ez dut denborarik izan, hala ere gutunean jartzen zuen helbidera joan naiz, eraikuntzetako lana arinago bukatu baitugu gaur. Ez dut ezer susmagarrikerik ikusi, etxea benetan polita zen, ondo zaindua, lorategi ederrarekin, hurrengoan hobeto zelatatu behar dut.

Ez naiz diseinuko lanarekin kontzentratu, arreta emakumearen hilketarekin joaten zitzaidan. Irakasleak ere galdetu dit ea zer gertatzen zitzaidan, guzti hau amaitu egin behar da, bihar goizean eguna libre hartuko dut eta Mathilde Sabourinen etxera joango naiz, ez naiz bertatik irtengo zerbait jakin arte.

Parisen, 1987ko martxoaren 15ean

Banekien! Zerbait arraroa dago bertan! Etxe aurreko jarlekuan eseri naiz eta egunkaria

irakurtzen nengoelaren itxurak egin ditut. Gizon bat irten da, segur aski Jean Dupontreue izango zen, kalkulatzan nuen adina zuen, nahiko zaharra, bizar zuria eta guzti, ez zen itsusia, ezta galanta ere, baina bazuen zerbait erakargarria, nire ondotik igarotzean bere begi grisek disdira berezi bat zutela somatu nuen. Ordu batzuk beranduago emakume bat irten zen etxetik, nabarmen gazteagoa, iloba izan zitekeen, maltzur aurpegia zuen.

Beraz, etxea libre egon zitekeenez txirrina jo eta neskamea irten zen. Lehenengo distrituko udalaren izenean netorrela azaldu nion, errolda egiten ari ginela eta galdera batzuk egin behar nizkiola, emakumeak barrura joaten utzi zidan, mamala halakoa... Etxea barrutik oso ondo apainduta zegoen, egongelara eraman ninduen. Gutxitan ikusi dut nik horrelako leku bat, kristalezko orban eder bat zegoen sabaian, beheko sua eta horren gainean ispilu bat, hormak berdez margotuta zeuden, azpildura horiekin, bat zetorrela sofa eta butakekin. Kafea nahi nuenentz galdetu zidan neskameak, ezetz esan, eta segidan galderak erantzuteari ekin zion. Zenbat denbora daraman etxe honetan galdetu nion eta 8 urte erantzun zidan, beraz Mathilde ezagutu behar zuela pentsatu nuen. Bitarte horretan etxe honetan nortzuk bizi ziren galdetu nion, baina ez zuen Mathilderik aipatu, eta horrek harritu egin ninduen. Etxearen jabea nor izan den erantzuterakoan bai ordea, baina ez zekien asko Mathilderi buruz, esan zidan ez urte batez bakarrik ezagutu zuen eta ez zuen inoiz ere ikusi, oso gaixorik baitzegoen, bere senarra eta iloba soilik joan zitezkeen bera ikustera. Hala ere, bere gauzak batzeaz bera arduratu zen, baita bere arropak elizan entregatzeaz ere. Baina orduan, etxeko andrea heldu zen, eta berarengana eraman ninduen. Mathildereren iloba ez zen batere ergela, ez, eta segidan identifikazioa eskatu zidan, udaleko kide nintzela baieztatzen zuen zerbait, eta ezer ez nuenez, kalera bota ninduen. Lar berandu izan zen, dena argi dago, denak du zentzua. Poliziarengana joango naiz bihar, ezin dut denbora gehiago galdu kontu honekin.

Parisen, 1987ko martxoaren 16an

Klasean gaur ere berdin aritu naiz, ezin lan eginik, nire bizitzako egunik garrantzitsuena heltzeko gutxi falta da eta ezin dut ondo antolatu, ez naiz gai sentitzen ezer behar den moduan egiteko. Eskerrak diseinu gehienak arinagotik prestatuta nituela, eta josteko orduan ez dut hain beste pentsatu behar, lan eta lan, baina eskuekin, ez buruarekin.

Parisen, 1987ko martxoaren 16an

Gaur poliziarengana joan naiz, laneko arropekin, eraikuntzetatik irteterakoan, ez baitut izan aldatzeko denborarik, korrika joan naiz, diseinuko klaseak gal ez ditzadan. Baina, ez didate jaramon egin, ni ez naiz inor, nik diodan ez du garrantzirik, ez du zentzurik, zoro bat naiz, nire txorakeriekin eta umeen kontuekin kanpora joateko esan didate. Ez dut inoiz ahaztuko, handik kanpora bota ninduten, ezer ez banintz bezala. Kasua utzi behar dut, beharbada arrazoia dute, umeen istorio bat da, bromaren bat, buruari bira larregi eman dizkiot, urrunegi eraman dut dena.

Parisen, 1987ko martxoaren 25ean

Ez dut ni baino pertsona burugorragorik ezagutzen, ez; beraz gaur ere Mathildereren

heriotzarekin gora eta behera jarraitu dut, interneten lanean nenbilela bere iloba, Pierren telefonoa aurkitu dut. Ez dakit deitu behar diodan ala ez, ez dakit nola erreakzionatuko duen, zer esango didan, hala ere saiatu egin behardut, bestela nire kontzientzian betirako kargu hau geratuko da, zerbait egin ahal izan nuen...

Parisen, 1987ko martxoaren 27an

Azkenean deitu egin diot, eta bere hildako izebari buruzko gai oso garrantzitsu batez hitz egin behar diodala esan diot, arratsaldeko bostetan ikusiko dugu elkar Les Hallesen. Ez dakit zer esango diodan!! URDURI NAGO...

Parisen, 1987ko martxoaren 28an

Nire ametsetako mutila da, beraren moduko bat aurkitzen nuela amesten nuen, berarekin amesten dut, berarekin amets egingo dut gauero, betirako, ez dago bera baino gauza perfektuagorik. Uste dut maiteminduta nagoela, denetarik dauka, alde batetik, oso xarmanta da, baina baita azkarra ere. Arte ikasketak burutzen ari da eta horrek ere morboa ematen dio.

Ez dakit nola azaldu, oso irribarre espeziala du, ahoa irekitzen duen bakoitzean aurpegi osoak disdira egiten dio. Baina, mutilak izango ditu gustuko ala neskak? Nola jakin? Berarekin hitz egin dut, gutunarena azaldu diot baita erakutsi ere. Harrituta gelditu da, txundituta, ezin zuen sinetsi.

Beti izan zuen erlazio oso ona bere izebarekin, bere kutuna izan ohi zen, uda guztiak berarekin igarotzen zituen, denetan laguntzen zion. Baina, ezkontzean dena aldatu zen, geroz eta gutxiago ikusten hasi ziren eta, azkenean, ezer. Azken urteetan bere senarrak ez zien uzten bisitatzen, arrazoirik eman gabe. Bere telefono deiak erantzuteari utzi zion.

Poliziarengana laguntzeko erregutu dit, baina ez dakit zer egingo dudan, berriz ere errefusatuko baitidate, berriz ere atearekin muzturretan joko baitidate, berriz ere nitaz barre egingo baitute. Baina, beste alde batetik ezin diot bakarrik utzi arriskuaren aurrean. Gainera, berriz ikusi nahi dut, berarekin egoteko aukera aparta da eta ezin dut nire beldurrak direla eta ez direla galdu.

Parisen, 1987ko martxoaren 29an

Gaur polizi-etxera joan gara, azkenean laguntzea erabaki dut, unibertsitate aurrean itxaron diot lanetik irteterakoan, baina oraingoan arropaz aldatu naiz eta txukun-txukun jarri naiz edonor naizela pentsa ez dezaten. Komisarioak arretaz entzun digu, INTERESATU EGIN DA!, karta aztertzea eraman du departamentuko kaligrafo batengana, idazkera benetan berena den ala ez jakiteko. Bestalde, gorpua hilerritik ateratzea eta aztertzea agindu du, pozoi arrastorik ez badago, akabo. Zerbait dakienean Pierri deituko dio.

Pierre ni baino gaztetxoagoa izan arren, hitz egitean heldutasun handia erakusten du, benetan mutiko gurlaria dela ere konturatu naiz, nahi duena lortu arte borrokatu egiten du

betiere lasaitasuna galdu gabe. Gainera, oso pertsona irekia da, berbatia, maitagarria, alai... Saiatu naiz, gogoz gainera, jo ta ke aritu naiz nire buru barnetik kentzen, baina ezin dut, maiteminduta egongo ote naiz?
Baina, Zer da maitasuna?
Une batean sentitzen dudana
ala betirako sentimendu bat?
Bere irrian aurkitzen dudana poza
ala urruti dagoenean sentitzen dudana tristura?
Eta non dago maitasuna?
nire buruan ala nire bihotzean?

Parisen, 1987ko martxoaren 31n

Gaur gauean benetan ondo egin dut lan, Pierre nire inspirazio, nire argialdi bilakatu da. Egun hauetan guztietan atzean utzitako lan guztiak bukatu ditut, eta nola gainera? Inoiz baino hobeto! Diseinu batzuk birmoldatu ditut eta ia ia josten amaitu ere, ibiltokiko apaingarriak aukeratu ditut eta kaleetan jarriko ditudan kartelak aukeratu, kolorez jositakoak dira, alai-alaiak. Dena zuri esker Pierre! Baina, mutilak ala neskak izango ditu gustuko?

Parisen, 1987ko apirilaren 4ean

Berarekin hitz egin behar dut, deitu egin behar diot... Uste dut gaya dela, seigarren zentzumen bat izan ohi dut nik horretarako. Bere mugimenduak ez dira mutil gehienena bezalakoak, ni bezalakoak ez diren mutilek ez dituzten xehetasunak ditu berak, sentikortasun espezial hori duela uste dut.

Beste mutil bat izango balitz, dagoeneko zerbait iradoki izango nion edo beharbada ustekabean musukatu... Baina, PIERRE DESBERDIÑA DA!
MAITE ZAITUT,
MAITE ZAITUT,
MAITE ZAITUT,
MAITE ZAITUT,
MAITE ZAITUT,
Pierre, MAITE ZAITUT!!

Parisen, 1987ko apirilaren 4ean
Gaurko eguna berdina izan da:
Klaseak: lan egiten jarraitzen dut.
Pierre: maiteminduta jarraitzen dut
Mathilde: ezer jakin gabe jarraitzen dut.

Parisen, 1987ko apirilaren 8an

Gaur telefonoak jo duenean benetan urduri egon naiz, ea nor izango den... Pierre da, poliziatik deitu diote, nirekin hitz egin nahi du, bere etxera joatea nahi du. Baina, zer jantziko

dut? Zein lurrin erabiliko dut? Ezin izango naiz luzerako geratu, bi egun barru desfilea da... Agur!! Banoa... Ea zortea dudana...

Parisen, 1987ko apirilaren 9an

Munduko pertsona zoriontsuena naiz... Nondik nahi duzu hastea?

MATHILDE: -Bere idazkera bat dator gutunekoarekin.
-Bere hezurren artean merkurio arrastoak aurkitu dituzte.
-Bere senarra eta iloba kartzelan sartu dituzte
-Juizioan deklaratu behar dut.

Egindako lan guztiak zerbaiterako balio izan du!

PIERRE: Ez dakit nola hasi, ez dakit nola bukatu, ez dakit nola kontatu... Zerbait sentitzen zuela agertarazi dit, txundituta geratu naiz, zer esan ez nekiela. Nire bizitza osoko gaurik zoriontsuena izan da, ez dut inoiz ere gehiago gozatu, ez nuen horrelako plazerra inoiz ezagutu, ez, hori argi dago.

Parisen, 1987ko apirilaren 10ean

Prentsan agertu gara, Frantziako aldizkari eta egunkari guztietan gaude, baita nazioarteko batzuetan ere. Gainera, amak deitu egin dit, Parisera etorri nintzenetik berarekin hitz egiten nuen lehenengo aldia izan da, haserretuta zegoen eta nire harrotasunak ez ninduen uzten lehenengo pausoa ematen. Beti arrarotzat jo izan duen semeak horrelakorik egin ahal izatea ezin duela sinetsi esan dit, harro dagoela esan dit, ausarta naizela, maite nauela eta ez duela inoiz ere berdina gertatzerik nahi, oraindik aurrera betirako izan behar dugula lagun, negarrez egon da, barkamena eskatu dit... Eta ni POZTU egin naiz!

Gaur egun handia izan da, desfilea... Pierre lehenengo ilaran egon da, txaloka denbora osoan, ezin izan diot begirik kendu. Modeloak primeran egin dute bere lana, musika eta apaingarriak perfektu egon dira, ez da inolako huts egiterik egon. Erabateko arrakasta! Gainera, prentsa etorri da, FAMATUA BILAKATU NAIZ!!, erosleen dei asko izan ditut. Nire ametsa burutu da, dena Mathilderi esker.

PIERRE MAITE ZAITUT!!



Ainhoa Malaxetxebarria - Batxilergoa 2. maila

*“Pertsona oso alaia naiz
eta lagunekin irtetea gustatzen zait.
Musika eta hondartza ere gogoko ditut”*

BIZITZAREN AMAIERA

Egun iluna zen niretzat, kalean, ordea, egun zoragarria. Ohetik jaiki eta sukaldera joan nintzen. Sukaldera joan bai, baina gosaltzeko gogorik ez. Barruan neukan tristurak gosea ere kendu zidan. Ama sukaldera sartu orduko negarrari eman nion, amak besarkatu ninduen eta lasai egoteko esan zidan.

Gurasoak aitonaekin batera tanatoriora abiatu ziren autoz. Aita gidari eta ama eta aitona atzealdean. Ama etxean, isilean negar egiten ikusten nuen, ni gehiago ez kezkatzeko edo. Baina autoan sartutakoan negarrari eman zion aitona besarkatuta. Ni ez nintzen beraiekin joan banekielako amona kaxa batean ikusi izan banu nire tristurak areagotu egingo zela. Nire neba gazteegia zela eta, beste amonaren etxera bidali genuen pare bat egunetarako, sofritu ez zezan.

Gurasoak abiatutakoan, etxeko sofian eman nituen pare bat ordu, baina sofa hark oroitzapenak zekarzkidan, amonarekin han izandako elkarrizketak gogoratzen zizkidan eta handik ere altxatu egin behar. Nire tristura eragiten zuena bezperan gertatutako amonaren heriotza zen. Nik amona asko maite izan nuen eta berarekin harreman berezia izan nuen beti. Bazkalondan

lo kuluxka bat egitea pentsatu nuen, baina lo geratutakoan amonarekin ametsetan hasi nintzen. Ametsa laster batean bukatu zen, amak deitu zidan hiletara joateko. Arropak jantzi, nola ez dena beltza. Lehen tristura handia eta arropa haiekin oraindik tristeago. Hiletan lore sorta bat eramane behar nuen, "zure iloba maiteak" zeramana gainean idatzita.

Elizan sartu zen lehena neu izan nintzen, neure arropa ilunekin, lore sortarekin eta aurpegian zehar mila malkorekin. Nik neukan tristura, elizan beste inork ez zeukala iruditzen zitzaidan. Elizan lehen eserlekuan jarri nintzen nire familiakoekin batera. Ez dut gogoratzen abadeak zer zioen. Ni amonarekin oroitzen nengoen, zer nolakoak bizi izan genituen biok. Amona, gure amaren ama zen eta, beti bizi izan nintzen berarekin, bere baserrian. Ni bere lehen biloba izan nintzen eta uste dut horregatik maite izan ninduela hainbeste amonak. Txiki-txikitatik hasi eta hezi ninduen berak, gurasoak lanean baitzeunden. Jaio berri nintzela paseatzera eramaten ninduen.

Behin, bost urte inguru nituela amona Ameriketara joan zen osaba bisitatzerara, bertan bizi baitzen osaba. Amona Ameriketara egon zen denbora guztian yogurrak baino ez nituen jaten, amonak jaten ematea nahi nuen eta. Beste batean zazpi urte edo nituela, amarekin haserretu eta sukaldeko lurrera jausi naizelako eginez, bertan garragarria eta protestaka egon nintzen. Amona etor zedin nahi nuen eta berak altxatzea handik, ez beste inork. Orduan amak besotik tira egin zidan eta sorbalda lekutik atera, intentzio txarrik gabe. Nik negarrari eman nion eta amonarengana lasterka alde egin nuen. Berari esan nion besoan min handia neukala eta berak sinetsi eta amari esan zion ni ez nengoela ondo, besoan zerbait neukala. Orduan nire gurasoak medikuarengana eramane ninduten.

Hileta elizkizunean hainbat oroitzapen izan nituen, nola ez amona eta berarekin izan nituen bizipenak eta pasarte ugari etortzen zitzaizkidan gogora. Elizkizuna bukatzen zihoan, ni malkoak isurtzen eta beste senitartekoak ere nire antzera. Azkenean bukatu zen elizkizun bedeinkatua. Nire ustez, elizkizunak tristeago jartzen zaitu kantu eta musika triste horiek zure barne sentimenduak azaleratzen dituztelarik. Berrito lore sorta hartu eta hilerrira bidean. Zenbat oroitzapen hain denbora gutxian!! Eliza ondoko landetan zenbat jolas eta algara!!

Ibarrangeluko hilerrian lurperatu genuen, berak hala nahi izan zuelako. Bera Gautegiz-Arteaga-koa zen baina hainbeste urte Ibarrangelun emanda, ibarrangelutar sentitzen zen. Abadea berrito ere bere liburuxka eskuetan hartuta, inork ulertu ez zizkion lauzpabost hitz esan eta han lurperatu zuten amona. Bi soketatik zintzilik jarritz bere egurrezko kutxa sartu zuten horretarako egindako lurreko zuloan. Lurra gainera bota eta han geratu zen bera lurraren azpian ehortzirik, bakar-bakarrik. Eztarrian neukan korapiloa ezin nuen askatu. Hilerritik autorantz nindoala lagun eta senitartekoak doluminak ematera hurbildu ziren eta nola ez bi musu ematera.

Etxera heldutakoan konturatu nintzen amona hilda zegoela, baina nire bihotzean bizirik zegoela. Hil baino urtebete lehenago eraztun bat oparitu zidan data eta "amona Oli" zioen esaldiarekin. Oparitu zidan egunetik ez dut inoiz ere kendu eta ez dut uste kenduko dudarik ere

Badakit bizitza nolakoa den, maite ditugun senideak lasterrago edo beranduago mundu honetatik alde egingo dute. Nire kasuan amona joan da. Bizitza luzea eta laburra da era berean, gutxien espero dugunean gehien maite dugun pertsonak alde egiten du, beste mundura, amonak esaten zuen bezala. Amona ez zen hain zaharra izan, baina joan beharra heldu zitzaion. Hainbeste gauza nituen pentsatuta amonarekin egiteko. Beti amestu izan dut nire ezkontzan eta aitona eta amona ere bertan egon zitezkeela, edo txikitan bezala paseatzera joan edota jolas egin. Nire desio guztiak zapuztu dira. Baina min handia eduki arren, bizitzak aurrera egiten du, normaltasunera bueltatzea izango da onena nire ustez. Asko kostatuko zait egunerokotasunera bueltatzea, baina azkenean lortuko dudala uste dut; amonaren oroitzapenak lagunduko dit eta lagun zein senitartekoen maitasun eta laguntzaz lortuko dut seguru baietz.

Nire amona bizitzan gertatu zaidan gauzarik ederrena izan da. Orain badakit zerutik niri begira dagoela. Eskerrik asko amona



Janire Lauzirika Lafuente - Batxilergoa 2. maila

“Haserrearen grinak harrapatzen zaituenean...”

BEREKOIKERIAN ITSUTUAK

Hitz egiten beti,
hitz eta pitz;
aho pozoitsu gaiztoetatik.
Ahoa bai, baina non belarriak?
Hitz jario horien atzetik,
norabide zuzeneko oihuak.
Norberaren berekoikerian heziak,
besteenganako interesik gabeak.
Belarri gabeak.

Lehertzer doan sumendi bat da
beraien ahoa.
Labearen berotasun grinatsuz josiak
beraien ideiak,
baina berotu beharrean,
izoztu egiten dutenak,
sumendi gori baten labak

itsasoa ukitzen duenean bezala,
harri gogor hotz bihurtuak.
Belarri hoztuak.

Ez eskatu laguntzarik,
ez baitakite zer den hori,
ipuin laburretako
maltzurak dira;
Besteen nahiei so egiten ez dietenak,
fabore baten truke,
arima lapurtzen dutenak,
handinahiak handituak,
baina halere ;
Belarri txikiak.

Interesak mugitzen ditu,
haize bortitzak zuhaitzei moduan.
Lotarakoan ere entzuten dira,
euren murmurioak,
galtzagorri bihurrien
txantxa maltzur amai ezinen antzera,
bukatzen ez diren amesgaiztoak.
Hemen edo han, hurbil edo urrun,
entzuten ez dakitenak.
Belarri oihartzundunak.

Bekaizkeriak jota
zapaltzen dutenak.
Ahoa da arma boteretsua,
agintari beldurgarrien
aho dardaregileak.
Begiak itsutuak,
lur- barneko zoko ezkutuetan bizi diren,
satorrak.
Ipar-haizeak hoztutako pertsonen;
Belarri izoztuak.

Haurrak negarrez,
haurrak gosez,
tiro hotsa urruneko lurraldeetan,

hurbilekoetan...
Eurek ordea isolaturik bizi dira,
mundu eta gizarteko arazoetatik at,
barne mundu berekoian,
bakartian,
kontsumistan...
Ondoko bozetatik ihes egin nahiez,
Belarri urrunduak.

Banatzen ez dakitenak,
entzuten ez dakitenak,
laguntzen ez dakitenak,
lehen pertsona singularra aldarrikatzen dutenak,
hau,
hori,
hangoa,
dena nahi dutenak,
belarri berekoiak.

Belarri gabeak,
belarri hoztuak,
belarri txikiak,
belarri oihartzundunak,
belarri izoztuak,
belarri urrunduak,
belarri berekoiak...
dira
berekoikerian itsutuak.



Mikel Beaskoa Goiriena - Batxilergoa 2. maila

“Arraunlaria naiz eta Kontxako banderako lehen pustuaz egiten dut amets“

AMETS BATEAN BEZALA

Urrutiko lurralde eder, bakarti eta miresgarri batean, aspaldi-aspaldi, zaldun bulartsu eta prestu bat... Ez, istorio hau ez da honela hasten, ez du toki eta gertaera harrigarriez jarduten, gataska hotz eta ilun batetaz baizik .

Bizitza suertatu zaigun egun hauen joan etorriak jendea interesik gabeko objektu bilakatzen du eta ez da kontatzeko moduko ezer gertatzen. Eguneroko bizitza guztiz berdina da, egun bat joan bestea etorri, guztiak ere nahikoa beretsuak dira. Bizitzan zehar biraka ari den gurpil hori, mantu gris batez estali eta egunean-egunean, gutxika- gutxika, kaiola batean banengo bezala bere hormek estutzen eta mugatzen nautelarik.

Gaur egun gazteak moteltzen ari dira. Neguko hotzak jota baleude bezala nagiturik eta zaharrak berriz zimeltzen, pixkanaka-pixkanaka, urte luzez bildutako jakituriaren zamak okertu eta uzkurtuko balitu moduan.

Jada, ez da mundua, itsas marinel ausarten bidaia eta abenturez, edota mundu magikoetako gertaerez zipriztintzen, gaur egun gertatu beharreko guztia aurretiaz programaturik dagoela ematen du. Guztia, diruaren menpe dauden makinak bagina bezala egiten da, eta une horretan

ohartzen naiz ez naizela beste guztiengandik hain ezberdina. Basamortuaren parte den harea ale bat besterik ez naizela iruditzen zait.

Baina iluntasun guzti horren barnean esperantzaren suak dirau pizturik oraindik eta ikusi dut begiak zabal-zabalik, gizaki hilezkorron pentsamenduak baino ederragoa den zerbait: askatasuna, ederra eta hotza, bere osotasunera iristeko dagoen udaberriko goiz bat bailitzan .

Askatasuna inguratzen duen iluntasun beldurgarriak, nire itxaropen horrek baino indartsuago eta sendoago ematen du; zulaezina dela iruditzen zait eta dudatan sartuta erabat beldurtzen naiz. Ez naiz minaren ez heriotzaren beldur; askatasunik ezaren beldur naiz eta mugak jarriko dizkidan kaiolaren beldur, barroteak estutzen egotearen beldur, denborak eta ohiturak hauek onartu arte, ausardiaren aukera oro, oroitzapen edo desira soil nola bihurtzen diren ikusten. Guzti horren beldur naiz.

Idea ilun eta hotz hauek buru barruan bueltaka dabilzkidanean, egunek bere bizitasuna galtzen dute, opako eta hits bihurtzen direlarik. Baina hainbeste gogoetaren artean atsedean hartzea erabaki dut. Bai, nahikoa da gaurkoz, kalera noa haize pixka bat hartzera, ea horrela buruko hodei beltz mardul horiek nire barrutik aldentzen diren. Ganbaratik zeharo pitzatuta bukatu orduko hobe izango dut, gainera nekeak jota nago, lepo gainean altzairu astun bat eramane beharko banu bezala eta hau kate lodiz lutua daukat, bere pisua geroz eta handiagoa delarik. Uste dut guzti hau buruan bueltaka dabilkidan kezka horrek sortu didala .

Ohi bezala ni atera naizenerako lagunak kalean daude. Ondoren gehienetan egoten garen tabernara joan gara eta han, bazterreko mahai batean, hizketan, barrez, karta jokoan... aritu gara. Gustura erabat. Une batez ordea berriro ere nire baitan murgildu naiz batere ohartu gabe egunak bere kolore guztiak berreskuratu dituela inoiz baino bihiago.

Horrela nagoela, burua ideia batek zeharkatu dit, zerua zeharkatzen duen oineztu bat balitz bezala. Buruan oinaze hura sortzen didan iluntasuna garaitu nezakeela otu zait. Bi gerlari balira bezala irudikatu ditut, alde batetik iluntasun guztien eta mundu honetako okerren bildumaz osatutako arima zuen gerlari beltza dago, bere aurrez-aurre, nire itxaropen guztien jabe den gerlari txuria. Biak, zein baino zein harroago, ea nor den gehiago erabakitzeke lehian.

Oesteko filmetan lez, kale hutsean, onaren eta txarraren arteko dueluan, biak beraien begi tarteak zimurtzen begirada zorrotz eta sarkorrekin bizkorrekin arerioa zulatuko balute bezala, atzamarrak errebolberraren gainean mugimendu geldoz mugituaz, zirkinik txikiena nabaritzean arerioa balaz josita uzteko zain. Aireak pisua hartzen du eta zainetan zehar dabilen odolaren beroak ere ihes egiten du egonezinaren egonezinez.

Badakit borrokan odola isurtzea nire gerlariaren printzipioen aurka dagoela baina, mugarik gabe maite dut argitasun hura zabaltzea; lurreko belar izpi bakoitza, bere harea ale bakoitza, bere hartxintzar oro maite dituen abertzaleak bezainbat maite dut .

Mundu honetan guda ugari izan dira, batzuk lurrengatik, beste batzuk boterearengatik, edo nagusitasun hutsagatik, suposatzen dut aske izateagatik edo aske zarela sentitzeagatik borrokatzeak zentzu gehiago duela.

Bi gerlariak borrokan hasi dira, bere harrapakinagatik borrokan ari diren piztiak dirudite, baina bat-batean, zas! Zartako baten hotsa eta nire zoritxarrerako, zaldun zuria erori da bularra alde alde atzaparkada batez zeharkatua duelarik. Berriz ere iluntasuna nagusitu da baina argitasuna ez dago hilik, ordea, zauri zuriak baditu ere oraindik gelditzen zaio arnasa.

Mundua beti izan da boterearen eta nahikeriaren menpeko, badago bestalde, beti pizturik dirauen itzaropen hori, kateaz lotuta egon arren ihes egitea uzten duen hori: askatasun itzaropena.



Ainara Larrinaga Anasagasti - Batxilergoa 2. maila

*“Askatasuna amets bat bada,
zergatik ez dugu amesten elkarrekin?”*

ZERUKO IZARRAK

Badakit zeruko izarrak
urrunean dauden
eguzkiak direla;
badakit gaueko izarrak
zelai beltz bateko ihintza direla
egunargiko lehen izpien azpian.

Badakit zeruko izarrak
zuk begiratzen dituzunean
nere begietara ere ederragoak direla,
badakit.

Badakit zeruko izarrak
ene desio direla
neguko laku isilean
islatzen direnean,
denak ederrak,
denak argiak,
baina bat ere ez

zu
bezainbeste.

Badakit zeruko izarrak
gauean bakarrik direla izar
eta egunez
itxaropen direla,
promesa direla,
aske direla.

Badakit zeruko izarrak
ene irrika direla
udaberriko fruitu loratueta
txorien txorrotxio sakonak entzutean,
denak ederrak,
denak argiak,
baina bat ere ez
zu
bezainbeste.

Badakit zeruko izarrak
ziur dakit,
hodei ertzean dirdirka daudela
goizeko itsas zabaletan;
itsasargi baten lantza zuzena bezala
urrezko direla
eguerdiko itsas lasaietan.

Badakit zeruko izarrak
orbel galduak direla
iluntzeko itsas bareetan;
San Juan gaueko sugarrak bezala
zilarrezko direla
gaueko itsas baketsuetan.

Badakit zeruko izarrak
ene gurari direla
udako eguzkipean
ametsak pizten dituztenean,
denak ederrak,
denak argiak,
baina bat ere ez
zu

bezainbeste.

Badakit zeruko izarrak
ametsetan agertzen zaizkidala,
zurekin pentsatzean
loa arinduz,
eta nahi nuke
zuretan ere agertzea
nirekin pentsatzean
sentimenduak piztuz.

Zeruko izarrak
eder eta argi,
badakidalako.

Badakit zeruko izarrak
banan-banan
eta itsu baten begietan ere
eder direla,
argi direla,
zu
baitzara guztietan,
zu
zeruko izar guztietan.



Sara Santiago Aldamiz-etxebarria - Batxilergoa 2. maila

*“Hitz batzuk haizeak daramatza,
beste batzuk ordea betirako diraute.”*

AMAIERADUN ETSIPENA

Neguko egun batean
neguko egun hotz batean
ibilaldi baterako irten da.
Bakar-bakarrik, pentsalari,
erritmo isiltsu batekin.

Bere ezpain gorri eta gozoetatik
hotzak eraginda, kea dario.
Eta izarrak bezain disdiratsu daude,
beste ezpain batzuekin
marruskatu nahiko balute bezala.

Apurtutako olatuen apar lodiak
bere oinetan desegiten dira
eta emakume bakartiak
liburu txiki bat irakurtzen du,
bizitzaren liburu txiki pisutsu bat.

Haizeak bere gorputza inguratzem du
ile ilun eta luzea orrazten duen bitartean.
Azabatxea bezain beltza,
gaba bera bezain iluna.
Haizeak emakumea desiatzen du.

Emakumearen bi harri urdinak
zentzurik gabeko milaka hitzetan galtzen dira.
Uletru ezinik, nahasirik.
Eta itsasoa bera izango balira bezala
urez estaltzen dira.

Malkoek bere masailak zeharkatzen dituzte
kristal nimiñoak izango balira bezala,
bere azal zurbileko zauri mugagabeak
irekitzeko asmoz dabilzan,
kristal zorrotzak bezala.

Ezin dio liburuari eutsi, harera jausten uzten du
eta honek hare fina ukitzerakoan
bonba bat bezala
zulo neurrigabe bat uzten du.
Hondoratuta dago, ezin du berreskuratu.

Ilargiak gau hotzean deitu egiten dio
eta korrika hasten da
perla biribilaren atzetik
Baina ezin da harengana heldu.
Ilargiak emakumea desiatzen du.

Haieak bere hanka luzeak bilatzen ditu,
hare finean oinatsak uzten dituztenak
eta geroago urbazterrean desagertzen direnak
berriro ere hasiera bateko hare finean bihurtuz.
Haizeak emakumea desiatzen du.

Gero eta urrunago aurkitzen da.
Bakarrik,
galdurik,

ezkutaturik,
beldurturik.

Lainoak emakumea desiatzen du.
Baina neurrigabeko hondartzan
ezin du emakumea aurkitu,
desagertu egiten da
oinatsak desagertzen diren bezala.

Emakumea, asegabeturik
arrokarik handienera igoten da
bere zain dagoen damarengana iristeko,
lortzeko,
hartzeko.

Xuxurla, garrasi bihurtzen da.
Haizetxo, haize indartsu bihurtzen da.
Itsaso mantsoa, beraien artean
borrokatzen ari diren olatu bortitz..
Ilargia sutan jartzen da.

Emakumea negarrez dago,
uluka, txakurrak bezala.
Bere bi harrokak, su gorri bihurtzen dira.
Bere ezpain gorria, su gorri bihurtzen da.
Bere ile iluna, su gorri bihurtzen da.

Haizeak emakumea jasotzen du.
Zakarki jausten da
ilargi handiaren ispilu sakonean.
Itsasoak ere emakumea desiatzen du
eta desioa erosta bihurtzen da.



Ana Carvajal - HHI-ko ikaslea
*“Bizitzan dena idatzita dagoelakoan bagaude ere,
oraindik ez dugu irakurri.”*

BRASILEKO BIDAIA ZORAGARRIA

Hiru lagunei gertatutako istorio bat kontatuko dizuet.

Ekainaren lehenengo astean lagun hauek oporretan joatea pentsatu zuten baina ez zekiten nora joan. Lehenengoz Galizire joatea pentsatzen ari ziren baina bidaietako agentzire hurreratu zirenean eta hainbeste bidai merke ikusi zutenean, iritzia aldatu zuten. Data on bat aukeratu zuten bidai hau egiteko eta zorte onagaz eskaintza asko egin zizkieten, badakizue abuztuan ez direla egoten holako eskaintzak.

Beno bakoitza beren etxean komentatu eta euren artean ados ipini ondoren, Brasilerara joatea erabaki zuten. Holan lagun horietatik batentzat beran lehenengo bidaia izango zen hegazkinez.



Dena prestatu zuten, bada ez bada txertoak ere hartu zituzten hango gaizotasunen kontra. Irteteko eguna heldu zen, Amaia hegazkina lehenengoz hartu behar zuenez, nahiko urduri zegoen, beste biak ordea, ez. Gurasoak agurtu eta aireporturantz abiatu ziren. Behin hemen egonda, txartelak, NANak eta pasaporteak eskatu zizkieten. Eurek prest zeuzkaten baina ez ziren konturatu Itziarren karneta datatik pasatuta zegoenik. Amaiak eta Izaskunek mailetak pasatzen zituzten bitartean, Itziar tipoari azalpenak ematen ari zitzaion. Gauza honekin nahiko gogorak dira aireportuetan eta Itziarri ez zioten utzi bidai hori egiten, hurrengo hegazkina hartzeko esan zioten. Hurrengo sei ordu beranduago zen eta bakarrik egin beharko zuen bidai osoa, beste biak euren txartelak errespetatu behar zituzten eta.

Lagunek ezin zuten besterik egin, Itziar lasaitu eta Brasileko aireportutik ez zirela mugituko bera heldu arte esan zioten. Beraz, urteak bezain luzeak iruditu zitzaizkion orduak pasatu eta gero, gure neska bakartiaren momentua heldu zen. Bi hegazkinek irten behar zuten ordu bardinean, eta zelan ez, hain urduri eta trakets ibiliz, okerrekoan sartu zen, Kolonbiara zihoala konturatu zenean beranduegi zen handik bajatzeko. Mugikorra ere amatata zuenez ezin izan zien Brasilen zeudenei inola abisua emon. Egun luze eta txar bat pasatu zuela pentsatzen zuen Itziarrek eta gainera orain hau ere gertatu behar, lagunik gabe eta Kolonbiarako bidean, berak bere buruari zer egingo zuen galdetu zion. Negarrez hastear zegoenean mutil eder bat jezarri zitzaion alboan. Holako mutila ikustean beran pena guztiak ahaztu zitzaizkion, berarekin hitzegiten bidai osoa igaro zuen.

Mutil honen izena, Mikel zen. Mikelek bere bizitza osoa kontatu zion Itziarri. Mikel Kolonbian jaio arren, bere gurasoak euskaldunak ziren. Bere aitak postu on bat euki zuen Erandioko enpresa haundi batean, baina arazoak zirela eta Kolonbiako enpresa zuzendari moduan joan zen. Bere emaztegaia hara eramane zuen eta bertan ezkondu ziren. Mikel ume bakarra izan zenez, denetarikoa eman zioten. Hala ere, ez zen bihurtu ume apetatsu. Beste aldetik hasi zenean bere itxura ona aprobe txatu zuen aktorea izateko. Baina noski, Kolonbiako aktoreek *kulebroietan* egiten dute lan.

Mikelek Itziar gonbidatu zuen hurrengo kulebroian berarekin agertzera. Itziarrek pozaren pozez baietza eman zion. Hau eta bestea komentatzen hegaldia amaitu zen, ezinezkoa zirudien zein laburra egin zitzaien elkarrekin oso gustora zeudelako.

Hegazkina lurreratzean, Itziar bere lagunak zain zeuzkala konturatu zen. Mikeli dana kontatu eta gero, honek bere laguntza eskaini zion asuntua konpontzeko. Itziarrek Mikelen etxetik deitu zien laguneri dena azalduz. Lagunek egoera ulertu zuten eta Itziarren ahotsan maiteminduta edo zegoela igerru zuten. Neska honentzat guzti hura amets zoragarria bezalakoa zen.

Zoritxarrez, amets horrek ez zuen luzerik iraundu, afaldu eta gero Mikelek esan zion bere emazte eta umeen bila joan behar zuela alboko hirira, aitite-amama ikustera joan baitziren. Hori entzunda Itziarri aurpegia aldatu zitzaion, horrelakorik ez zuen batere espero eta. Izan ere, negargura sartu zitzaion baina amorrua ere bai, beraz, lortu zuen malkorik ez botatzea. Laguneri deitu zien aholku eske. Hauek Mikeli laguntza eskatzeko esan zioten. Irtenbide gehiagorik ez zeukanez, halakoxe egin zuen.

Mikelek berriro eskaini zion berarekin lan egiteko aukera Kolonbian, baina Itziarren ezetz borobila ikusita erabaki zuen hurrengo egunean emaztearen lagun bati deitu eta laguntza eskatu.

Itziarrek gau hartan Mikelen familia ezagutu zuen. Emaztea andre oso fina zen, xamur-xamurki hitz egiten zuen. Ana Silvia zuen izena. Nahiz eta Itziar minduta egon, onartu behar izan zuen benetan emakume xarmagarria zela. Hiru seme-alaba zituzten, oso ume alai eta zaratatsuak zirenak.

Hurrengo goizean Ana Silviak Itziar eramane zuen bere laguna Paulo ezagutzera. Paulo hegazkin pilotoa zen eta hegazkin txikien enpresa zuen. Kolonbiatik alboko herrialdetara garraioak egiten zituen. Gizon serioa ematen zuen eta atseginez Itziar Brasilerara eramango zuela esan zien.

Hori entzutean, Itziar pixkat animatu zen, lagunak hain bere zain zeudelakoan. Xehetasunak konponduta, arratsalde horretan Itziarrek Mikel eta familiari agur egin zien, Brasilerara abiatuz. Hura poza bere lagunekin azkenengoz elkartzea!

Sorpresatua aurkitu zuen Itziarrek heltzean: Lagunek mutil euskaldun koadrila ezagutu izan zuten Rio de Janeiro! “Benetan, gaur egun mundua oso txikia da”, pentsatu zuen gure neskak, “eta agian opor hauek ez dira azkenean hain zoritxarrekoak izango. Batek daki.”



Mª José Bilbao - HHI-ko ikaslea
*“Txikiak badira, bai, baina beren kabuz ikasiko dute
 hegan egiten noizbait.”*

NIRE LAZTANA

Gaur goizean ohetik jaiki naizenean, leihotik begiratu dut, hau bai ezustekoa! dena zuri zuria, kalea, zuhaitzak, teilatuak...

Gau guztian zehar elurra zerutik jeisten egon omen da...eta den dena elurrez estalita geratu da.

Tximeneia piztu ondoren, familiarekin gosalduta. Nahiko urduri egon gara, hau ezustekoa elurra! Denok errepikatu dugu, urduri bai, baina pozik, alabatxoa batez ere:
 -Gaur ez dugu eskolara joan beharko, elurrarekin jolastera baizik.

Denok etxetik irten direnean tximenearen aurrean bakar bakarrik eseri egin naiz:
 -Ni hemen epel-epeletan nago, baina kanpoan hotza...eta nire laztana...nire laztana....non egongo ote da?

Elurrak jausten jarraitu du. Nik leihotik zehar txori txiki bat ikusi dut, kurloi bat izan dela uste dut, kurloitxo bat...Nire laztana bezela
 -Nire laztana...non egongo ote da?.

Begiak malkoz bete zaizkit, baina ez dira tristurako malkoak izan, oroipenenak baizik
 -Nire laztana...

Elurrari istorio txiki bat kontatu nahi izan dut:

Behin batean, ez naiz gogoratzen martxoa edo apirila ba zen, zerbait berezia gertatu zitzaidan: Nire etxeko tximeneia jadanik ez nuen pizten, eta, hain zuzen, hantxe bertan txori txiki bat aurkitu nuen, luma gabe zegoen, begiak ezin zituen ireki, guztiz beltz beltz zegoen, eta gorputzarekin konparatuta mokoa eta begiak oso handiak zituen.

Nire buruari esan nion : “Hau arraioa...”, baina berari ez nion gauza bera esan, “Nire laztana” baizik.



-Nire lastana,non egongo ote da?

Bainugelan nuen poto txiki bat hartuz, kotoiez bete nuen eta txoritxoak, kurloi bat zen, han sartu nuen. Nere alabari bixikako xiringa bat eskatu nion, eta harekin ur tanta batzuk piztiaren ahoan sartu nituen. Gero ur eta ogi mamiarekin papilla bat egin genuen eta pixkanaka pixkanaka jaten eman genion.

Gurekin jarraitu zuen. Handik egun batzuetara papilla barruan gailera zatiak sartu nizekin, aurrerago alpestea ere bai...eta momentu batean bera bakarrik jaten hasi zen. Nere alabatxoak (zortzi urte zituen), hainbeste lagundu zuen bai txoria zaintzen, bai elikatzen ere.

Baina gure lastana haundia egin zen, lumak hasi zitzaizkion, mokoa gogortu zitzaion, eta hegan ikasi zuen.Orain txori polit bat zen! Alaba eta biok konturatzen ginenean nola hasten zen, nolako saltoak ematen zituen, eta zenbat jaten zuen, berarekin hitz egiten hasi ginen, eta musuak ematen ere.

-Nire lastana...

Eta kurloiak irribarre bat egiten zuen. Badakit hau ezinezkoa dela... baina benetan, gure piztitxoak , gu ikusi eta irribarrez hasten zen.

Goiz goizetik abesten esnatzen ninduen, eta horrela gosaria eskatzen zuen. Momentu haietan bai esaten nion: “Zer arrai!”

Ni, alde batetik, pozik nengoen, baina beste aldetik kezkatuta eta laister alde egingo zuen beldurrez.....Horrela beste hiru edo lau hilabete pasatu ziren.

Etxeko leihoak zabalik egoten ziren, eta txoria kalera irtetzen hasi zen, baina beti itzultzen zen. Nere lagunaren lorategira joaten nintzenean nire lepoan zetorren. Etxeko ingurutik ibiltzen zenean, nik txiki txiki batekin deitzen nion, eta nire lepora igotzen zen, musu batzuk ematen nizekin eta elkarrekin hitz egiten etxera sartzen ginen.

Baina....egun batean, iraila aldean, txoritxoak alde egin zuen eta ez zen sekula ere ez itzuli. Nere uzte bere bizitzaren bila joan zen, eta, agian, bikotearen bila ere.

Esperientzia ederra izan zen, benetan. Askotan gogoratzen dut, eta oraindik ez dut ulertzen zelan eduki nuen pixti txiki batekin benetazko laguntasun harremana.

Denbora pasatu da. Bizitzarekin jarraitzen dugu:

-Udak, Gabonak, Oporrak, Lanak, Udaberriak, Lagunak, Euriak, Beroak, Egunak, Urteak... Baina gaur goizean den dena baztertu eta leihotik begira geratu naiz, elurra, elurra....Elurrarekin

hitz egiten hasi naiz...eta bapatean elur artean kurloi bat ikusi dut.

Txoria nire leihoraino hegaz etorri da...begiratu diogu elkarri, nik irribarre egin dut...eta berak ere..... irribarre gin du! Gero zerurantz alde egin du.

Eta ni tximeneia aurrean gelditu naiz.

-Nire lastana...non egongo ote da?

